

KAUDIMEN-GABEZIAZKO EGOERETAN KONTSUMITZAILEAK BABESTEKO LEGE-PROZEDURAK

I. KONTSUMITZAILEA NEURRIZ GAIN ZORPETZEA:SARRERA

II. KONTSUMITZAILEAREN KREDITU-EGOERAREN ANALISIA

III. FAMILIEN NEURRIZ GAINKO ZORPETZEAK IZAN DITZAKEEN
KONPONBIDEAK

IV. BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BIDEAK

V. GLOSARIOA

VI. KONTSUMITZAILEA ETA HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

AURKIBIDEA



Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna-EHKB
Unión de Consumidores de Euskadi-UCE



I.KONTSUMITZAILEA NEURRIZ GAIN ZORPETZEA:SARRERA

II.KONTSUMITZAILEAREN KREDITU-EGOERAREN ANALISIA

- 1.- Kreditu- eta mailegu-eragiketen ezaugarri orokorrak.
- 2.- Kontsumitzaileak bere zor-posizioak ordaintzeko eskaintako bermeak.
 - 2.1.- Berme pertsonala.Fidantza edo abala.
 - 2.2.- Hipoteka-bermea.
- 3.- Hipoteka-eredu berriak.Hipoteka kargagarria eta alderantzizko hipoteka.
- 4.- Kontsumorako kredituaren sektoreko araudia eta kontsumitzailearen tutoretza:2008ko Zuzentaraua eta 2011ko Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legea.
 - 4.1.- Kontsumorako Kreditu Legearen kontzeptua eta aplikazioa.
 - 4.2.- Kontsumorako kreditu-kontratua gauzatzea.
 - 4.3.- UTB (Urteko Tasa Baliokidea).
 - 4.4.- Kontsumitzailearen eskubideak.
 - 4.5.- Atxikitako kontratuak.
 - 4.6.- Kontsumorako Kredituaren Zuzentzaruan jasotako araudia.

III.FAMILIEN NEURRIZ GAINENKO ZORPETZEAK IZAN DITZAKEEN KONPONBIDEAK

1.- KREDITUAREN EDO MAILEGUAREN BALDINTZAK ALDATZEA (hipoteka birne-goziatzea)

- A.- Hipotekaren subrogazioa
 - Nola funtzionatzen du subrogazioak?
 - Zein da 2/1994 Legearen aplikazio-eremua?
 - Legeak zer baldintza eskatzen ditu finantza-entitate berri batera subrogatzeko?
 - Beste entitate batek egindako subrogazio-eskaintzaren aurrean, zer egin dezake bere garaian mailegu bat eman zuen entitateak?
 - Zer komisio ordaintzera behartuta egon daiteke kontsumitzailea?
- B.- Hipoteka-mailegua aldatzen den kasuak
 - Zein dira maileguaren epea luzatzeko arau bereziak?
- C.- Zein beste neurri hartu dira zailtasunak dituen mailegu-hartzaileari laguntzeko?

2.- ZORRAK BATERATZEA

- A.- Aplikatu beharreko araudia.
 - A.1.- Kreditu-entitateak
 - A.2.- Kreditu-entitate ez diren enpresak
 - A.3.- Partikularrek emandako maileguen bitartez zorrak bateratzeak dituen arazoak.
- B.- Baterakuntzaren ohiko eskema
 - Zorrak bateratzeak badu desabantailarik edo arriskurik?

C.- Eragiketa hauei buruzko publizitateak bete behar dituen baldintzak

-Zorrak bateratzeak zer kostu ditu?

D.- Kontratua gauzatu aurretik eragiketaren kostuari eta baldintzei buruz kontsumitzaileari eman beharreko informazioa

E.- Kredituaren baldintzak

F.- Kredituetako bitartekaritza-jarduera

-Zorrak bateratzeko eragiketa horrek zertan laguntzen dio kontsumitzaileari zorrak ordaintzeko orduan?

-Egia da bateratzeko eragiketa horrek ez diola bezeroari inolako gasturik eragiten kontratua gauzatzeko orduan?

-Erraza da zorrak bateratzeko enpresa batekin harremanetan jartzea, ez badut lortzen bankuak nire kredituak birnegoziatzea?

IV.BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BIDEAK

-BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BIDEAK

-Hipoteka-maileguen alorrean erreklamazioak jartzeko eredia

-Eranskin gisa doan agiria (BANCO DE ESPAÑAAREN ERREKLAMAZIO-EREDUA)

V.GLOSARIOA

- HIPOTEKA-HARTZEKODUNA
- HIPOTEKA-KREDITUA
- HIPOTEKA-ZORDUNA
- FIDANTZA
- HIPOTEKA
- ERREFERENTZIAZKO INDIZEA
- GABEALDIA
- INTERES-ALDIA
- AMORTIZAZIO-EPEA
- HIPOTEKA-MAILEGUA
- ZORRAK BATERATZEA
- HIPOTEKATUTAKO FINKAREN ENKANTEA
- HIPOTEKATUTAKO FINKAREN TASAZIOA



VI. KONTSUMITZAILEA ETA HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

1.- HARTZEKODUNEN KONKURTSOA.OINARRIZKO KONTZEPTUAK

1. HARTZEKODUNEN KONKURTSOA
2. KONKURTSOAREN BALDINTZAK
3. EGUNGO KAUDIMEN-GABEZIA
4. HUR-HURREKO KAUDIMEN-GABEZIA
5. BORONDATEZKO KONKURTSOA ETA NAHITAEZKO KONKURTSOA
6. KONKURTSO-ADIERAZPENAK KONKURTSOPEKOAREN GAINEAN DITUEN ERAGINAK
 - 6.1. Konkurtsopekoaren administratzeko eta erabiltzeko ahalmenak
 - 6.2. Konkurtsopekoaren oinarrizko eskubideen gaineko eraginak
 - 6.3. Konkurtso-adierazpenak enpresa-jardueraren gainean dituen eraginak
7. KONKURTSO-ADIERAZPENAK HARTZEKODUNEN GAINEAN DITUEN ERAGINAK
8. KONKURTSO-ADIERAZPENAK KONTRATUEN GAINEAN DITUEN ERAGINAK
9. KONKURTSO-ADMINISTRAZIOA
10. HARTZEKODUNEN BATZARRA
11. KREDITUAK JAKINARAZTEA
12. KONKURTSOAREN FASEAK ETA SEKZIOAK
13. MASA AKTIBOAREN OSAKETA.Deuseztatzeko edo itzultzeko ekintzak
14. MASA PASIBOA.Kredituen sailkapena
15. KONKURTSO-KREDITUEN SAILKAPENA
 - 15.1. Kreditu pribilegiadunak
 - 15.2. Kreditu arruntak
 - 15.3. Mendeko kredituak
 - 15.4. Kreditu kontingenteak
16. MASAREN AURKAKO KREDITUAK
17. KONKURTSOAREN SOLUZIOAK
 - 17.1. Hitzarmena
 - 17.1.1. Hitzarmenerako proposamen aurreratua
 - 17.1.2. Hitzarmen arrunta
 - 17.2. Konkurtsopekoaren ondarea likidatzea
- 18.KONKURTSOAREN KALIFIKAZIOA.Konkurtsu erruduna eta ezusteko konkurtsua.
- 19.KONKURTSO-PROZEDURAKO ERREKURTSOAK.Konkurtsu-intzidentea

2.- KONTSUMITZAILEA HARTZEKODUN GISA HARTZEKODUNEN KONKURTSO BAITEAN

1. KONKURTSOPEKOAREN HARTZEKODUN GISA KONTSUMITZAILEAK DUEN EGOERARI BURUZKO AUZI PRAKTIKOAK
 - Hartzekodunak enpresa baten konkurtsua eska dezake?
 - Zer ondare-ahalmen izango ditu konkurtsuan adierazitako hartzekodunak?
 - Noiz, nola eta nori jakinarazi behar dio hartzekodunak kreditu bat duela?
 - Nolako publizitatea ematen zaio hartzekodunen konkurtsuari?

- Zer posizio betetzen du konkurtsopean adierazi duten enpresa bateko kontsumitzaile hartzekodunak?
- KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN ELKARTEAK:
Beren bazkideak hartzekodun diren konkurtsuan esku har dezakete?
Jakinarazi litezke hartzekodun bazkide ugariren kredituak, horiek aitortu eta sailkatze-ari begira?
Jar dezakete ezespren-intzidenterik konkurtsu-administrazioko kideetako baten aurka?
Konkurtsu-administrazioak prestatutako hartzekodunen zerrenda aurkaratu dezakete?

2. KONTSUMITZAILEA, ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZA BAT SALDUKO DUEN ENTITATEAREN KONKURTSOAREN AURREAN

- **KASUAK**, lege-erregimenak bereziak
- **AUZIAK**, kontsumitzaileak duen egoerarekin loturik, higiezina salduko duen entitatea konkurtsopean adierazten dutenean.
 - Zein egoeratan dago etxebizitza bat erostera doan kontsumitzailea, entitate saltzailea konkurtsopean adierazten dutenean?
 - Erosleak salerosketa-kontratua baliogabetu dezake?Kontratua baliogabetzeko zenbait kasu
 - Etxebizitza eman duen entitate saltzailearen nahitaezko konkurtsu-adierazpena eska dezake?
 - Zein araudik babesten du eraikitzen ari diren etxebizitza baten eroslea?
 - Beraz, zer neurri hartu behar ditu eraikitzen ari diren etxebizitza baten erosleak?
 - Etxebizitza baten erosleak dituen eskubideei buruzko informazio gehiago

3.- PERTSONA FISIKO EZ-MERKATARIAREN KONKURTSOA

- Konkurtsopean adieraz daiteke pertsona fisiko ez-merkatari bat?
- Zer baldintzabehar dira Merkataritza Arloko Epaileak pertsona fisiko baten konkurtsu-adierazpena egin dezan?
- Zer dokumentazio aurkeztu behar du konkurtsua eskatzen duen hartzekodunak?
- Zer da prozedura laburtua?
- Bi ezkontideen konkurtsua metatu daiteke?
- Zer neurri har ditzake merkataritza arloko epaileak konkurtsu-adierazpena egiten badu?
- Zer ondorio ditu konkurtsu-adierazpenak?
- Zer ondorio ditu konkurtsopekoarentzat hitzarmena onesteak?
- Zer ondoriokar konkurtsopekoarekin bereziki harremana duen pertsona izateak?
- Konkurtsopeko pertsona fisikoak badu elikagaietarako eskubiderik?
- Zer ondasun sartzen dira masa aktiboaren barruan irabazpidezko ondasun-erregimenean ezkonduetako pertsona konkurtsopean egonez gero?





I. KONTSUMITZAILEA NEURRIZ GAIN ZORPETZEA: SARRERA





Azken hamarkada hauetan ikusi dugu garapen ekonomikoak aurrerapen nabarmena egin duela gure herrialdean. Egoera horrekin batera, kontsumoak ere igoera garrantzitsua ezagutu du, eta gainera, gaur egun, gauzak erosi ahal izateko, aurrezkietatik datorren kapital bat eduki beharrik ez izateak bizkortu egin du kontsumo hori. Izan ere, kreditura ordaintzeko bitarteko ugari daude kontsumitzailearen esku.

Azken hilabete hauetako krisialdi ekonomikoak begi-bistan utzi du, halere, kontsumo-eredurik bortitzena ezin daitekeela denbora luzeagoan mantendu, Espainiako familia asko eta asko neurritz gaineko zorpetze-egoera batean aurkitzen direlako.

NEURRIZ GAINEKO ZORPETZEA esaten zaio neurritz gaineko zorrak egin dituen eta une batean horiei aurre egin ezinik aurkitzen den kontsumitzailearen egoerari.

Kontsumitzaile bat neurritz gaineko zorpetze-egoerara bultzatzen duten edo bultzatu ahal izan duten faktoreak ugariak izan daitezke. Maila pertsonaleko edo psikologikoko faktoreez gain, azpimarratu behar dugu azkeneko urte hauetan kontsumo-ondasunen ordainketa geroratua eta kreditua errazteko sortutako produktuak eta zerbitzuak erabiltzera (edo hobe esanda, neurritz gain erabiltzera) bultzatu dutela kontsumitzailea horietako askok. Halako neurritaraino barneratu du kontsumitzaileak kontsumo-ondasunak eskuratu beharra, ezen sarritan, ohiko etxebizitza eskuratzeko hipoteka-maileguaren gerizpean, ia eguneroko kontsumo-erosketek eragindako zorrak bildu baitira.

Era horretan, kontsumitzaileak ezinlotuagoak ditu bere etorkizuneko diru-sarrerak, eta edozein ustekabeko faktoreren mende aurkitzen da, hala nola langabezia, krisialdi pertsonal edo familiar bat, gaixotasun larri bat edo bestelakoak.

Neurritz gaineko zorpetze-egoera horrek ez du normalean irtenbide errazik edota kontsumitzaileari inolako kosturik ez dakarkionik. Kasurik onenean, galdu egin dezake jabetzan duen ondasun bakarra, hots, bere ohiko etxebizitza, eta batzuetan benetan larriak diren egoeretara ere irits daiteke, oinarrizkoenarekin ere sostengatzeko ezintasuna eragin diezaiokelako.

CD honetan eskaintzen den informazioak, ahal duen neurrian, kontsumitzaileari bere kredituaren kostua murrizteko eskaintzen zaizkion neurriei buruzko azalpenak eman nahi ditu, gutxienez kasu batzuetan aldi baterako (aldi baterako langabezia-egoera bat, osasun-arazoren bat... gainditzeko), eta bigarren partean, konkurtsoa aztertzen da, kasurik gehienetan zerotik hasi ahal izateko eskaintzen zaion azken neurri gisa, hark dituen zorren zenbatekoa ahal beste geroratzen edo murrizten saiatuz.

Nolanahi ere, esandako honek ez du esan nahi kontsumitzaileak ez duenik egoera honetan erantzukizunaren bere parte onartu behar. Orain inoiz baino gehiago, kontsumitzaileari gomendatu behar zaio buruarekin pentsa dezala, kredituari baino lehentasun handiagoa eman diezaiola aurrezpenari, eta saia dadila bere etxeko kontuaren saldoa ez dadila hilaren bukarean negatiboa izan.









II. KONTSUMITZAILEAREN KREDITU-EGOERAREN ANALISIA



II. KONTSUMITZAILEAREN KREDITU-EGOERAREN ANALISIA

- 1.- Kreditu- eta mailegu-eragiketen ezaugarri orokorrak. 
- 2.- Kontsumitzaileak bere zor-posizioak ordaintzeko eskainitako bermeak. 
 - 2.1.- Berme pertsonala.Fidantza edo abala.
 - 2.2.- Hipoteka-bermea.
- 3.- Hipoteka-eredu berriak.Hipoteka kargagarria eta alderantzizko hipoteka. 
- 4.- Kontsumorako kredituaren sektoreko araudia eta kontsumitzailearen tutoretza:2008ko Zuzentaraua eta 2011ko Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legea. 
 - 4.1.- Kontsumorako Kreditu Legearen kontzeptua eta aplikazioa.
 - 4.2.- Kontsumorako kreditu-kontratua gauzatzea.
 - 4.3.- UTB (Urteko Tasa Baliokidea).
 - 4.4.- Kontsumitzailearen eskubideak.
 - 4.5.- Atxikitako kontratuak.
 - 4.6.- Kontsumorako Kredituaren Zuzentaraan jasotako araudia.



1.- KREDITU- ETA MAILEGU-ERAGIKETEN EZAUGARRI OROKORRAK


Eragiketa aktiboetan edo kreditu-eragiketetan kreditu-entitateak bere bezeroari diru-zenbateko bat ematen dio eta hark kontratuan zehaztutako unean eta moduan itzuli behar dio, itundutako interesak gehituta (dirua mailegatzen den ohiko kasua), edo bestela, diru-zenbateko horren erabilgarritasuna emango dio, aldean artean aurrez finkatutako muga batzuen arabera (kreditu-irekieraren kasua, edo kreditu-txartelek berezkoa duten kreditu berriztagarriarena).

Diruaren banku-mailegua, berriz, kontratu bat da, eta horren arabera, kreditu-entitateak diru-zenbateko jakin bat emango du eta hori jasotzen duena (mailegu-hartzailea) behartuta egongo da hitzartutako epean espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzera eta itundutako interesen zenbatekoa ordaintzera.

Mailegu-kontratuan, aldiz, bankua behartuta dago maileguaren xede den kapitala itundutako unean ematera, eta mailegu-hartzaileak kontratua gauzatzen den unetik bertatik eska dezake diru-emanaldi hori egiteko; egiten den mailegu motaren arabera egongo da hori, baina nagusiki, kreditu-entitateak hori emateko eskatutako bermeen arabera.

Kreditu-eragiketei dagokienez, azpimarratu behar dugu kredituaren kontzeptu zabalaren barruan, dirua mailegatzen den kasuak ez ezik, xede bera lortu nahi duten beste modalitate batzuk ere sartzen direla, hala nola kreditu-irekiera, ordainketa-gerorapena, kreditu-txartelaren bidezko ordainketa...

Horrenbestez, kontsumitzailearentzat kostu garrantzitsua dakarten eragiketak dira, interesen kontzeptupean ezarritako zenbatekoari kontratuko baldintzetan ageri diren komisioak eta dagozkion gastuak gehitu behar zaizkiolako.



2.- KONTSUMITZAILEAK BERE ZOR-POSIZIOAK ORDAINTEZKO ESKAINITAKO BERMEAK.

Bereziki, hipoteka-bermea

Kreditu-entitateek izaera desberdineko bermeak eskatu ohi dituzte, eta horien xedea, hain zuzen ere, zor den kapitalaren zenbatekoa (nagusia) gehi horren interesak kreditu-entitateak jasoko dituelaziurtatzea da, mailegu-hartzaileak bere borondatez horiek itzultzen ez dituen kasuan.

Bermerik ohikoenak hauek dira:

- ✓ Pertsonala, gehienetan solidarioa den fidantza baten bidez, zorduna ez den beste pertsona batek edo batzuek jarria. Batzuetan, berme hori kanbio-abal baten bitartez gauzatzen da, baldin eta kapitala eta interesak ordaintzeko obligazioak berarekin zordunak onartutako kanbio-letra bat edo batzuk baditu, eta horren mugaeguna, hain zuzen ere, zorra (kreditu- edo mailegu-eragiketa batetik sortua, esate baterako) itzultzeko datekin bat etorriko da.
- ✓ Hipoteka-bermea, mailegu-hartzailearen titulartasunpeko ondasun higiezinaren gainean eratutako hipoteka baten bidez edo Hipoteka Higigarriaren Legean ezarritako moduan eratutako hipoteka higigarriaren bidez eta jabetzaren eskualdatzerik gabeko bahi baten bidez eratua.
- ✓ Pignorazio-bermea, titulu-balioen gainean (esate baterako, sozietate anonimo baten akzioak) edo salgaien gainean (warrants) eratutako bahi baten bidez, edo eskualdatzerik gabeko bahi baten bidez, aipatutako Lege horretan ezarritako moduan eratua.

Gure ordenamenduan nagusi den kontratazio-askatasunak aukera ematen dio bankuari, mailegu-hartzailearekin, finantza-ondare arloan duen egoerarekin eta krediturako eskatutako diru-zenbatekoarekin loturiko baldintza jakin batzuetan, arestian aipatutako horiez gain beste berme gehigarri batzuk eskatzeko. Banco de Españak, behin baino gehiagotan, bere



Erreklamazio Zerbitzuaren ebazpenen bitartez, eta halaber, eskumena duten agintariek, beren jurisdikziopeko gatazkaren bat ebazteko orduan, aitortu dute entitateek askatasuna dutela beren kreditua itzuliko dela ziurtatzearen egoki jotzen dituzten bermeak eskatu ahal izateko.

Nolanahi ere, kontsumitzaileentzako kreditu-kontratuak direnean, ez da ahaztu behar horiek babesten dituen legediaren edukia, eta alde horretatik, ez da baimentzen hartutako arriskuarekin proportziorik gordetzen ez duten bermeak eskatzea. Araudi horren beraren arabera ez da desproporziorik izango baldin eta finantzaketa-kontratua edo bermea bankuen araudi sektorialean ezarritakora egokitzen bada.

2.1.- Berme pertsonala. Fidantza edo abala

Bankuen jardunean asko erabili den berme-modalitate bat hirugarren goei bermeak eskatzearena da, eta hirugarren go hauek bankuari agintzen diote subsidiarioki edo solidarioki beteko dituztela zordun nagusiaren berezko obligazioak. Era horretan, hartzekodunaren eta fidatzailearen arteko kontratu bat gauzatzen da, zordun nagusiaren erantzukizun pertsonalari beste subjektu batena eransten zaiola.

Fidatzaileak bere gain hartutako erantzukizuna, beraz, nagusiarekiko osagarria eta, printzipioz, subsidiarioa da. Horrek esan nahi du ezin daitekeela fidantzarik egon baliozko obligaziorik gabe, fidatzailea ezin daitekeela behartu zordun nagusia baino areago, eta baldin obligazio nagusia, dela delakoagatik, desagertzen bada, fidatzailearen obligazioa ere desagertu egingo dela.

Fidantza hori fidatzaile batek edo batzuek (baterako fidantzaren kasuan) eskaini dezakete, eta hala bada, fidantza hori solidariotzat onarrarazi beharko zaie, ez zordun nagusiarekiko bakarrik, baizik eta baita beren artean ere, zatiketa-onura izenekoari berariaz uko eginez, zeinak aukera emango bailieke bermatutako zorraren guztizkoagatik erreklamazio bat ukatzeko, onura horrek haren zenbatekoa fidatzailekide adina zatitan banatzea ahalbidetuko liekeelako. Beraz, kontsumitzailea fidatzailekide solidario bihurtzen baldin bada, zorraren ordainketa osoa erreklamatu ahal izango zaio.

Fidantza kontratu formal bat da, baliozkoa izateko idatzia behar duena, baina halere ez da forma jakinik eskatzen, idatziz agertu behar duela dioen eskakizun horrez gain. Dena den, eraginkortasun betearazlea izan dezan, ordainketa-obligazioa bermatuta edukiko duen mailegu-eskrituran edo kreditu-polizan berretsita agertu beharko du.



Fidantza hori, gainera, bankuak esku hartu gabe ere eman daiteke, eta hala, kasu honetan, hirugarrengo baten aldeko kontratua izango da, eta bete dadila eska dezake hark, baldin eta bere onspena eman badu, berariaz edo tazituki, bere alde jarritako fidantza ezeztatu baino lehen.

Fidantzak berariazkoa izan behar du; ez da inoiz eratutzat joko. Horregatik, interpretazio murriztaile baten xede izan behar du, fidatzailearen mesederako. Hau, beste alde batetik, zordun bermatuak ezarritako obligazio horretara baino ez da menderatuko.

Printzipioz, kontsumitzaileak bere alde izango du zatiketa-onura delakoa, eta horren arabera, zorra gainerako fidatzaileekin batera zatitu ahal izango du, baldin eta bat baino gehiago badira, eta bestetik, baita eskusio-onura delakoa ere, fidatzailearen obligazioak duen mendeko izaeraren ondorio dena eta horren arabera fidatzaileak zordunak egindako erreklamazioari aurka egiteko aukera izango du baldin eta zordun nagusiak horri erantzuteko ondasunak dituela badaki. Zordunaren erreklamazioarekiko salbuespen-bide horretan, berme gisa jar daitezkeen zordunaren ondasunak adierazi beharko ditu, betiere Espainiako lurraldean badaude eta zorra kitatzeko nahikoak badira.

Eskusio-onura hori ez da gauzatuko fidatzaileak berariaz horri uko egin badio edo fidantza solidario izaerarekin itundu baldin bada, hau da, fidatzailea zordunarekin solidarioki behartu bazen. Ez da eskusio-onurarako biderik ere izango, baldin eta zordun nagusia kaudimen-gabezian badago edo gure herrialdean judizialki haren kontrako demandarik jartzerik ez badago. Kasu horietan, fidatzailearen jarrera zordun solidario batek banku baten aurrean duena bezalakoa izango da, nahiz eta barne mailan izango den; bankuak fidatzaileari ordaintzeko eskatzen badio, hark zordun nagusiaren kontra egiteko aukera izango du.

Fidatzaileak zordunari eska diezaioke fidantzapeko obligazio hori ordain dezala edo hartzekodunaren aurrean beste berme batekin ordezkatu dezala, eta bankuak onetsi egin beharko du hori, baldin eta fidatzaileari judizialki eskatzen bazaio ordain dezala, zordun nagusiak esku hartzen duenean, zordun nagusiak epe jakin batean fidantza horretan ordezkatzeko duela hitz eman eta horrelakorik egin ez badu, zorra bere epemugara edo hamar urteko epera iritsi delako eskatu badaiteke, eta bermatutako obligazio horrek iraupen-epe jakinik xedatuta ez badu.

Fidatzaileak ordaintzen badu, ordaindutako hori erreklamatu ahal izango dio zordun nagusiari, bi bide hauetako bat erabiliz: itzulketa-ekintza gauzatuz, eta hala izanez gero, zordunak ordaindu beharko du fidatzaileak zenbateko nagusi, interes, gastu, kalte eta galera kontzeptupean ordaindutakoa, edo bestela, hartzekodunak zordunaren aurka zituen



eskubideetan subrogatuz.

Fidatzaileak epemugara iritsi baino lehen ordaintzen baldin badu, ezingo dio zordun nagusiari ordain dezala eskatu une horretaraino iritsi arte.

Zordun nagusiari jakinarazi gabe fidatzaileak ordaindu egiten badu, ordainketa gauzatzeko une horretan hartzekodunaren aurrean eduki ditzakeen salbuespen guztiak aurka jar diezazkioke hari. Gainera, jakinarazi ez izanaren ondorioz, zordunak bigarren ordainketa bat gauzatzeari ekiten badio, hark banku hartzekodunari ordaindutakoa lehengoratu dezala bakarrik erreklamatu ahal izango dio fidatzaileak.

Fidantzaren iraupen-epealdi bat itundu ohi da, bermearen mugaegun gisa. Horrek ez du eragozten geroago erreklamazio bat jarri ahal izatea, data hori bermearen epetzat ezartzen baita, eta horrek esan nahi du data hori baino lehen sortutako obligazioen erantzule izango dela fidatzailea. Nolanahi ere, fidatzaileari obligazio hori bete dadila erreklamatzeko, ekintzaren preskripzio-epea 15 urtekoa izango da.

Bermea iraungitzeko kasu arrunta bermatutako obligazioaren iraungipena da, dela ordaindu delako edo dela beste arrazoi bategatik. Hartzekodunaren ekintzaren bategatik, fidatzaileak hartzekodunaren eskubideetan subrogatzerik ez duenean ere iraungi egingo da, baita fidatzailearen onespenerik gabe hartzekodunak zordun nagusiari emandako obligazio nagusiak luzapen bat izaten duenean ere.

2.2.- Hipoteka-bermea

Hartzekodunak kreditu-kontratu batean dituen obligazioak bete daitezela hainbat modutara bermatu daiteke, eta horietako bat ondasun higiezin baten gainean hipoteka bat eratzea da, entitateak ezarritako ehunekoan duen balioak hipoteka-erantzukizunak bete ditzan.

Ezerk ez du eragozten hipotekaren bidez bermatutako mailegu edo kredituaren zenbatekoarekin erosi nahi dena ez den beste ondasun baten gainean eratzea hipoteka-berme hori (izan ere, ohikoa da hipoteka-mailegua eskatu duenaren ondarearen barruan zeuden ondasunak hipotekatzea; eta halaber, mailegu-hartzailearentzat beharrezkoa den kasuetan, honek alde bakarreko hipoteka eratu eta gero, kreditu-entitate batek onartu egin dezake hipoteka hori). Horrenbestez, on-



dasunaren tasazio horretatik ondorioztatzen bada balio hori nahikoa dela, hipoteka hedatzen den gainerako gastu eta erantzukizunak gehituta, maileguaren zenbatekoa estaltzeko, mailegu-hartzailearen titulartasunpeko edozein ondasun hipotekatu ahal izango da, baita mailegu-hartzailearen aldeko bermea eratzen duen beste pertsona batena ere (esate baterako, semeak eskatu duen maileguaren ordainketa bermatzeko bere etxebizitzaren gainean hipoteka eratzen duen aita batek).

Hipoteka eratzea

Hipoteka kontratu formal bat da gure ordenamenduan, eta horrek esan nahi du hori gauzatzeko beharrezko formalidade batzuk betetzea eskatzen duela legeak. Horrenbestez, Notarioaren aurrean eskritura publiko batean gauzatu denean eta Jabetza Erregistroan inskribatzen denean bakarrik izango dugu hipoteka, eta era horretan, hipotekatutako ondasun higiezin hori hipotekaren bidez bermatutako mailegu-kontratutik eratorritako obligazioak ordaintzearen mende dagoela adierazten da.

Itxura batean hipoteka-mailegu bat kontratatzeak kreditu-kostu handiagoa dakarrela irudi dezakeen arren, kontuan izanik arestian aipatutako formalidadeak betetzea eskatzen duela legeak, hipoteka-mailegua eta horrek berekin duen segurtasun eta berankortasun-tasa txikiagoa dela eta, berme pertsonaleko maileguei aplikatzen zaizkien interes-tasak baino baxuagoak lor ditzakete mailegu-hartzaileek, baita epe luzeagoak ere mailegua itzultzeko.

Kreditu-entitateek, hipoteka-bermea eratzearekin batera, beste berme gehigarri batzuk eskatu ohi dituzte, eta gainera, libreki ere egin dezakete.

Ohikoa da izaera pertsonaleko berme batzuk eta hipoteka ezarriko zaion higiezinaren gaineko beste batzuk eskatzea. Bankuek komenigarri iruditzen zaizkien bermeak eskatu ditzakete kreditu-eragiketa bat onartzeko orduan, nahiz eta ezin daitezkeen izan hartzen den arriskuarekiko desproporzionatuak.

Hipotekatu beharreko higiezinaren gainean sute-aseguru bat kontratatzea behartzen du Legeak hipoteka-maileguaren ti-



tularra. Nolanahi ere, arrisku anitzetarako etxe-aseguru bat kontratatu dezala eskatu ohi diote bezeroari entitateek (suteaz gain beste arrisku batzuk estaliko dituen, hala nola lapurreta, kalteak, ura, hirugarrengeoi egindako kalteak eta abar).

Ohiko gauza da, halaber, bezeroei mailegu baten titularraren heriotza-arriskua estaliko duen bizi-aseguru bat kontratatu dezatela eskatzea, eta halakoetan aseguru-konpainiak kitatzen du une horretan ordaintzeko dagoen kapitala. Eragiketaren ezaugarri zehatzak kontuan izanik, entitateak beharrezko ikusten badu mailegu-hartzaileari edo mailegu-hartzaileei aseguru hori eskatzea, eragiketa onartzeko baldintza gisa eskatu ahal izango du, eta horrela adierazi izan du Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bere ebazpenen batean.

Halere, entitateak ezingo du inola ere, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bere ebazpenen batean ere azpimarratu duen moduan, aseguru horiek hipoteka-mailegua ematen duen talde bereko entitate batean kontratatzea behartu kontsumitzailea, eta ildo beretik agertu izan da, halaber, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzua.

Auto-sustatzaile baten hipoteka-mailegua baldin bada (bere etxebizitza eraikitzen duenarena), Eraikuntzaren Ordenazio Legean araututako hamar urterako aseguruak bermatzen ditu egitura-elementuei eragin diezaieketen eta eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean kolokan jar dezaketen narrio edo akatsengatik eraikinari egindako kalteak.

Aseguru hori ez da nahitaezkoa norberaren erabilerarako etxebizitza baten auto-sustatzaile indibidualentzat, baina halere, nahitaezkoa izango da aseguru hori frogatzea, pertsona baten heriotzak eragin ez duen eskualdaketa batean (esaterako, etxebizitza baten salmentan) eskuratzailer berriak hala eskatzen badu, eta aseguru hori kontratatu beharko da eskualdaketa egiten den unetik Legean ezarritako hamar urteko epea amaitzen den arte.



3.- HIPOTEKA-EREDU BERRIAK. Hipoteka kargagarria eta alderantzizko hipoteka.

Hipoteka-eredu asko daude, baina gu, eragiketa ekonomikoetan zabalkunderik handiena duten horietara eta kreditu-entitateen eskaintzetan agertu ohi diren eredu berrietara mugatuko gara.

Bermatutako obligazioak benetako existentzia eta zenbateko finkatua duen **hipoteka arruntaz edo “trafikokoa”** deiturikoaz gain, **“segurtasuneko” hipoteka** nabarmendu beharra dago, hots, obligazio jakin batzuen berme gisa eratu dena eta bere elementu guztiak erregistroan zehaztuta ez dituen.

Segurtasuneko hipoteken barruan, nabarmentzekoak dira **“gehienezko” hipotekak** (obligazioaren zenbatekoa zehaztuta ez dutenak, esate baterako, kontu korronteak bermatzen dituen hipoteka); **etorkizuneko obligazioen hipotekak** edo baldintza edo epemuga baten mende daudenak (prestazioaren existentzia edo eraginkortasunaren gainekoa da zehazgabetasuna); **balore-tituluak bermatzeko hipoteka**, endosagarriak edo eramailearentzakoak (adibidez, kanbio-hipoteka).

Maileguaren interes-tasaren arabera, **tasa finkoko** eta **tasa aldakorreko** hipoteka-maileguak bereiz ditzakegu. Lehenengo horietan, kontratuan ezarritako interes-tasak aldaezin irauten du kontratuaren iraupen osoan. Tasek gora edo behera egitearen interes-arriskua bai bankuak eta bai kontsumitzaile mailegu-hartzaileak hartzen dute beren gain, interesek behera egiten badute kontsumitzailea ezin daitekeelako baliatu kredituaren kostuan izango lukeen beherakadaz, eta aldiz, interesek gora egingo balute alderantzizko egoera izango genuke, eta finantza-entitatea izango litzateke kaltetua, ezingo liokeelako kontsumitzaileari ordainarazi interesen portzentajea izandako gorakada.

Hori dela eta, epeak laburragoak izan ohi dira interes finkoko maileguetan, interes-tasetan izaten diren aldaketak ahalik gehiena murriztearren. Nolanahi ere, interes finkoko maileguk lehen unetik bertatik maileguaren bizialdi osoan amortizazio-koten zenbateko zehatza jakiteko aukera ematen dute, eta horixe da horrelakoen abantaila nagusia.

Aldiz, interes aldakorreko mailegu bat denean, denbora-tarte jakin batero interes-tasa aldatuko zaien eragiketak dira, kontratuan ezarritako arauetara jarraiki. Interes-tasen aldaketak finantza-entitateek nola kontsumitzaileek jasaten dituztenez, interes finkoko maileguetan erabilitakoak baino amortizazio-epe luzeagoak onartzen dituzte bankuek.



Kontsumitzaileentzat horrelako maileguk abantaila nabarmenak dituzte, esate baterako, kuota txikiagoak ordaindu beharko dituzte, epe luzeagoa eduki baitezakete, eta gainera, merkatuak ezartzen dituen interes-murrizpenez baliatu ere ahal izango dira.

Gure ondorioetarako interesgarria da ikustea zertan datzan **HIPOTEKA KARGAGARRIA** deiturikoa, kontsumitzaileari kontsumo-premia batzuk hipoteka-mailegu baten bitartez finantzatzeko aukera ematen diona. Hipoteka-eredu honek dituen ageriko abantailak kontsumitzailearen neurritz gainera zorpetze-egoera bat konpon dezakete eta, horren ondorioz, bat-bateko interes-igoera baten aurrean edo mailegu-hartzailearen diru-sarreraren ahulezia ekonomiko handiago baten aurrean mailegu horri aurre egiteko ezintasunari erantzun.

Hala bada, mailegu-hartzailearen arazo ekonomiko larriak (langabezia, gaixotasuna, neurritz gainera zorpetze-egoerak...) aldi batez konpondu ditzakeen hipoteka-eredu bat da, horren funtzionamendua zorrak bateratzearen antzekoa delako, baina kostu txikiagoarekin. Baina ez da ahaztu behar hipoteka-maileguak direla eta horien gainean ia guztiz ezinezkoa dela horien kostua merkatuko duen subrogaziorik egitea (beste entitate batek nekez onartuko lituzke hasierako mailegu-emaileak itundutako baldintzak).

Hipoteka kargagarriaren funtzionamendua hauxe da: entitate mailegu-emaileak eta kontsumitzaileak erabakitzen dute hipotekaren eskrituran maileguaren epea luzatzeko aukera aurreikustea, luzapen horren kostuak merkatzeko. Horrenbestez, hipoteka-kredituaren eredu berri bat da berez, maileguan jarritako diru-zenbatekoa handitzeko nahiz txikitzeo aukera ematen duena.

Normalean, maileguaren hasieran ahalik eta diru-zenbatekorik handiena jartzen da etxebizitza erosteko, eta gero, kapitala amortizatzen joan ahala, diru-zenbateko horiek kontsumo gordineko gastuak finantzatzeko erabili ohi dira (automobila, altzariak eta abar). Geroko diru-erabilera horiek hasieran jarritakoa baino askoz ere interes gehiago ordaintzea dakarte, eta gainera, normalean, une jakin batetik aurrera, fondoak erabiltzeko aukera hori mugatu egiten da, une batetik aurrera maileguak guztiz amortizatuta egon beharko lukeelako. Horrenbestez, normalean, luzatu egiten da maileguaren epea, ondorio hori eragozteko. Horregatik, horren kostua zenbait hipoteka eskatzearen antzekoa da, kontsumitzaileak eskatzen duen kapital-gehikuntza bakoitzeko bat.

Orain berriki, halaber, **ALDERANTZIZKO HIPOTEKA** sartu da gure legerian.



Espanian etxebizitzaren balioa finantza-produktuen bitartez likido bihurtzeko aukeragatik arautu da alderantzizko hipoteka, eta horrek, Espainiak eta herrialde garatu gehienek dituzten arazo sozioekonomiko handienetako bat konpontzen lagundu dezake: bizitzako azken urteetan errenta-premien gehikuntza asetzea. Alderantzizko hipoteken merkatu bat garatzeak, hots, adineko pertsonak beren errentak handitzeko ondare higiezinaren parte bat erabiltzeko aukera izateak, etekin ekonomikoak eta sozialak sortzeko potentzial handia eskaintzen du. Etxebizitzan metatutako aurrezpena bizialdian baliatzeko aukera izateak erruz handituko luke bizi-ziklo osoan zehar errenta eta kontsumoaren profila arintzeko gaitasuna, eta horrek ondorio positiboa edukiko luke ongizatean.

Zer da alderantzizko hipoteka?

41/2007 Legearen 1. Xedapen Gehigarrian araututakoaren arabera, alderantzizko hipoteka hori eskatzailearen ohiko etxebizitza izango den ondasun higiezinaren gaineko hipoteka- edo kreditu-mailegua izango litzateke, betiere baldintza batzuen mende. Erabilitako kreditua gehi interesak, normalean, jabea hiltzen denean berreskuratzen ditu entitateak, zorra haren oinordekoek kitatuz edo kreditu-entitateak hipoteka-berme hori gauzatuz.

Alegia, alderantzizko hipoteka batean, funtsean, ohiko etxebizitza banku-entitateari ematen zaio, haren jabea hiltzean, eta horren truke errenta bat jasotzen da, etxebizitzaren balioa iristen den mugaraino. Eskatzailearen ohiko etxebizitza ez den beste edozein higiezinaren gainean ere eratu ahal izango dira alderantzizko hipotekak, baina kasu honetan ez zaie aplikatuko jarraian zehaztuko dugun erregimen orokorra.

Ez da salerosketa bat, mailegu baten antza gehiago du, eta hartzaileak eta haren ezkontideak hiltzen direnean amaitzen da; une horretan, edo, kontratuan horrela xedatuta baldin badago, onuradunetatik azkena hiltzean, oinordekoek mailegua kitatu ahal izango dute, xedatutako epearen barruan, eta hipoteka-hartzekodunari ordaindu beharko dizkiote mugaeguneratutako zor guztiak, beren interesekin, eta hartzekodunak ezin izango du kitapen horregatik inolako konpentsaziorik eskatu. Mailegua edo kreditua iraungitzen denean, eta hipoteka-



zordunaren oinordekoek mugaeguneratutako zorrak beren interesekin ez itzultzea erabakitzen badute, herentziaren ondasunak iristen diren mugaraino bakarrik berreskuratuko du hartzekodunak.

Zer baldintza bete behar dira alderantzizko hipoteka eskatu ahal izateko?

Alderantzizko hipoteka eskatu ahal izateko, beharrezkoa da:

1. eskatzaileak eta hark izenda ditzakeen onuradunak 65 urteko edo hortik gorako pertsonak izatea edo mendekotasun larria edo mendekotasun handia edukitzea;
2. zordunak maileguaren edo kredituaren zenbatekoa aldizkako edo aldi bateko diru-zenbatekoen bitartez jasotzea;
3. zorra hartzekodunak bakarrik eskatu ahal izatea eta berme hori mailegu-hartzailea hiltzean bakarrik gauzatu ahal izatea, edo, kontratuan horrela xedatzen baldin bada, onuradunetatik azkena hiltzen denean;
4. hipotekatutako etxebizitza tasatua eta kalteen aurka aseguratuta egotea.

Nork eman ditzake alderantzizko hipotekak?

Kreditu-entitateek eta Espainian eragiketak egiteko baimena duten aseguru-entitateek bakarrik eman ahal izango dituzte alderantzizko hipotekak, aseguru-entitateei beren araudi sektorialak ezartzen dizkien muga, betebeharrak edo baldintzen kontra joan gabe.

Alderantzizko hipotekak ematen dituzten entitateek aholkularitza-zerbitzu independenteak eskaini beharko dizkiete produktu honen eskatzaileei, eskatzaileen finantza-egoera eta produktu hau harpidetzak berarekin dakartzan arrisku ekonomikoak kontuan izanik. Horrelako aholkularitza-eginkizunak burutzeko Ekonomia eta Hazienda Ministerioak finkatzen dituen baldintza, modu eta betebeharrak betez gauzatu beharko da aholkularitza independente hori.

Nolanahi ere, beti gomendagarria da kontsumitzaileen elkartearen aholkularitza jasotzea, informazio inpartziala erdiesteko eta hipoteka-modalitate honi buruzko gomendioak jasotzeko.



Zer gertatzen da hipotekatutako ondasun hori nolana saltzen edo eskualdatzen bada?

Hipotekatutako ondasun hori hipoteka-zordunak bere borondatez eskualdatu baldin badu, bermatutako mailegu edo kredituaren mugaeguneratze aurreratua adieraz dezake hartzekodunak, non eta ez den bermea behar hainbat ordezkatzan.

Zein dira horrelako eragiketen zerga-abantailak?

Alderantzizko hipotekek zerga-abantaila batzuk dituzte, eta hala, Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien kuota gradualetik salbuetsita egongo dira halako hipotekak eratu, subrogatu, aldaketa bidez berritu eta ezereztatzeko eragiketak jasotzen dituzten eskritura publikoak. Hipotekak eratu, subrogatu, aldaketa bidez berritu eta ezereztatzeko eskrituren notarioen ordainsariak kalkulatzeko orduan, Notarioen arantzela onesten duen azaroaren 17ko 1426/1989 Errege Dekretuko 1 zenbakian aurreikusitako «Zenbatekorik gabeko agiriei» dagozkien arantzela aplikatuko dira. Eratu, subrogatu, aldaketa bidez berritu eta ezereztatzeko eskrituren erregistro-ordainsariak kalkulatzeko, berriz, Jabetza Erregistratzaileen arantzela onesten duen azaroaren 17ko 1427/1989 Errege Dekretuaren I. eranskineko «Inskripzioak» 2 zenbakiari dagozkion arantzela aplikatuko dira, amortizatzen dagoen kapitalaren zenbatekoa oinarritzat hartuta, ehuneko 90aren murrizpenarekin.

Nolana ere, zerga-pizgarri horiek guztiak egon arren, badirudi oraingoz bederen gure herrialdean tresna horrek ez duela gehiegizko arrakastarik eduki, dela kontsumitzaileen mesfidantzagatik edo dela aholkularitza inpartzial eta espezializaturik izan ez delako, edota entitateen eskaintza urriagatik, lehendik ere higiezin gainezka baitaude hipoteka tradizionalak ez ordaintzeagatik.



4.- KONTSUMORAKO KREDITUAREN SEKTOREAREN ARAUDIA ETA KONTSUMITZAILEAREN TUTORETZA:2008KO ZUZENTARAUA ETA 2011KO KONTSUMORAKO KREDITU-KONTRATUEN LEGEA.

4.1.- Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legearen kontzeptua eta aplikazioa.

Kontsumorako kreditu batean enpresaburu batek kreditu bat ematen dio kontsumitzaileari ondasun edo zerbitzu batzuk eskuratu ditzala finantzatzeko. Ez da beharrezkoa mailegu-kontratu bat izatea, baizik eta kreditu-irekiera baten bitartez edo ordainketa-geroratzeko baten bitartez egin daiteke, alegia, Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legeak finkatzen duen moduan, edozein finantzaketa-bitarteko baliokide erabiliz, betiere premia pertsonalak betetzeko balio baldin badu hark duen enpresa-jarduera edo lanbide-jardueratik kanpo.

Kontsumorako kreditu guztiak ez dira sartzen Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legearen aplikazio-eremuaren barruan; lege horrek kreditu-kontsumitzaileentzat babes berezi bat ezartzen du. Hain zuzen ere, kredituaren zenbatekoa muga hauen artean dagoenean bakarrik aplikatuko da: 200 euro (gutxieneko muga) eta 75.000 euro (gehieneko muga; nahiz kasu honetan, muga hori goitik gainditzen bada Legearen arau jakin batzuk aplikatu ahal izango zaizkion, batez ere eskaintza loteslearekin, publizitatearekin eta UTBaren kalkuluarekin loturik).

Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legearen aplikaziotik salbuetsita daude, halaber, ondorengo kasu hauek:

Kontsumitzaileak kreditua gehienez ere hiru hilabeteko epean itzuli behar duen kontratuak.

Interesik gabeko kreditua duten kontratuak.

Gehienez ere hilabete bateko epean itzuli beharrekoak diren zorpekoagatik banku-kredituak.

Enpresari batek bere langileei emandako kredituak, interesik gabe eta merkatukoa baino UTB txikiagoan.

Finantza-eragiketak edo inbertsioak egiteko kredituak.

Lehendik dagoen zor baten ordainketa geroratzeko kredituak.

Ondasun bat emanez eta erantzukizuna ondasun horretara mugatuz bermatutako kredituak.



4.2.- Kontsumorako kreditu-kontratua gauzatzea.

Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legeak ezartzen duenez, bere aplikazio-eremuaren barruan aurkitzen diren kontsumorako kredituak idatziz gauzatu behar dira (paperean edo euskarri iraunkor batean), eta horrela egiten ez bada, baliogabeak izango dira.

Kreditu-kontratuaren ale bat jasoko dute alde guztiek.

Kontratuak, nahitaez, ondorengo aipamenak jaso beharko ditu:

- ✓ Kreditu mota.
- ✓ Alderdi kontratugileen nortasuna eta sozietate-helbidea, baita, hala badagokio, kreditu-bitartekariaren nortasuna eta sozietate-helbidea ere.
- ✓ Kreditu-kontratuaren iraupena.
- ✓ Kredituaren zenbateko osoa eta horren erabilera-baldintzak.
- ✓ Ondasun edo zerbitzu baten ordainketa geroraturako kredituak direnean edo horrelakoei atxikitako kreditu-kontratuak direnean, produktua edo zerbitzua eta horren prezioa eskura.
- ✓ Zor-tasa eta zor horren aplikazio-baldintzak eta, horrelakorik edukiz gero, hasierako zor-tasa horri aplikagarri zaizkion indizeak edo erreferentzia-tasak, baita zor-tasaren epealdi, baldintza eta aldaketa-prozedurak ere eta, egoera desberdinetan zor-tasa desberdinak aplikatzen badira, aplikagarri diren tasa guztiei buruz gorago aipatutako informazio hori guztia.
- ✓ Urteko tasa baliokidea eta kontsumitzaileak zor duen zenbateko osoa, kreditu-kontratua sinatzeko unean kalkulatuak. Portzentaje hori kalkulatzeko erabilitako hipotesi guztiak aipatuko dira.
- ✓ Kontsumitzaileak egin behar dituen ordainketen zenbatekoa, kopurua eta maiztasuna eta, hala egokituz gero, zor-tasa desberdinen mende dauden eta gauzatzeko dauden saldo desberdinei ordainketa horiek zein ordenatan atxiki behar zaizkien, itzulketen ondorioei begira.
- ✓ Iraupen finkoko kreditu-kontratu baten kapitala amortizatuz gero, kontsumitzaileak dohainik kontu-laburpen bat jasotzeko duen eskubidea, amortizazio-taula gisa, aurrez hala eskatuta, eta kreditu-kontratuaren iraupen osoko edozein unetan.



- ✓ Amortizazio-taulak adieraziko du zor diren ordainketak, baita zenbateko horiek ordaintzeko epeak eta baldintzak ere. Taula horrek aldizkako itzulketa bakoitzaren xehakapen bat jaso beharko du eta bertan adierazita egongo dira kapital-amortizazioa, zor tasan oinarrituta kalkulaturako interesak eta, hala egokituz gero, kostu gehigarriak.
- ✓ Interes-tasa finkoa ez bada edo kostu gehigarriak kreditu-kontratuaren arabera alda badaitezke, amortizazio-taulan argi eta zehatz agertuko da taulako datu horiek baliagarriak izango direla harik eta kreditu-kontratuaren arabera zor-tasa edo kostu gehigarriak aldatzen diren arte.
- ✓ Kapital-amortizaziorik gabe gainkarguak eta interesak ordaindu behar otediren, zor diren interesak ordaintzeko epe eta baldintzen zerrenda eta horiei atxikitako gastu errepikari eta ez-errepikariak.
- ✓ Bidezkoa denean, ordainketa-eragiketak eta kreditu-erabilerak aldi berean erregistratzen dituen edo dituzten kontuen mantentze-gastuak, kontu hori irekitzea aukerakoa izan ezean, ordainketa-eragiketak nola kreditu-erabilerak egitea ahalbidetzen duen ordainketa-baliabideren bat erabiltzearekin loturiko gastuak, eta kreditu-kontratutik ondorioztatzen diren gainerako gastuak eta kostu horiek alda daitezkeen baldintzak.
- ✓ Kreditu-kontratua gauzatzen den unean aplikagarri den berandutzagatiko interes-tasa eta hori egokitzeko prozedurak eta, hala egokitzen denean, ez ordaintzeagatiko gastuak.
- ✓ Ez ordaintzeak dituen ondorioak.
- ✓ Bidezkoa denean, notariotza-gastuak ordaindu daitezela ezartzen duen adierazpen bat.
- ✓ Kreditua eman dadila baldintzatuko duten bermeak eta aseguruak, horien kontratazioa halakoen legeria berezira egokitzen denean.
- ✓ Uko egiteko eskubidea izatea edo ez izatea eta hori gauzatzeko epea eta gainerako baldintzak, erabilitako kapitala eta interesak 28. Artikuluko, 2. Apartatuko b letrarekin bat etorritik ordaintzeko duen obligazioari buruzko informazioa ere barne, eta eguneko interesaren zenbatekoa.
- ✓ 29. Artikulutik ondorioztatzen diren eskubideei buruzko informazioa, baita eskubide horiek gauzatzeko baldintzak ere.
- ✓ Aldez aurretik itzultzeko eskubidea, prozedura aplikagarria, eta, hala egokituz gero, mailegu-emaileak konpentsazio bat jasotzeko duen eskubideari buruzko informazioa eta konpentsazio hori erabakitzeari buruzko informazioa. Aldez aurretik itzultzen baldin bada, eta kreditu-kontratu horrek aseguru-kontratu bat atxikita baldin badu, mailegu-hartzaileak kontsumitu gabeko prima hori itzultzeko duen eskubidea, polizak ezarritakoaren arabera.



- ✓ Kreditu-kontratuari amaiera emateko eskubidea gauzatzeko bete beharreko prozedura.
- ✓ Kontsumitzailearentzat erreklamazioak eta errekurtsioak jartzeko judizioz kanpoko prozedurak dauden ala ez dauden, eta baldin badaude, kontsumitzaileak horiek eskuratzeko duen modua.
- ✓ Kontratuko gainerako baldintzak, bidezkoa izanez gero.
- ✓ Hala egokituz gero, gainbegiratzeko agintari eskudunaren izena eta helbidea.

Eduki horiek guztiak kontratuan egon arren zehaztasunik ez baldin badute, egokitu egingo dira zehazgabetasun horren ondorioz kontsumitzaileak jasandako kaltea kontuan izanik.

4.3.- UTB (Urteko Tasa Baliokidea)

UTB, berez, kredituaren kostu osoa da, emandako kredituaren zenbatekoaren gaineko urteko portzentaje baten bidez adierazia. Kredituaren kostu osoaren barruan sartzen dira interesak eta krediturako kontsumitzaileak ordaindu behar dituen gainerako gastu eta karga guztiak, titularraren heriotza, minusbaliotasun, gaixotasun edo langabeziagatiko kredituaren amortizazio-aseguruak ere barne, baldin eta enpresariak eskatzen baditu hori emateko. Kontsumorako Kreditu Legearen Eranskin batean argitara emandako formula matematiko baten arabera kalkulatu da UTB.

Ezinbestean, merkataritza-lokaletan ipinitako publizitate, iragarki eta eskaintzak, baldin eta horrelakoak gauzatzeko kreditu edo bitartekaritza bat edo kreditu-mugarekin loturiko beste edozein zenbateko eskaintzen bada, urteko tasa baliokidea ere adierazi beharko dute, adibide adierazgarri baten bitartez.

4.4.- Kontsumitzailearen eskubideak

Atxikitako kontratuetan Legeak kontsumitzaileari esleitzen dizkion defentsa-eskubide eta uko egiteko eskubide onuragarriez gain, azpimarratu beharra dago kreditua alde aurretik mugaeguneratzeko aukera dagoela, eta hori, erabat edo zabi batean gauzatu dezake, eta kreditu-emaileak ezarritako komisioa bakarrik ordaintzera behartuta dago; komisio hori ezin daiteke %1 edo %0,5 baino handiagoa izan, kreditu hori amaitzeko datarako urtebete baino gehiago ala gutxiago geratzen den kontuan izanik.



Kontsumitzaileak eskubidea izango du, kontratua gauzatu baino lehen, kreditu-eskaintza lotesle bat eskuratzeko, betiere horrelakorik eskatzen badu.

Eskaintza lotesle honek kredituaren baldintza guztiak jaso behar ditu eta entitateak, ematen duenetik, gutxienez hamalau eguneko epe batez eutsi beharko dio horri.

Halaber, aplikatutako benetako urteko interes-tasa eta eduki ditzakeen gastuak jakinarazi beharko zaizkio kontsumitzaileari, baita horiek izan ditzaketan aldakuntzak ere. Kontsumorako Kreditu Kontratuen Legeak, halaber, nahitaezko muga bat ezartzen du kontu korrontean zorpeko gisa ematen diren kredituetan kobratzen diren interesetarako, eta hain zuzen ere, ezin daitezke diruaren legezko interesa baino 2,5 aldiz handiagoak izan.

4.5.- Atxikitako kontratuak

Ondasun eta zerbitzuak finantzatzeko eta eskuratzeko xedez horiekin hertsiki loturik dauden kontratuak izango dira atxikitako kontratuak, Legeak erabilitako hitzetan, baldin eta “ikuspuntu objektibo batetik bi kontratu horiek merkataritza-unitate bat eratzen badute”.

Betebehar jakin batzuk betetzen direnean, kontsumitzaileak ondasun edo zerbitzuen hornitzailearen aurrean dituen eskubide guztiak gauzatu ahal izango ditu finantza-entitatearen aurka.

Betebehar horiek modu metagarrian bete behar dira eta ondorengoak dira:

- 1) Kontratuaren xede diren ondasun edo zerbitzuak erabat edo zati batean ez ematea, edo kontratuan itundutakoaren araberakoak ez izatea.
- 2) Kontsumitzaileak auzitegietan edo auzitegietatik kanpora, zuzenbideak onartutako edozein baliabide erabiliz, hornitzailearen aurkako erreklamazioa jarri eta zuzenbidez dagokion ordaina ez jasotzea.

Kasu honetan, kontsumitzaileak hornitzailearen aurrean dituen eskubide berberak gauzatu ahal izango ditu kreditu-emailearen aurrean.



4.6.- Kontsumorako kredituaren Zuzentaraan jasotako araudia

2008ko apirilaren 23ko 2008/48/CE Zuzentarauak erregimen berri bat ezarri zuen kontsumorako kredituarentzat, Estatu kideek kontsumorako kredituaren alorrean lege, araudi eta administrazio mailan dituzten xedapenak hurbilduz.

Aldez aurretik, hala eta guztiz ere, esan beharra dago kreditu-kontsumitzailea babesteko genuen maila nahikoa handia zela eta, horrenbestez, Zuzentarau hori ez zen izan Kontsumorako Kredituaren gaineko martxoaren 23ko 7/1995 Legea (2011ko irailaren 25a arte indarrean egon zena) baino lehen genuen lege-erregimenaren erabateko eta guztizko eraldaketa.

Azpimarratzekoa da Zuzentarau horrek zenbatetan errepikatzen duen nolako garrantzia duen kontsumitzaileari informazio egokia emateak, benetako bezeroa izan nahiz bezero potentziala izan, kontratatu duen edo kontratatzea doan produktu horren kostuen inguruan. Alde horretatik, Zuzentarauak kontratua gauzatu aurreko informazioa aipatzen du, eta halaber, bankuaren eta kontsumitzailearen arteko harreman juridikoan eskaini beharrekoa, kontratua gauzatzeko neurriei buruzkoa, eta era berean aipatzen du UTBaren formula, datu-baseetan sarbidea izatea edota mailegu-emaileen edo kreditu-bitartekarien kontzeptua.

Izan ere, kontratua egin aurretik informazio egokia eskaini beharra eta publizitate-edukiak egoki txertatzea azpimarratzen zen.

Zuzentarau horren xedea zen, halaber, kreditua eskaintzen zuen kreditu-entitateak kontsumitzailearen kaudimenari buruzko ebaluaketa egin zezala bermatzea, horri buruz beharrezko informazioa bilduz, eta kontsumitzaileari berehala jakinarazi beharko lioke haren kreditu-eskaera ukatu izana datu pertsonaletan oinarritutako kontsulta baten emaitza ote zen, eta horrek ahalbidetuko du, Espainiako legeriaren kasuan, balioespen automatizazioei aurka egiteko eskubidea erabiltzea. Era horretan, kontsumitzaileak datuen zuzentasuna egiaztatu dezake eta, nolana ere, kreditua erdiesteko berme gehiago eskaini.

Zuzentarau horren arabera, eragiketa horrek kontsumitzailearentzat duen kostua erabakitzeko beharrezkoak diren aipamen guztiak jaso beharko lituzke kreditu-kontratuak. Funtsezkoa gertatzen da Zuzentarauaren aldetik Estatu kideei inposatzea mailegu-emaileek edo finantza-bitartekariak kontsumitzailea ohartaraz dezatelaz arrisku eduki ditzakeen haien




ondarearentzat kreditu bat ituntzeak, hau da, ez ordaintzearen arriskuak. Jakina, informazio horrekin batera eragiketaren ezaugarriak ezagutzeko kontzeptu nagusiak agertu behar dute, eta kontsumitzailearen interesei erantzuten dien ala ez.

Zuzentarau horrek ezartzen zuen, halaber, kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea gauzatu ahal izango zuela kontratatu ondorengo 14 egun naturalen barruan, horretarako bidezko arrazoirik alegatu beharrik gabe. Finantzaketa-eragiketa bat atxikita duen zerbitzu edo ondasunen hornidura-kontratu bat bazterten duenean, kontsumitzaileak bigarren hori ere bazterten duela ulertuko da. Kontsumitzaileari aitortzen zitzaion, halaber, uneoro eskubidea izango zuela kreditu-kontratutik ondorioztatutako obligazioak erabat edo zati batean likidatzeko.

Azkenik Zuzentarau horretan nabarmendu behar dugu kreditua ematen duen entitatea bitartekariez baliatzen baldin bada bere kredituak kokatzeko, eta kontsumitzaileak horiei beren zerbitzuengatik ordaindu behar badie, zenbateko hori jaso beharko duela entitate hartzekodunak, eragiketa horren UTB kalkulatzeko orduan.

Beraz, Kontsumorako Kredituaren gaineko martxoaren 23ko 7/1995 Legea indarrean zegoela, Zuzentarau hori onetsi ondoren, xedapen berri guztiak Kontsumorako Kreditu Kontratuaren ekainaren 24ko 16/2011 Lege berrian jaso ziren, erabateko harmonizaziorako joera hori errespetatuz eta kontsumorako kredituaren alorrean babesik handiena eskaintzen zuten gure barne-zuzenbideko aurreikuspenei bere horretan eutsiz.





III. FAMILIEN NEURRIZ GAINEKO ZORPETZEAK IZAN DITZAKEEN KONPONBIDEAK



III. FAMILIEN NEURRIZ GAINEKO ZORPETZEAK IZAN DITZAKEEN KONPONBIDEAK

1.- KREDITUAREN EDO MAILEGUAREN BALDINTZAK ALDATZEA (hipoteka birnegoziatzea)



- A.- Hipotekaren subrogazioa
- B.- Hipoteka-mailegua aldatzen den kasuak
- C.- Zein beste neurri hartu dira zailtasunak dituen mailegu-hartzaileari laguntzeko?

2.- ZORRAK BATERATZEA



- A.- Aplikatu beharreko araudia.
- B.- Baterakuntzaren ohiko eskema
- C.- Eragiketa hauei buruzko publizitateak bete behar dituen baldintzak
- D.- Kontratua gauzatu aurretik eragiketaren kostuari eta baldintzei buruz kontsumitzaileari eman beharreko informazioa
- E.- Kredituaren baldintzak
- F.- Kredituetako bitartekaritza-jarduera



1.- KREDITUAREN EDO MAILEGUAREN BALDINTZAK ALDATZEA (HIPOTEKA BIRNEGOZIATZEA)

A.- Hipotekaren subrogazioa

Hartzekodunaren subrogazioa, izaera orokorrez, Kode Zibilaren 1.211 artikuluan araututa dago, eta izaera bereziz guri dagokion eragiketa honetarako, hipoteka-maileguak subrogatu eta aldatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legean, gerora Hipoteka Legea aldatu duen 41/2007 Legeak aldatua.

Izan ere, Lege honen azken aldaketek bi helburu izan dituzte funtsean: komisiokoak kobratu daitezela mugatzea eta subrogazioaren kostua murriztea, eta Legearen barruan sartuta dauden aldaketarako kasuak zabaltzea.

- Nola funtzionatzen du subrogazioak?

Laburbilduz, subrogazioak honela funtzionatzen du: hipoteka-zorduna kreditu-entitate batekin harremanetan jartzen da, eta hark eskaintza lotesle bat luzatzen dio, bere maileguarentzat eskaintzen dizkion baldintzekin. Zordunak eskaintza lotesle hori onartzen baldin badu, entitate hartzekodunari jakinaraziko zaio, eta hark zorraren zenbatekoaren ziurtagiria igorri beharko du, baina eskubidea du subrogazioa saihesteko edo “enerbatzeko”, baldin eta maileguaren baldintzak berdintzen edo hobetzen baditu.

- Zein da 2/1994 Legearen aplikazio-eremua?

Hipoteka-maileguak subrogatu eta aldatzeari buruzko Legea bankuek, aurrezki-kutxek, kreditu-kooperatibek eta krediturako finantza-establezimenduek emandako maileguei aplikatzen zaie bakar-bakarrik, eta era bereko entitateak bakarrik subrogatu daitezke.

Hipoteka-maileguen eragiketei aplikatuko zaie Lege hori, horiek gauzatu ziren data kontuan izan gabe, eta kontratuan aldeztu aurretik amortizatze aukera ez aurreikusitako arren ere egin ahal izango da subrogazioa.



- Zer betebeharrak eskatzen ditu Legeak finantza-entitate berri bat subrogatzeko?

Legearen 2. artikuluan ezarrita daude:

- 1) Subrogazioak jatorrizko entitate hartzekoduneari zordunak dituen eta higiezin horren bidez bermatuta dauden kreditu edo mailegu guztiak bilduko ditu. Ez da beharrezkoa entitate hartzekodunak onespina ematea, baldin eta subrogazio hori eskritura publiko bidez egiten bada. Horrenbestez, jatorriz hipoteka-mailegua eman zuen entitateak ez du agertu beharrik izango subrogazio-eskritura gauzatzeko ekitaldian.
- 2) Subrogatu nahi duen entitateak eskaintza lotesle bat aurkeztu beharko dio mailegu-hartzaileari, eta halaber, entitate hartzekodunari ere jakinarazi beharko dio.
- 3) Entitate subrogatzaileak notario bidez jakinarazi behar dio finantza-entitateari maileguan subrogatzeko asmoa, eta zorraren zenbatekoaren gaineko ziurtagiria igor dezala eskatuko dio. Nolanahi ere, jatorrizko entitateak ziurtagiri hori igortzen ez badu, subrogatu nahi duen entitateak bere erantzukizunpean kalkulatu ahal izango du diru-zenbateko hori.

- Beste entitate baten subrogazio-eskaintzaren aurrean, zer egin dezake bere garaian mailegu bat eman zuen entitateak?

Jatorrizko entitatea subrogazio hori eragozten saia daiteke, eta horri legez “enerbatu” esaten zaio. Horretarako 15 lanegun izango ditu saldoa eta horren zenbatekoa jakinarazten zaionetik, eta ahaldu batekin agertu beharko du subrogazioaren jakinarazpena igorri zuen Notarioaren aurrera. Jatorrizko entitateak berrikusitako eskaintzan jasotzen den edukia partikularrarentzat hura bezain onuragarria edo onuragarriagoa izan behar du. Izan ere, auzitegiek berriaz adierazi dute, horrez gain, jatorrizko entitateak ezin duela eskatu bere gain har dezatela inolako kostu gehigarririk, esate baterako, irekiera-komisio berri bat ordaintzea.

Subrogazioa enerbatzea, nolanahi ere, jatorrizko hartzekodunaren eskubide bat da, eta hamar lanegun ditu kontsumitzaileari jakinarazteko zein den eskaintza lotesle berria, lehendik dagoen maileguarentzat proposatutako aldaketak ere jasoz.



Jatorrizko entitateak subrogazioa enberbatzen ez bada, maileguan subrogatu den entitateak ordainduko du, eta halaber, bere erantzukizunpean kalkulatu ahal izango du zorraren zenbatekoa, baldin eta jatorrizko entitateak zorrari buruzko ziurtagiririk igortzen ez bada. Ziurtagiri hori emateko orduan jatorrizko entitatea atzeratzea banku-jardunbide desegokia izango litzateke, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuaren arabera.

Gero, Notarioak subrogazio-ekritura jakinaraziko dio hartzekodun zaharrari, eta hark akatsa alegatu ahal izango du hurrengo 8 egunen epean.



- Zer komisio ordaintzera behartuta egon daiteke kontsumitzailea?

Subrogazio-eragiketarik ondorioztatzen diren komisioei dagokienez, hori gauzatu zen datari erreparatu behar zaio, hipoteka-maileguak subrogatu eta aldatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legearen testuari eragin dioten ondorengo ondoko berritzeetan aldatu egin baita gai hori.

Komisioak ondorengoak dira:

1) Aurretiaz mugaeguneratzeagatik komisioa. 2003ko apirilaren 27a baino lehen itundutako interes aldakorreko hipoteka-maileguak baldin bada, kontzeptu horregatik kobratu beharreko gehienekoa amortizatzen den diruzenbatekoaren (ez zor osoaren) % 1 da. Kontratu hori geroago gauzatu baldin bada, gehieneko ehunekoa 0,5 da. Gainera, 41/2007 Legeak ekarritako Hipoteka Legearen erreforma indarrean sartu denetik (2007ko abenduaren 9a), ezingo da komisio hori kobratu mailegu-hartzailea pertsona fisiko bat den etxebizitza-maileguak baldin bada, ezta neurri murrizteko enpresen Sozietateen gainera Zergaren erregimenaren arabera zerga ordaintzen duen pertsona juridikoa denean ere.

2) Uko egiteagatik komisioa. 2007ko Hipoteka Legearen erreformaren berritasunetako bat da, eta subrogaziozko nahiz ez-subrogaziozko kitapenei aplikatu dakieke, Legeak gehieneko bat ezartzen duela: % 0,5, baldin eta aurretiazko amortizazioa kreditu edo maileguaren bizitzako lehen bost urteetan gertatzen bada; % 0,25, baldin eta aurretiazko amortizazioa kreditu edo maileguaren bizitzako lehen bost urteen ondoren gertatzen bada.



3) Interes-tasaren arriskuagatik komisioa. Hau ere 2007ko Hipoteka Legearen erreformak ekarria, finantza-entitatearentzat nolabaiteko konpentsazio bat da amaitzera doan irabazpideagatik edo lortzeari utzi zaion irabaziagatik. Ezingo da kobratu baldin eta hamabi hilabeteko edo hortik beherako interes-tasaren berrikuspen-aldi baten barruan gertatzen bada kitapen hori. Eta, ezta ere, kitapen horrek entitatearen aldeko kapital-irabazi bat sortzen badu (kapital-irabazitzat jotzen da gauzatzeko dagoen kapitalaren eta mailegu edo kredituaren merkatuko balioaren arteko alde positiboa).

Oso grafikoa da praktikan gerta daitezkeen kasu desberdinei buruzko taula iruzkindu gisa Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuak 2007. urteari dagokion Memorian ematen duen azalpena, hipoteka-maileguaren gauzatzeko dataren eta horretarako finkatutako interes-tasaren –finkoaren edo aldakorraren– arabera (ikus <http://www.bde.es/f/webbde/Secciones/Publicaciones/PublicacionesAnuales/MemoriaServicioReclamaciones/07/Fic/2007msr.pdf>).

B.- Hipoteka-mailegua aldatzen den kasuak.

Bai subrogazio kasuei eta bai hipoteka-maileguan itundutako baldintzak aldatzen diren kasuei aplikatzen zaie Legea. Era horretan, subrogazio-eskrituraren edukiak interes-tasa arruntaren edo berandutzagatikokoaren baldintzen aldaketa jaso dezake, edo bestela, mailegu-epearen aldaketa. Baina gainera, gertatu ohi da subrogazio-eskaintza horrek behartu egiten duela jatorrizko hartzekoduna, baldin eta subrogazioa enerbatu nahi badu, kreditu-baldintza hobeak eskaintzera. Ikuspuntu horretatik, hipoteka-maileguaren aldaketa-eskriturak honakoak jaso ditzake:

- Kapitalaren zabalkuntza edo murrizpena.
- Epearen aldaketa.
- Hasieran itundutako edo indarrean dagoen interes-tasaren baldintzen aldaketa.
- Amortizazioaren metodo edo sistema eta maileguaren beste edozein finantza-baldintza.
- Berme pertsonalen prestazioa edo aldaketa.

- Zein dira maileguaren epea zabaltzeko arau bereziak?

Ekonomia eta Justizia Ministerioaren eta Bankaren Espainiako Elkarteko, Espainiako Hipoteka Elkarteko, Aurrezki Kutxen



Espainiako Konfederazioko, Kreditu Kooperatiben Batasun Nazionaleko, Kredituen Finantza Establezimenduen Espainiako Elkarteko, Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoko eta Espainiako Ondasun Higiezinako eta Espainiako Notarioen Kontseilu Nagusiko ordezkarien artean izenpetutako hitzarmen baten arabera, maileguaren epea 2010eko apirilaren 22 arte dohainik hedatzea ahalbidetu zen. Hedapen hori entitate hartzekodunaren eta mailegu-hartzailearen arteko itun bati esker gertatu zen. Doako aldaketa horretaz baliatu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1) Aldaketa horrek epearen hedapenari buruzkoa bakarrik izan behar du.
- 2) Mailegu-hartzaileak pertsona fisikoa izan behar du.
- 3) Ohiko etxebizitza bat eraikitzeko, birgaitzeko edo eskuratzeko xedearekin gauzatu behar da mailegua (ez zaie aplikatuko, horrenbestez, hipoteka-kredituei).
- 4) Hipoteka ohiko etxebizitzaren gainean eratu behar da.
- 5) Mailegu hori kreditu-entitate batek eman behar du.

Epe hori igaro ondoren, maileguaren epea ere hedatu ahal izango da, baina entitateek epea hedatzeagatiko komisio bat jaso ahal izango dute, eta horren gehieneko muga amortizatze dagoen kapitalaren % 0'1 dela finkatu zen legez.

2/1994 Legean bertan izaera orokorrez aurreikusitako Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ordainketaren hedapena ere salbuetsita dago.

Gainera, 2/1994 Legeak eragindako erreformek ere modu nabarmenean murriztu dituzte notariotzako eta erregistroko gastuak.

C.- Zailtasunak dituen mailegu-hartzaileari laguntzeko xedez zer beste neurri hartu dira?

Otsailaren 6ko 97/2009 Errege Dekretuak aldatutako azaroaren 28ko 1975/2008 Errege Dekretuak aukera ematen du hileko kuotaren ordainketa gehienez ere %50ean murrizteko, hilean 500 euroko mugaraino (eragiketa bakoitzeko



zenbatzen da, ez titular bakoitzeko), 2009/03/01 eta 11/02/28 artean. Nolanahi ere, ordainketa hori geroratu egingo da eta 2012/03/01etik aurrera sortutako kuotetan hainbanatuko da, gehienez ere 15 urtez.

Neurri honetaz baliatzeko beharrezkoa da ondorengo betebeharrak betetzea:

- 1) 2008/09/01 baino lehenagoko mailegua izatea.
- 2) Maileguaren zenbatekoa 170.000 eurotik beherakoa izatea.
- 3) Horren helburua ohiko etxebizitza eskuratzea izatea.

Eta funtsean, ez da ahaztu behar, aldaketa orok bezala, mailegu-hartzaile edo kontsumitzailearen eta entitate mailegu-emailearen arteko hitzarmenaren emaitza izan behar duela.



2.- ZORRAK BATERATZEA

Azkeneko urte hauetan, kontsumoa eta, horren ondorioz, kontsumitzailearen zorpetze maila ere neurritz gain handitu izanak egoera ekonomiko orokorrak okerrera egitea ekarri du, eta kontsumitzailea sarritan zorrak bateratzeko eragiketetara jo beharrean aurkitu da, metatutako zorpetzearen zama –denboraldi batez bederen– arintzen ahalegintzeko.

Horrelako finantza-eragiketek duten gero eta eskaera handiagoa kontuan izanik, kontsumitzaileari eskaini behar zaion informazioari eta jarduera ekonomiko honen gaineko araudiaren egungo egoerari tratamendu orokor bat ematera behartuta gaude

Zorrak bateratzearena orain arte kreditu-entitate tradizionalak eskaini izan duten negozio bat da. Gaur egun, entitate tradizionaletan krediturik topatzen ez duten neurritz gain zorpetutako kontsumitzaileak ugaritu egin direnez, horrelako eragiketak egitera dedikatzen diren entitate ez-finantzarioen kopurua ere nabarmen ugaritu da.

A.- Araudi aplikagarria

Gaur egun zorrak bateratzea kreditu-entitateek nahiz beste era bateko entitate ez-finantzarioek eskain dezaketen zerbitzu bat denez gero, arau bat ezarri da, hots, martxoaren 31ko 2/2009 Legea, kontsumitzaileekin hipoteka-mailegu nahiz -kredituak eta mailegu- nahiz kreditu-kontratu horiek gauzatzeko bitartekaritza-zerbitzuak nola kontratatu behar diren arautzen duena, eta horren xedea, hain zuzen ere, kreditu arlokoak ez diren eta, beraz, kontsumitzailearentzat informazio-berme batzuk finkatzen dituen banku-sektoreko araudiaren mende ez dauden entitateekin horrelako kontratuak egiten direnean produktu hau kreditu-entitate batekin kontratatzen duenean kontsumitzaileak duen informazio maila berbera edukitzea da.

A.1.- Kreditu-entitateak

Hipoteka-mailegua kreditu-entitate batek ematen duenean edo, hala egokituz gero, kreditu-entitate batek bere bezeroaren hipoteka-maileguaren aterkipean hark dituen zor desberdinak biltzen dituenean, guztiz aplikagarria izango da banku-sektoreko araudia. Alde horretatik, funtsean Banco de Españaren 8/1990 Zirkularrari gehitutako 1994ko maiatzaren 5eko



Ministro Agindua ezartzen ditu kreditu-eragiketaren kostu, aldaketa eta gainerako baldintzei buruz kontsumitzaileari eskaini beharreko informazioaren inguruko baldintzak.

A.2.- Kreditu-entitate ez diren enpresak

Kontsumitzaileekin hipoteka-maileguak nahiz -kredituak eta mailegu- nahiz kreditu-kontratu horiek gauzatzeko bitartekaritza-zerbitzuak nola kontratatu behar diren arautzen duen martxoaren 31ko 2/2009 Legea argitaratu zen arte, entitate horiek lege-hutsune baten barruan jokatzeko ari ziren. Kontsumitzaileen kasuan, aplikatzekoak ziren haien tutoretza-arauak, baina babes maila ezin zitekeen konparatu produktu beraren kontsumitzaileek zutenarekin, beste kontratukidea kreditu-entitate bat zenean.

Hori dela eta, gainera, Lege hori ez zaie aplikagarri kreditu-entitateei, horiek beren araudi propioa baitute, kontsumitzaile eta erabiltzaileen tutoretzari buruzko arauak ere finantza-zerbitzuei izaera orokorreaz aplikatzeaz gain.

Lege horren edukiaren ikuspegitik, hipoteka-mailegu edo -kredituak ematen direnean nahiz mailegu edo kredituak emateko xedez bitartekaritza edo aholkularitza-lanak egiten direnean aplikatuko da Legea.

A.3.- Partikularrek emandako maileguen bitartez zorrak bateratzeak dituen arazoak.

Sarritan zorrak bateratzeko horrelako zerbitzuak eskatzera kreditukoak ez diren entitateetara jotzen duten pertsonak kreditu-entitateek eskatutako kaudimen-marjina arruntetatik kanpo aurkitzen direnez gero, kreditu-bitartekariak zailtasunak izan ditzakete batzuetan finantza-entitate batean hori erdiesteko. Horrexegatik, asko ugaritu dira partikular batek kontsumitzaileari dirua mailegatu izan dion eta haren hipoteka-hartzekodun bihurtu den kasuak, kreditu-bitartekari baten bitartez partikular hori zordunarekin harremanetan jarri ondoren.

Jarduera honek, kontrol fiskalik ez edukitzeaz gain, arazo ugari eragin ditzake, esate baterako partikularrekin harremanetan jartzea eta hark hipoteka-bermea kitzatzea ordainduz gero, edo etxebizitza galdu ahal izatea enkanterako guztiz baxua den tasa bat finkatu delako, horixe baitzen partikular mailegu-emaitza xarma nagusietako bat.



Nolanahi ere, inbertsiogile mailegu-emaiarentzat ere arriskuak edo arazoak sor ditzakeen eragiketa ere bada, hark ez duelako etxebizitza ezagutzen, eskaintzen zaion tasazioaz fidatu behar duelako eta gauzatzen zaila izan daitekeen ondasun batekin topa daitekeelako azkenean. Beste alde batetik, jarduera hau inbertsio-jarduera balitz bezala ezagutarazten denean, horrelako eragiketetan inbertitzen duen kontsumitzaileak ez du ahaztu behar sarritan berak kobratu egiten duela beste inbertsiogile batek ere negozioan parte hartzen duelako, baina egoera hori goitik behera aldatu daiteke edozein unetan, eta kasu horretan, zordunak ordaintzerik ez izatea probabilitate handikoa denez gero, gauzatu behar izango duen baina gaur egun erraz likidatzekoa ez den berme baten aurrean aurkituko da.

B.- Baterakuntzaren ohiko eskema

Normalean, horrelako produktuak eskatzen dituen kontsumitzailea neurritz gain zorpetutako kontsumitzailea edo egoera horretatik hurbil dagoen bat izan ohi da, denboraldi batez bederen bere gain hartutako zorren zenbatekoari aurre egin ezinik aurkitzen dena.

Era horretan, hipoteka-mailegu berri baten edo lehendik dagoen baten esparruan, beste kreditu-eragiketa batzuegatik, kontsumo arrunteko zorreetatik edo beste edozein eratakorengatik kontsumitzaileak zituen zor guztiak biltzen dira.

Publizitateak kontsumitzaileari ahaztarazten dio zorrak bateratzea sarritan ez dela izaten egoera ekonomiko zail horri irtenbide bat emateko oparia, baizik eta berarekin dakarrela zordunak bere gain hartutako zorren nagusia eta, gehienetan, epea kantitatez handitzea. Gertatzen dena da hipoteka-maileguak, normalean interes aldakorrekoa, kontsumitzailearentzat interes-tasa onuragarriagoa duela, eta horrek eta epea luzatzeak nolabaiteko lasaitasuna eskaintzen diotela zorraren hileko ordainketan.

Kontsumitzaileak, nolanahi ere, izaera orokorrean eskaintako publizitatearen sareetan ez erortzen ahalegin du behar du, eragiketa horrek kostuak dituelako, baina gertatzen da kostu horiek eskaintako kapitalaren barruan sartzen direla eta, era horretan, bezeroak ez dituela aurreratu behar.



- Zorrek bateratzeak abantailak edo arriskuak ditu?

Kontsumitzaileari ohartarazi behar zaio jarduera honek arrisku batzuk dituela, hipoteka-bermea duen mailegu baten bidez kontsumo-premiak finantzatzeko erabiliko delako, bere ondare-ahalmena gutxituz. Ez da ahaztu behar, halaber, publizitatea oso erasokorra izan dela alde horretatik, ia aurrezpen-produktu bezala tratatu izan baititu, horren ondorioz geratzen zaigun kuotan dugun murrizpena azpimarratzean.

Izan ere, kontsumitzaileak hipoteka-kreditu berria edo lehendik zuena itzultzeko epea luzatu egiten zaiola ikusten du. Normalean inolako gasturik eskatzen ez bazaio ere, zor duen diru-zenbatekoa nabarmenki handitzen da, eta interesen ordainketa ere luzatu egiten zaio. Eta gainera, kontsumitzaileak sarritan ez du ziurtasunik izango zerbitzu hori eskaintzen dion entitatea finantzarioa den ala ez, gaur egun kasurik gehienetan kreditu-bitartekari huts bat izango baita, kreditu-entitateek beren bezeroei eskatzen dieten kaudimen maila oso altua delako oraindik ere.

C.- Publizitateak eragiketa hauen inguruan bete behar dituen baldintzak

Bateratze horrek kontsumitzailearentzat dituen arriskuak ahalik eta gehien eragoztearren, 2/2009 Legeak merkataritza-jakinazpenen eta publizitatearen edukia ere arautu du, sarri askotan iruzurtia izan ohi delako argi eta garbi, zorrek bateratzeko eragiketaren abantailak bakarrik nabarmentzen baititu berehalako aurrezpen bat zekarrelakoan, baina eragiketa horrek epe ertainean duen kostu osoari aipamenik egin gabe. Informazio hauen edukia kreditu-entitateentzat eskatutakoaren ia berdina da, eta maileguari buruzko informazio-orri bat eman beharra dagoela ezartzen da; Legeak, gainera, kontsumitzaileari eragiketaren kostu eta gainerako ezaugarri garrantzitsuei buruz informazio nahikoa eman diezaiotela exijitzen du.

Alde horretatik, enpresa mailegu-emailearen aldetik, beren jakinarazpenetan eta publizitatean, UTB aipatzeko obligazioa dago, kreditu-entitateekin egin ohi den modu berean, hau da, adibide adierazgarri baten bidez.

Zorrek bateratzea edo biltzea baldin bada, eragiketa horrek duen kostuari buruzko informazio zehatza eman beharra dago.

Berriaz debekatuta dago ordaindu beharreko hileko kuotaren murrizpenari buruzko aipamena egitea, gauzatzeko dagoen kapitalaren igoerarik eta kreditu berriaren ordainketa-gerorapenik aipatu gabe.



- Zorrak bateratzeak nolako kostuak ditu?

Gaur egun kontsumitzaileekin hipoteka-mailegu nahiz -kredituak eta mailegu- nahiz kreditu-kontratu horiek gauzatzeko bitartekaritza-zerbitzuak nola kontratatu arautzen duen martxoaren 31ko 2/2009 Legeak arautzen du eragiketa horren prezioa. Era horretan, hipoteka-maileguei dagokienez, Hipoteka Legea aplikatuko da, eta 2007ko abenduaren 9a baino lehen egindako kontratuetarako, kontratuan hala jasota baldin badago, hipoteka-maileguak subrogatzeko eta aldatzeko 2/1994 Legean jasotako aurreiazko amortizazioagatiko komisioaren erregimena izango da aplikatuko den erregimena.

Gainera, etxebizitzaren gaineko mailegu edo kredituetan, irekiera-komisioaren barruan sartuko dira hipoteka-mailegu edo -kreditu hori aztertzeko, emateko edo izapidetzeko edozein gastu edo mailegua emateagatik enpresaren jarduerak berezkoak dituen bestelako gastuak.

Enpresak mailegu edo kreditu horien gainean aplikatzen dituen eta kontsumitzailearen kontura ordainarazi behar dituen gainerako komisio eta gastuek emakidarena ez den edo mailegua edo kreditua emate hutsa ez den beste zerbitzu berezi baten prestazioa bermatu behar dute.

Enpresek ezingo dute, inola ere, beren tarifetatik ondorioztatzen direnak baino tarifa garestiagorik ezarri, eta enpresa horiek inskribatuta dauden Erregistroetan erregistratuta egon behar dute tarifa horiek.

D.- Kontratua gauzatu aurretik eragiketaren kostueta baldintzen inguruan kontsumitzaileari eman beharreko informazioa

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago beharrezkoa izango dela kontsumitzaileari informazio-orri bat ematea maileguaren edo kredituaren baldintzei buruz, hipoteka-maileguen finantza-baldintzen gardentasunaren inguruan 1994ko maiatzaren 5eko Aginduaren I. Eranskinean ezarritako edukiarekin bat etorritik. Informazio-orri horrek, batez ere, eragiketaren kostuari buruzko elementu guztiak eta erkidegoko araudiak eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu.

Kontratua gauzatu aurretik (Legearen 14. artikulua), enpresak, kontratua gauzatu baino bost egun natural lehenago gutxienez eta, betiere, hipoteka-maileguaren edo -kredituaren eskaintza edo kontratutik ondorioztatzen den edozein



obligazio kontsumitzaileak bere gain hartu aurretik, enpresari buruzko informazioa eskaini beharko du (nortasuna, erregistroko datuak eta bere webguneara, erantzukizun zibileko aseguru-poliza edo bermea eta zein aseguru-erakunderekin edo kreditu-erakunderekin egin den kontratua), eskainitako mailegu edo kredituari buruzkoa (ezaugarri nagusiak, azken prezioa dagozkion komisio, karga, gastu eta zergekin; tasak igotzeko arriskuari eta eragiketa horrek berekin dituen beste arrisku batzuei buruzko ohartarazpena kontsumitzaileari, beste zerga edo gastu batzuk egon litekeen, eta ordaintzeko eta kitatzeko modalitateak), hipoteka-maileguaren edo -kredituaren kontratuari buruzkoa (aldeen eskubideei buruzko informazioa, erreklamatzeko sistemak, kontratua zein hizkuntzatan gauzatu daitekeen, eragiketaren zerga-tratamendua, zein kasutan dagoen eragiketaren eskaintza loteslea erdiesteko eskubidea).

Idatziz edo hartzaileak zein egunetan jaso duen adierazteko eta informazio hori kontserbatu, berregin eta eskuratzeko aukera emango duen izaera iraunkorreko edozein euskarri erabiliz eman beharko da informazio hori. Kontratu-aurreko informazioari buruzko arauan xedatutakoa ez betetzeak kontratua baliogabetzea eragin dezake.

E.- Kredituaren baldintzak

Mailegu-emailea kreditu-entitate bat denean hipotekaren mailegu-hartzaileak duen babes maila bera eman nahi dio kontsumitzaileari²/2009 Legeak.

Horretarako, kontratu-baldintzek eta, batez ere, kontratu-aurreko informazioak osoa eta egokia izan behar dutela azpimarratzen du, baina horrez gain, prezioen gardentasunaren garrantzia arautzen du bereziki, funtsean horrek ahalbidetuko baitio kontsumitzaileari gehien komeni zaizkigun baterakuntza-eskaintzen artetik zentzuz hautatzea.

Nolanahi ere, sarritan kontsumitzailea egoera larri baten aurkitzen da, ez du bere zorrak batean biltzeko krediturik eskuratzen eta, azkenik, bere egoera ekonomiko zail horri aurre egiten ahalbidetzen dion eskaintza bakarra aukeratzearen alde egiten du.

Azkenik, aseguru-entitate batean erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea edo bere jardueren garapenean izan ditzakeen erantzukizunak aseguratuko dituen berme bat kreditu-entitate batean kontratatzea ezartzen die Legeak entitate hauei.



Prezioei dagokienez, arau orokorrak dio askatasuna dagoela komisioen tarifak, baldintzak eta ordainarazitako gastuak ezartzeko orduan, eta muga nabarmenak direla 2/2009 Legea, Lukurreriaren aurkako Legea eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzko legeria.

Gastua sorrarazten duten kasuak eta horien maiztasuna adierazi beharko dira eta, edonola ere, benetan eskaintako zerbitzuei edo izandako gastuei erantzun behar diete, eta inoiz ezingo da kobratu kontsumitzaileak onartu gabeko edo irmoki eta berariaz eskatu gabeko zerbitzurik.

Ezingo da tarifaturakoak baino zenbateko handiagorik kargatu eta aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkio prezioak, tarifak eta ordainarazitako diren gastuak dagokion Erregistroari. Argia, zehatza eta erraz ulertzeko modukoa izango den eta kontsumitzaileari helaraziko zaion informazio-orri batean jasoko dira.

Informazio hori guztia entitatearen iragarki-taulan jaso beharko da, eta antzeko obligazioak ezarriko dira beren zerbitzuak Internet bidez eskaintzen dituzten enpresentzat.

F.- Kredituetako bitartekaritza-jarduera

2/2009 Legeak kreditu-bitartekari independentetzat hartzen ditu, maileguak edo kredituak merkaturatzen dituzten enpresa edo kreditu-entitateekin loturazko kontratu-harremanik eduki gabe, kreditu edo mailegu bat erdiesteko beren esku-hartzea eskatzen dutenei aholkularitza independentea, profesionala eta inpartziala eskaintzen dutenak. Kreditu-bitartekari independentea dela jotzen da kontsumitzaileari gutxienez hiru eskaintza lotesle aurkezten dizkiona.

Kontratazioa egin aurretik, kreditu-bitartekariak enpresari buruz, bitartekaritza-zerbitzuari berari buruz eta egin beharreko kontratuari buruz jakinarazi beharko dio kontsumitzaileari. Nolanahi ere, kontratuak idatziz jasota egon behar dute, eta kontsumitzaileak horri uko egiteko eskubide bat edukiko du 14 egun naturaleko epean.

Bitartekari independenteak bakarrik kobratuko du baldin eta aldeztu aurretik paperean edo euskarri iraunkor batean dagoen agiri baten bitartez haren ordainsaria itundu bada, eta inola ere ezingo du kontratu nagusia osatzen duen fondo edo diruzenbategotik ezer ere jaso.



Mailegu edo kredituaren kontratuari buruzko araudi bereziak eskatutako informazio guztia kontsumitzaileari eman beharra dute bitartekariak.

- Zorrak bateratzeko eragiketa horrek zertan errazten dio kontsumitzaileari zorrak ordaindu ahal izatea?

Zorrak bateratzeko eragiketa bat ezin daiteke hartu kontsumitzaileari kreditu-kostu txikiagoa eragingo dion ia mirarizko sistematzat, izan ere, errealitateak argi erakusten du, nahiz eta epe laburrean kontsumitzaileak bere kreditu-obligazio ugariak betetzeko xedatu beharreko diru-sarreraren zenbatekoa murriztuko duen, diru-zenbateko handiago baten zordun eta denbora luzeagoan izango da, eta horrek, azken batean, epe ertain eta luzean bere kredituaren kostua nabarmen handitzea ekarriko dio (askoz gehiago ordainduko interesen kontzeptupean, diru-zenbatekoa eta epea ere handitzen direlako).

- Egia da bateratzeko eragiketa horrek ez diola bezeroari inolako gasturik eragiten kontratua gauzatzeko orduan?

Horrelako baterakuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ez-finantzarioen publizitatea oso erasokorra izan da, eta funtsean kontsumitzaileari erakutsi nahi izan diote, normalean adibide esanguratsu eta nahikoa grafiko baten bidez, hilean askoz gutxiago ordainduko duela aurrerantzean eta eragiketa horrek ez diola inolako gasturik eragingo kontratatzeke unean.

Baina errealitate gordinak frogatzen du, kontratua gauzatzeko unean kontsumitzaileak inolako kopururik ordaindu behar izango ez duen arren, eragiketa-gastuak egon badaudela, ez direla murrizak eta, sarritan, kontsumitzaileak ez jakin arren, maileguaren nagusiari gehitzen zaizkiola, eta hura nabarmen handitzen dutela, hain zuzen ere, jatorrizko zorrak, kredituak aldatzeko, baliogabetzeko eta, hala egokituz gero, gauzatzeko gastuak eta enpresa mailegu-emaileak edo bitartekariak kobratutako komisioak biltzen dituelako.

Ad.: Luis Garciak hipoteka-mailegu bat du bere ohiko etxebizitzaren gainean, eta hileroko 857 euroko kuota ordaintzen du (130.000 euroko maileguaren nagusia, interes aldakorra, egun %3koa, 20 urteko amortizazio-epea), ibilgailu familiarra erosteko kontsumorako kreditu bat eta horrengatik hileroko 257 euro ordaindu behar du (13.000 euro, urtean %7, bost



urtetara) eta kontuan 110 euro zorpetzen zaizkion txartelaren gerorapen bat (guztira ordaintzeko 1.200 euro, UTB %19,65 urtebetara).


Zorrak bateratzeko eragiketaren ondoren, Luisek hilero, 1.224 euro ordaindu beharrean, 858,91 euro bakarrik ordainduko ditu (baterakuntzaren ondoriozko hipoteka-maileguaren hileko bat ordaintzeagatik, orain 160.000 eurokoa izango dena, eta 30 urteko epean ordaindu beharko dena).

Kontsumitzailearentzako berehalako ondorioa hileko kuotaren murrizpena da, baina horren ordainetan, familiaren ondasun bakar eta garrantzitsuenaren titulartasuna jarriko du arrisku larrian, eta hori, gainera, ez horren eskurapenari aurre egiteko, baizik eta kontsumo-premiengatik (autoa, arropa-erosketak, bidaiak, aisialdia, txartelarekin ordainduak...). Era berean, bateratutako diru-zenbatekoagatik ordaindu beharreko interesetan gehikuntza bat jasango du kontsumitzaileak (aldez aurretik inoiz jakinarazi ez zaizkion eragiketa-kostuengatik nabarmenki handitua).

- Erraza da zorrak bateratzeko enpresa batekin harremanetan jartzea, baldin eta bankuak nire kredituak birnegoziatzea lortzen ez badut?

Sarean konektatzea bezain erraza da, enpresa hauek neurri handi batean urrunetik dihardutelako. Birnegoziatzea edo zorren baterakuntza hitzak idazten ditugun edozein bilatzailetan, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresa desberdinen publizitate ugari topatuko dugu berehala, eta horietako batzuek, erraz egiaztatu ahal izango dugun moduan, oso publizitate erasokorra eta, neurri batean, iruzurtia erabiltzen dute.





IV. BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BALIABIDEAK



IV. BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BALIABIDEAK

- BANKU-KONTSUMITZAILEAK ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO BIDEAK
- Hipoteka-maileguen alorrean erreklamazioak jartzeko eredia
- Eranskin gisa doan agiria (BANCO DE ESPAÑAREN ERREKLAMAZIO-EREDUA)



Gaur egun, kreditu-jarduera ez da kreditu-entitate tradizionalentzat bakarrik gordetako jarduera. Era horretan, kreditu-entitateen aurrean aurkitzen garenean, horrelako arazoak konpontzeko bereziki diseinatutako auzitegiz kanpoko erreklamazio-baliabide bat edukiko dugu. Baina entitate ez-finantzarioen aurrean gaudenean, horrelako entitateek egindako jarduera desegokiak zigortzeko erregimena, zerbitzuak eskaintzen dituzten Autonomia Erkidegoetako Kontsumo Zerbitzuetatik etorriko zaigu.

Kontsumitzaileekin hipoteka-mailegu nahiz -kredituak eta mailegu- nahiz kreditu-kontratu horiek gauzatzeko bitartekaritza-zerbitzuak nola kontratatu behar diren arautzen duen martxoaren 31ko 2/2009 Legeak Erregistro bat sortzea aurreikusten du, gaur egun urtarrilaren 28ko 106/2011 Errege Dekretuak arautua, kontsumitzaileekin hipoteka-mailegu nahiz -kredituak eta mailegu- nahiz kreditu-kontratu horiek gauzatzeko bitartekaritza-zerbitzuak nola kontratatu behar diren arautzen duen martxoaren 31ko 2/2009 Legean aurreikusitako Estatuko Enpresen Erregistroa arautzen duela, eta kreditu-aseguruaren gutxieneko zenbatekoa eta jarduera horiek gauzatzeko zenbatekoa finkatzen duela.

Estatuko enpresen erregistro hau Kontsumoko Institutu Nazionalak kudeatuko du Kontsumoko Kalitatearen Zuzendariorde eta Orokorraren bitartez.

Kexa edo erreklamazio kasuetan, kontsumitzaileak Kontsumo Zerbitzuetara jo beharko du (kontsumitzaileen elkarteetara edo kontsumo-erakunde ofizialetara) bere erreklamazioa aurkeztera, nahiz eta egiaztatu egin beharko den entitate horietatik zenbat atxikiko zaizkion kontsumitzaileari horrenbeste onura ekarri dizkion Kontsumo Sistema Arbitralari.

Finantza-entitateei dagokienez, Finantza Sistemaren Erreformatarako Neurrien Legeak finantza-zerbitzuen kontsumitzaileentzako babes-sistema bat finkatzen du, eta hala, bere V. kapituluan (Finantza-zerbitzuen bezeroen babesa) finkatzen du nola izendatu behar diren gainbegiratze-entitateei atxikitako organoak, esate baterako bezeroaren arretarako Departamentua eta Bezeroaren Defendatzailea, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzua, Balore Merkatuen Batzorde Nazionalaren Erreklamazio Zerbitzua eta Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzua.

Hasiera batean, Lege honek banku-zerbitzuen bezeroaren defentsarako Mandatariak sor zitezela finkatu zuen, eta horien eginkizuna finantza-zerbitzuen erabiltzaileen kexei erantzutea zen, kexa hauen jatorria edozein izanik ere, eta halaber, esparru honetan dituzten eskubideen inguruan aholkuak ematea. Mandatariak susmorik hartzen baldin badu bezeroen



babes eta gardentasunari buruzko arauak ez direla betetzen ari, gainbegiratze-erakunde eskudunari igorriko dio erreklamazioa.

Legeak aipatzen dituen Mandatari hauek leihatila bakarraren printzipioaren arabera funtzionatzen zuten eta ekonomia edo finantzaren alorrean ospe handiko profesionalen artetik izendatzen zituzten, gutxienez 10 urteko esperientzia profesionala izanik, eta bost urtetarako aukeratzeko zituzten karguak berritzeko aukerarik izan gabe.

Hala eta guztiz ere, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen bitartez (Xedapen Indargabetzailea eta Amaierako Hamaikagarren Xedapena), Mandatari horiek ezabatu egin ziren erreklamazio-prozedura erraztearren.

Finantza Sistemaren Erreformatarako Neurrien Legeak behartu egiten ditu finantza-entitateak bezeroaren Arretarako Departamentu bat edukitzera, eta departamentu honek alde aurretik konpondu behar ditu kontsumitzaileen kexak edo erreklamazioak. Aukeran, entitate horiek Bezeroaren Defendatzaile bat eduki ahal izango dutela finkatzen da, eta entitate batentzat indibidualki izendatua izan daiteke nahiz beste entitate batzuekin batera partekatuzko. Bezeroaren Defendatzaileak itzal handiko entitate edo aditu independente bat izan behar du, eta horrez gain, bezeroen alde emandako ebazpenak lotesleak izango dira erreklamazioa jarri zaion entitatearentzat.

Zalantza izanez gero edo informazio handiagoa behar izanez gero, kontsumitzaileak bere finantza-entitatera jo behar du lehenik, nahiz eta, bide batez, bere galderak kontsumitzaileen elkarteei egitea ere erabaki dezakeen eta, erreklamazioa jarriz gero, bere ordezkari izan daitezela bankuen edo gainbegiratze-erakunde ofizialen aurrean.

Nolanahi ere, oso garrantzitsua da erreklamazio-gaiari buruz ahalik eta dokumentaziorik zabalena edukitzea, kontsumitzailearen argudioei laguntzeko xedez aurkeztu beharko baita. Arduratsua izan behar du kontratatutako edo, hala egokitzen denean, entitateari eskatutako zerbitzuari buruzko dokumentazio guztia zaintzeko eta eskatzeko orduan, baita erreklamazio-gaiari buruzko publizitate-orrietan edo bestelako dokumentazioetan ere.

Lehenik eta behin bitartekariarengana jotzearen egokitasuna azaltzeko esan daiteke sarritan ez dela izaten bezeroa babesteari buruzko edo gardentasunari buruzko



arauak urratzea edo jarduera arduragabea burutzea, baizik eta kontsumitzaileak ez duela informazio garbi edo nahikorik jaso entitatearen eta kontsumitzailearen arteko komunikazio-hutsak izan direlako. Entitateak eskainitako azalpena ez bada nahikoa eta kontsumitzaileak erreklamazioa jartzea beharrezkoa dela pentsatzen jarraitzen badu, bereizi egin beharko dugu erreklamazio hori kreditu-entitate bati zuzentzen zaionean edo beste entitate mota bati zuzentzen zaionean.

Erreklamazioa kreditu-entitate bati zuzentzen baldin bazaio, Legeak Bezeroaren Defendatzaile bat edukitzera behartzen ditu horrelako entitateak, eta hari zuzendu beharko zaio lehenik eta behin, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzura jo aurretik, arestian esan dugun moduan (<http://www.bde.es/servicio/reclama/reclama.htm>).

Erreklamazio hori alde aurreko beharrezko administrazio-baldintza bat da kexa entitate hauen organo gainbegiratzailearen aurrean aurkezteko, hots, Banco de Españaren aurrean.

Bezeroaren Defendatzaileak ez badu izapidetzat onartzen, gure asmoa baztertzen badu edo ez badu bi hilabeteko epean erantzunik ematen, bezeroak Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezake, erreklamazio idatzi bat aurkeztuz, erreklamazio-egilearen nortasun egokia, erreklamazioa zein entitateri jartzen zaion, lekua, data eta sinadura, eta erreklamazioaren arrazoi diren gertaerei buruzko deskribapen argi bat adieraziz, eta hala egokituz gero, kontsumitzaileak dituen agiri bidezko justifikazioak ere aurkeztuz.

Erreklamazioa hona igorri behar da: Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzua, Alcalá kalea 48, 28014-MADRIL, Tel. 901 545 400 (8'30etik 17'00etara), nahiz eta Banco de Españak espainiar lurraldean dituen bulegoetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango den. Gaur egun, Banco de Españak, bere webgunearen bitartez, erreklamazioa bide telematikoak erabiliz aurkezteko aukera aurreikusten du.

Erreklamazioa, edonola ere, idatziz aurkeztu beharko da, erreklamazio-egilearen nortasuna adieraziz eta erreklamazioaren xede den gaiaren inguruko deskribapen argi eta zehatz bat jasoz, eta erreklamazio-egilearen argudioak sustengatu dezaketen dokumentuen kopiak ere gehituko dira.

Banku-kontratazioen esparruan, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuaren ebazpenak ebatziko du kreditu-entitatearen jarrera sektoreko araudiarekin eta bankuen jardunbide egokiarekin bat datorren ala ez, baina ezingo du baldintzetako bat ere baliogabea dela adierazi, hori auzitegien eskumena delako.



Zerbitzu hori entitate horien gainbegiratze-organoaren antolamenduan txertatuta dagoenez, Banco de Españak zehapen-espeditente bat abiaraziko du entitatearen jokaera legearen aurkakoa dela jotzen badu.

- Hipoteka-maileguen alorrean erreklamazioak jartzeko eredua

Gaur egun, Banco de Españaren web orrian, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuari buruzko apartatuan, zurian dagoen erreklamazio-eredu bat eskaintzen zaio kontsumitzaileari, hori izapidetzeko beharrezkoak diren aipamen guztiak jada jasotzen dituen, eta hori PDF formatuan deskargatu daiteke helbide honetatik:

http://www.bde.es/webbde/es/secciones/servicio/reclama/form_reclamacion.pdf

eta gida honen agiri erantsi modura gehitu dugu (Banco de Españaren erreklamazio-eredua).

Era horretan, baita izapide fisikoak egiten diren kasuetarako ere, banku-bezeroei prozedura arindu eta erreklamazioak errazago idatzi ahal izatea lortu nahi da.

Garrantzitsua da, nolahi ere, azpimarratzea kontsumitzaileak bere erreklamazioarekin batera erreklamazioaren argudioa sustengatzen duen dokumentazio guztia aurkeztea, proba horren bitartez argi geratu dadin kreditu-entitatearen jarduna ez dela egokia izan. Horrexegatik da hain garrantzitsua ongi zaintzea kontratuaren agiria eta kontsumitzaileak bere erreklamazioan oinarri gisa erabil dezakeen beste edozein agiri, publizitate eta abar.

Dena den, galduz gero, kontsumitzaileak kontratu-agiriaren kopia bat eska diezaioke entitateari, baita horren berrespen idatzia ere (igorritako laburpenen kopia eta abar), horretarako beharrezkoak badira. Gainera, Banco de Españak behar bezala baimendutako tarifak kontsultatuz egiaztatu ahal izango du bere eragiketaren kostuen zuzentasuna, eta hain zuzen ere, banku honen web orrian aurkitu ahal izango du hori, entitateka bilaketa bat eginez (berarekin kontratua egin zuen banku-entitatearen izena idatziz).

Garrantzitsua da, halaber, kontsumitzailearen erreklamazioa ongi sustengatzea, nahiz eta ez den ezinbestekoa, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuak aztertuko duelako kreditu-entitatearen jarrera zehatz hori, jarduera hori egokia edo desegokia izan den erabakiz, baita gardentasunari buruzko arauak betetzen dituen ala ez ere (horien artean, funtsean, Banco de Españaren 8/1990 Zirkularra, edozein kontsumitzailek Banco de Españaren web orrian erraz kontsulta dezakeena, Araudia atalean).



Erreklamazio hori sustengatzeko helburuz, kontsumitzaileak beste kontsumitzaile batzuek alde aurretik aurkeztutako erreklamazioen inguruko ebazpenak aztertu ditzake, eta horiek Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuaren Txostenetan kontsultatu ditzake, Banco de Españaren webgunean bertan doan kontsultatu eta bertatik PDF formatuan deskargatu ditzakeelarik, Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuaren ataletik.

Jarraian, kreditu-txartela lapurtu zioten kontsumitzaile batek entitateak izandako jokabidearen aurrean aurkeztutako erreklamazioaren argudioa erakusten dizuegu, haren ustez egindako diru-erabilpenaren kostu osoak hartu beharko bailituzke bezeroak bere gain, nahiz eta bezeroa guztiz arduratsua izan zen txartela eta PINa gordetzeko orduan, baita polizia-agintaritzari eta txartelaren entitate igorleari lapurreta egin izana jakinarazteko orduan ere.

Horrelako gertaera baten aurrean edo kreditu-entitate batek izandako beste edozein jokabide desegokiren aurrean erreklamazio bat nola sustengatu daitekeen erakusten duen adibide bat izan daiteke.

“Gertaera horiek aipatu ondoren, nire txartelarekin legearen aurka egindako diru-erabilpen horiek ordaintzeari uko egiteko nire eskubidea sustengatzen duten ondorengo ALEGAZIOAK egin nahi ditut:

1) Txartela eta, batez ere, PINa zaintzeko orduan oso arduratsua izan nintzen. Txartelari dagokionez, poltsa barruan neraman, eta hain zuzen ere, horrelako ordainketa-tresnak gorde ohi diren diru-zorroa ostu zidaten. Halako arduraz jokatzeko dut horrelako ordainketa-tresnekin, ezin zorrotzago bete nituen txartelaren igorleak adierazitako jarraibideak, horren zenbakia toki seguru batean idatziz eta PINa memorizatuz, eta horrexegatik eman ahal izan nuen zenbaki hori, eskatu zidaten unean bertan. Esango nuke hori ez dela bezeroen ohiko jokabidea, eta horrexegatik uste dut ezin zaidala inolako gaitzespenik egin nire jokabide arduratsuagatik.

2) Diru-zorroaren lapurretaz ohartu bezain laster, bidezkoak eta, batez ere, beharrezkoak diren izapideei ekin nien nire txartela lehenbailehen blokeatuta gera zedila lortzeko, eta era horretan, diru-erabilpen iruzurtiak egin zitezela eragozteko: txartela baliogabetzeko ezagutzen nituen telefono-zenbaki desberdinetara eta poliziak eskaini zizkidanetara deitu nuen, zenbait aldiz polizia-etxera joan nintzen neure kabuz salaketa eta ikerketak zabaltzera, izan ere, hainbat eragozpen topatu bainituen informazioa erdiesteko eta gero poliziari horren berri emateko.



3) Lapurretaren egun berean egiaztatu zidaten txartela baliogabetuta zegoela eta ez zela mugimendurik izan, eta hurrengo egunean, nire ustekaberako, jakin nuen ez zela horrela gertatu eta iruzurrez egindako diru-mugimenduak 1.500 eurotara iristen zirela.

Arestian adierazitako alegazioak Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuak egindako erreklamazioen ebazpen ugaritan sustengatzen dira, nire txartelarekin iruzurrez egindako diru-erabilpenen ondoriozko ondare-galera neure gain ez hartzeko eskubidea babesten dutela:

1.- Lehenik eta behin, SRBEk (Banco de Españaren Erreklamazio Zerbitzuak) sarritan adierazi izan du diru-erabilera iruzurtiak lapurreta-ohartarazpena baino geroago egiten baldin badira, banku-entitateak hartu behar dituela bere gain, eta horren aurka doan jokabidea ez zaiola egokitzen banku-jardunbide egokiei (Caja de Ahorros de Salamanca y Soriaren aurka jarritako 2709/00 zk. Erreklamazioa, 2001. urteari dagokion SRBEren Txostena, 81. orria).

Halaber, telefono bidez blokeatzea ezinezkoa izan arren, nahiz eta 2006ko abenduaren 17ko arratsaldean txartela baliogabetuta zegoela ziurtatu zidaten, SRBEk adierazi du jokabide hori gaitzesteko modukoa dela, entitateak kontua berehala blokeatzeko bitartekoak eduki behar dituelako bezeroak diru-erabilpenerako bitartekoak ostu izana salatu bezain laster (horrela dio Banco de Santanderren aurkako 1196/98 zk. Erreklamazioak, 1998. urteari dagokion SRBEren Txostena, 92. orria).

Bitarteko horiek huts egiten duten kasuan, edo diru-erabilpen iruzurtiak eragoztearren baliogabetzeko agindu hori entitate igorleari modu egokian jakinarazten ez bazaio, SRBEren iritziz, administrazio-gorabehera horiek, jakinarazpen-hutsegite horiek, ezin dakizkioke bezeroari ordainarazi, hark egoki eta behar bezala jokatu baitzuen lapurreta ostu ziotela jakinaraziz, eta hori aski izan beharko lukeelako kontua blokeatzeko (Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Extremaduraren aurkako 2034/96 zk. Erreklamazioa, eta BNP Españaren aurkako 1726/97 Erreklamazioa, 1997. urteari dagokion SRBEren Txostena, 90. orria).

2.- Nolanahi ere, diru-erabilpen horiek bezeroak ohartarazi eta lapurreta jakinarazi aurretik egin arren ere, 1990ko azaroaren 14ko Europako banku-sektorearen Jardunbide egokiaren Kodeko hamabigarren klausulak, txartel bidezko ordainketa-sistemari buruzkoak, ezartzen du titularrak ez dituela bere gain hartuko 150 ecu (alegia, euro) edo hortik gorako galerak,



berak iruzur eginez, jakinaren gainean edo arduragabekeria larriz jokatu ezean, edo Kode honetako 6.a), b) eta c) baldintzak bete ez baditu (aipatutako baldintza horiek txartel-edukitzaileak txartela zaintzeko, eragiketen sarbide-zenbaki ezkutua sekretuan gordetzeko eta gerta litezkeen gorabeherako igorleari jakinarazteko obligazioei buruzkoak dira), eta gauza bera dio 1997ko Gomendioak.

Gainera, jarduera orokortua da banku-txartelen kontratuen baldintza-orrietan titularraren erantzukizuna mugatzen duten xedapenak barneratzea, jardunbide egokiaren Kodearen antzera.

Hala eta guztiz ere, sarritan entitateek ez dituzte horrelako segurtasun-eskakizunak betetzen, ez dituztelako halako mugak aplikatzen, beren bezeroek txartelak edo sarbide-zenbaki ezkutua zaintzeko orduan arduragabekeria larriz jokatzeko dutela alegatuz. SRBEren iritziz, entitate horiek justifikatu behar dituzte gertaera horiek, eta hori, alde batera utzirik Zerbitzuaren ustez justizia-auzitegiek izan behar dute –eta ez entitateek alderdi interesatu gisa– txartelen titularrek horiek erabiltzean eta zaintzean izandako ardurua maila aztertu eta horren neurria ebatzi behar dutenak (esaterako, beste askoren artean, 147/00, 1235/00, 869/00, 1645/00, 899/00, 1839/99, 1213/00, 2210/99 zk. Erreklamazioak, baita Barclays Banken aurkako 880/00 eta 905/00 zk. Erreklamazioak, 2000. urteari dagokion SRBEren Txostena, 84. orria).

Alegatutako arrazoi horiek direla eta, iruzur eginez erabilitako diru-zenbateko horren ordainketa neure gain hartzeko uko horri eusten diot, ordainketa-tresna eta PINa zaintzeko orduan guztiz arduratsua izan nintzela uste dudalako, baita lapurreta eta txartela blokeatzeko agindua jakinarazteko orduan ere, eta gainera, lapurretaren egun berean egiaztatu zidaten txartela baliogabetuta zegoela eta pertsona baimengabeek ez zutela diru-erabilerarik egin.

Arren eskatzen dizuet, horrenbestez, diru-erabilera iruzurti horren gorabeherak kontuan har ditzazuela, puntu honetan nire jokabidea guztiz arduratsua eta akatsgabea izan zela eta entitatearen jokabidea arduragabea eta zorrotasunikgabea izan zela, lapurretaren egun berean egiaztatu baitzidan txartela baliogabetuta zegoela eta ez zela diru-erabilerarik egin, baina egiaz, txartela ez zuten baliogabetu eta 1.500 euroko balioa duten diru-erabilpenak egin ziren, eta hala, erreklamazio hau nire interesen alde ebatz dezazuela eskatzen dizuet.

Adeitasunez,

Stua.Kontsumitzailea”.





V. GLOSARIOA



HIPOTEKA-HARTZEKODUNA:Diru-zenbateko bat zor zaion pertsona edo entitatea, eta kasu honetan, higiezin baten gaineko hipoteka-eskubide erreal bat eratu izanak bermatzen du zorra ordaintzeko obligazio hori.

HIPOTEKA-KREDITUA:Diru-zenbateko bat, epe batean eta interes jakin baten arabera, bezeroaren esku jartzea dakarren eragiketa. Aldez aurretik ez dago erabakita zein den kredituaren xedea. Hipotekarioa izango da baldin eta hipoteka bidez bermatuta badago bertatik zordunarentzat ondorioztatzen diren obligazioak beteko direla.

HIPOTEKA-ZORDUNA:Diru-zenbateko jakin bat bere interesekin itzultzeko obligazioa bere gain hartu duen pertsona, eta bere jabetzako ondasun higiezin bat edo hirugarren batena (jakina, haren onespenearekin) bere obligazioak bete ahal izatearen mende jarri duena; obligazio horiek betetzea ezinezkoa izanez gero, higiezin horren gaineko hipoteka gauzatuko da.

FIDANTZA:Obligazio bat ordaintzeko berme pertsonala. Fidantza ematen duen pertsonak (fidatzaileak) hitz ematen du obligazio hori ordainduko duela baldin eta zordun nagusiak ordaintzen ez badu (fidantza arrunta), baita zordun nagusiari ordain dezala eskatu beharrik izan gabe ere (fidantza solidarioa).

HIPOTEKA:Ondasun higiezin bat zergapetzen duen eskubide erreala, normalean hori erosteko beharrezkoa den finantzazioa erdiesteko erabiltzen dena (nahiz eta ondasun higigarriak ere hipotekatu daitezkeen). Jabetza Erregistroan inskribatzen da hipoteka.

ERREFERENTZIA-INDIZEA:Interes-aldi baten barruan hipoteka-maileguaren kostuan gertatzen den aldaketa zehaztea ahalbidetzen duen adierazle objektiboa. Erreferentzia-indizea ofiziala edo ez-ofiziala izan daiteke, baina beti objektiboa izango da. Erreferentzia-indize ofizialik erabilienean 1 urterako euriborra da.

GABEALDIA:Maileguaren amortizazio-epearen hasieran denboraldi jakin batez hipoteka-zordunak kapitalaren ordainketarik jasan behar ez duen epealdia (gabealdi partziala) edo, besterik gabe, ezer ordaintzen ez duen epealdia (gabealdi osoa).

INTERES-EPEA:Maileguaren interes-tasak inolako aldaketarik jasaten ez duen epealdia.



AMORTIZAZIO-EPEA:Hipoteka-zordunak mailegua eta horren interesak ordaintzeko duen epea.

HIPOTEKA-MAILEGUA:Itzulketa hipotekaren bidez bermatua duen diru-mailegua.

ZORRAK BATERATZEA:Kontsumitzailearen zorpetze-iturria, normalean hipoteka-mailegu berria edo lehendik dagoena, bateratzeko xedea duen eragiketa da, epe laburrean kredituaren kostua txikiagoa izan dadin eta kontsumitzailearen egoera ahula arindu dezan.Nolanahi ere, epe ertainean eta luzean, kredituaren kostu-gehikuntza nabarmena izan ohi da, eta horrexegatik, kontsumitzaileak horien inguruko informazio guztia ezagutu behar du.

HIPOTEKATUTAKO FINKAREN ENKANTEA:Hipotekatutako ondasuna salmenta publikoan jartzeko prozedura.Ondasuna GAUZATZEA aipatzen dugunean ere, hipotekatutako ondasuna salmenta publikoan jartzeko prozedura adierazi nahi dugu.

HIPOTEKATUTAKO FINKAREN TASAZIOA:Ondasun jakin baten balioaren inguruko kalkulua.Adibidez, aditu batek tasazio ofiziala egiten du etxebizitza batean, hipoteka-mailegu bat kontratatu aurretik etxebizitzaren benetako balioa zein den ezagutzeko.





VI. KONTSUMITZAILEA ETA HARTZEKODUNEN KONKURTSOA



VI. KONTSUMITZAILEA ETA HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

1.- HARTZEKODUNEN KONKURTSOA.OINARRIZKO KONTZEPTUAK



2.- KONTSUMITZAILEA HARTZEKODUN GISA HARTZEKODUNEN KONKURTSO BATEAN



3.- PERTSONA FISIKO EZ-MERKATARIAREN KONKURTSOA



Gida honen bigarren zatiaren helburua, hain zuzen ere, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak onetsitako konkurtso-prozedurari buruzko informazio argia eta erraza eskaintzea da.

Konkurtso Legeak, Konkurtso Erreformatarako uztailaren 9ko 8/2003 Lege Organikoaren bidez osatua eta egoera ekonomikoaren bilakaeraren aurrean zerga, finantza eta konkurtso alorreko premiazko neurriei buruzko martxoaren 3ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak aldatua, erreforma sakona egin du ordu arte indarrean zegoen konkurtso-araudi zaharkitu, lauso eta akastunean.

Konkurtso Legeak lege, diziplina eta sistema arloko batasun-printzipioen alde egin du, eta hala, hartzekodunen konkurtsoa kaudimen-gabeziako egoera guztiei (behin-behinekoei edo behin betikoei, egungoei edo berehalakoei) eta hartzekodun guztiei (enpresaburu izan ala ez izan) aplikatzen zaie, garai bateko porrot, ordainketa-etendura eta kita eta itxaronaldi prozedurak ordezkatur.

Konkurtso-prozeduraren oinarrizko kontzeptuak definitu ondoren, glosario modura (I. atala), kontsumitzaileak ezagutu behar dituen gaietako batzuk aztertzen dira, berarekin kontratua egin duen eta haren hartzekodun den entitate bati konkurtso-adierazpena egin zaion kasuan (II. atala) nola jokatu behar duen jakiteko.

Puntu honetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin, kontsumitzaile ugariri eragiten dieten konkurtsoetan, beren bazkideen (hartzekodunen) alde esku hartzeak pizten duen arazoa aztertzen da bereziki.

Horretarako, kontsumitzaile ugariri eragiten dieten azkeneko konkurtsoetan erabilitako praxia eta gai horren inguruan dagoen jurisprudentziarik garrantzitsuena aztertzen da.

Azkenik, pertsona fisiko ez-merkatari batek konkurtso-eskaera bat eskatuko balu horrek izango lituzkeen ondorio eta baldintzak ere jorratzen dira; Konkurtso Legeak jasotzen du aukera hori, eta krisialdi ekonomikoaren garaiotan dezentetan erabilia izan da. Kasu honetan, Merkataritza arloko Epaitegiek pertsona fisiko ez-merkatarien konkurtsoa adierazi izan duen kasuetako batzuk aztertzen dira (III. atala).



1.- HARTZEKODUNEN KONKURTSOA.OINARRIZKO KONTZEPTUAK

1. HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

Zordun komun baten kaudimen-gabeziaren aurrean –merkataria izan nahiz merkataria ez izan– haren hainbat hartzekoduni erantzun bat ematea helburu nagusizat duen prozedura judiziala izango litzateke hartzekodunen konkurtsoa.

Doktrinak dioenaren arabera *“zordun baten krisialdi ekonomikoak eragindako hainbat interes elkartzen dituen prozesu judiziala litzateke, eta, hainbat hartzekodun daudenez gero, ondare-eskasiako egoera ekonomiko batean murgilduta egoteak ez dio uzten hartzekodun horien guztien aurrean bere obligazioak betetzen”*.



Konkurtsu Legeak (aurrerantzean KL) hartzekodunen interesari ez ezik, interes publiko bati ere erantzutea bilatzen duen edo hori babesten duen prozedura gisa ikusten du hartzekodunen konkurtsoa, eta hain zuzen ere, helburu hori enplegu-egonkortasuna eta enpresen jarraitasuna da. Horrexegatik, arau orokor horren arabera, konkurtso-adierazpenak ez du etengo jardura profesionala edo enpresariala (KL 44. art.). Arrazoi beragatik hitzarmen bat erdietsi dadila sustatzen da (hartzekodunekin hitzarmen bat egitea ordainketak egingo diren uneari eta zenbatekoari buruz), haren ondasunen likidazioaren kaltetan, eta horrek eragotzi egingo du enpresaren jarraitasuna.

Jakina, Merkataritza arloko Epaileak konkurtso-adierazpena egiteak ondorio garrantzitsuak ditu, bai zordunaren arlo pertsonalean eta bai ondarean ere, baita hartzekodunen gainean eta bien artean izenpetutako kontratuetan ere.

2. KONKURTSOAREN BALDINTZAK

KLaren 1. eta 2. artikuluei jarraiki, eska dakizkiokeen obligazioak maiztasun batez betetzerik ez duelako kaudimen-gabeziako egoeran aurkitzen den edozein zorduni, pertsona fisikoa izan nahiz juridikoa izan, zuzendu dakioke konkurtso-adierazpena. Hartzekodunen konkurtso bat adierazteko beharrezkoak diren baldintza subjektibo eta objektiboak zehazten dituzte arau hauek.

Baldintza objektiboa zordunaren kaudimen-gabeziako egoerari buruzkoa da, eta honela definitzen da: *“dituen obligazioak, mugaeguneratu ahala eta hartzekodunek eskatu ahala, normaltasunez betetzerik ez izatea”*.



Konkurtso-adierazpenaren eskaera zordunak egiten badu, KLaren 2.3 artikuluekin bat etorriz, bere zorpetzea eta kaudimen-gabeziatzko egoera justifikatu behar du, eta “*egungoa edo berehalakoa*” izan daiteke (2.3 artikulua).

Baldintza subjektiboari dagokionez, KLaren 1.1 artikulua horrek ezartzen duenez, konkurtso-adierazpena “*edozein zorduni zuzenduko zaio, pertsona naturala izan nahiz juridikoa izan*”, jarduera enpresariala edo profesionala izan ala ez izan.

3. EGUNGO KAUDIMEN-GABEZIA

Arestian esan den moduan, zordunak justifikatu egin behar du bere zorpetzea eta kaudimen-gabeziatzko egoera. KLaren 2.4 artikulua kaudimen-gabezia islatzen duten zenbait ezaugarri finkatzen ditu:

1) *Artxibatze orokorra obligazioen ordainketa arruntean*. Borondatezko konkurtsoaren kasuan arrazoirik ohikoena da eta kasu zehatz bakoitzean balioetsi beharko da. Artxibatze orokor bat izan behar du, hau da, behin betikoa, ez noizbehinkakoa, nahiz erabatekoa ez izan.

2) Gauzatzeko dauden exekuzioengatik zordunaren ondareari orokorrean eragiten dioten *bahiturak* edukitzea. Ondasunen bahitura orokorra izan behar du, hau da, hainbat exekuzio eta bahitura ekarri behar ditu.

3) *Ondasunak ostentzea edo arinegi edo modu galgarrian likidatzea*. Ondasunak edo eskubideak ezabatu edo desagerrarazten dituen ekintza irmo bat eskatzen du “ostentzeak”, eta ekintza horren bidez iruzurra egin nahi izan zaien hartzekodunen –baten edo gehiagoren– kreditu-eskubidea erabat edo partzialki, nahiz potentzialki, kaltetu behar du. “Ondasunak arinegi edo modu galgarrian likidatu izana” gertatzeko, beharrezkoa da zorduna bere ondarea likidatzen hasi izana eta hori arinegi egin izana (presa edo azkartasun bereziz egin izana) edo modu galgarrian (galera bereziki larriak eraginez).

4) *Obligazio esanguratsuak orokorrean ez betetzea*, hala nola zerga-obligazioak ordaintzean huts egitea (Ogasun Publikoaren, Autonomia Erkidegoen eta Toki Ogasunen aurrean); Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzean huts egitea eta konkurtso-adierazpenaren aurreko hiru hilabeteetan zerga-bilketako gainerako kontzeptuak; eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren soldatak, kalte-ordainak eta gainerako ordainsariak ordaintzean huts egitea.



Eskaera hori zordunak aurkezten badu, konkurtsoa adierazten duen auto bat emango du epaileak, baldin eta dokumentazio horretatik zordunak alegatutako kaudimen-gabezia egiaztatzen duten gertaera hauetako batzuk edo beste batzuk ondorioztatzen badira (KL 14. art.).

4. HUR-HURREKO KAUDIMEN-GABEZIA

Zorduna hur-hurreko kaudimen-gabeziatzko egoeran aurkituko da “*aurreikusten duenean bere betebeharrak ezin izango dituela garaiz bete*” (KL 2.3 art.). Hur-hurreko kaudimen-gabeziaren eduki objektiboa mugatzean, kontuan hartu behar da etorkizuneko egoera bat dela, eta beraz, horrek esan nahi du zordunak oraindik ez dituela eska dakizkiokeen obligazioak garaiz bete gabe utzi, baina hori gertatuko dela aurreikus daitekeela, eta hala, obligazioen ez-betetze horrek ez du oraindik gertatua izan behar, kasu horretan kaudimen-gabezia egungoa izango litzatekeelako eta ez hur-hurrekoa.

Kaudimen-gabezia egungoa bada, zordunak konkurtsoa eskatzeko obligazioa du (KL 5. art.), eta aldiz, kaudimen-gabezia berehalakoa bada, zordunak ez du lege-obligaziorik izango.

5. BORONDATEZKO KONKURTSOA ETA NAHITAEZKO KONKURTSOA

KLaren 22. artikulua borondatezko eta nahitaezko konkurtsoak bereizten ditu, eta borondatezkoak, oro har, aurkeztutako lehenengo konkurtso-eskaria zordunak egiin duenean, eta nahitaezkoa izango da gainerako kasuetan.

Konkurtsoa *nahitaezkoa* izango da lehenengo eskaria zorduna ez den beste edozein legitimatuk aurkezten duenean (KL 22.1 art.) eta egungo kaudimen-gabeziatzko egoeraren kasuan bakarrik adierazi daitekeenean, hau da, zordunak eska dakizkiokeen obligazioak garaiz betetzerik ez duenean, eta kaudimen-gabezia hori KLaren 2.4 artikuluan zerrendatutako gertaeretako baten bidez gauzatu behar da (zordunak berak eskatua ez bada).

Aldiz, konkurtsoa borondatezkoa izango da baldin eta lehen eskatzailea zorduna bada, eta egungo kaudimen-gabezia kasuetan epe jakin batzuetan konkurtsoa eskatzera behartua dago (KL 5. art.). Eskaera hori aukerakoa da, eta zordunari bakarrik dagokio, hur-hurreko kaudimen-gabeziatzko kasuan, hau da, bere obligazioak maiztasunez eta garaiz betetzerik izango ez duela aurreikusten duenean (KL 2.3 art.).



Beste alde batetik, zordunak eskatutako konkurtoa borondatezkoa dela joko da, baldin eta, beste beharrezko batzuk eskatu direnean, alde zurreko hitzarmen-proposamen batera iristeko negoziazioen jakinarazpena edo zordunaren eskaria denboran lehena bada.

6. KONKURTSO-ADIERAZPENAK KONKURTSOPEKOAREN GAINEAN DITUEN ERAGINAK

6.1. Konkurtsopekoaren administrazio-ahalmenak eta prestutasuna

Konkurtso-adierazpena egin ondoren, Merkataritza arloko Epaileak erabaki behar du zein izango den konkurtsopekoaren aldetik bere ondarearen gaineko erabilpen- eta administrazio-erregimena. Bi aukera aurreikusten dira:

a) Bere ondarea administratzeko eta erabiltzeko ahalmenei bere horretan eustea, konkurtso-administrazioak horren gainean esku hartzen duela, eta konkurtsopekoak egiten dituen ekintzak baimendu edo bere onespina eman beharko diela, borondatezko konkurtsoan aplikatzen dena. Zordunak konkurtsoaren Epailearen aurrean eta administrazio judizialaren aurrean pertsonalki agertzeko obligazioa du eskatzen zaion aldi guztietan, baita konkurtsoaren intereserako beharrezkoa edo komenigarria den guztietan laguntzeko eta jakinarazteko obligazioa ere. Zorduna pertsona juridikoa denean, obligazio hauek horien administratzaileari edo likidatzaileei dagozkie eta, halaber, konkurtso-adierazpenaren aurreko bi urteen barruan kargu hauek bete dituztenei. Obligazio horiek zordunaren ahaldunei eta epealdi horren barruan izan direnei ere badagokie (KLaren 42 art.).

b) Ahalmen horiek gauzatzea *esekita geratzea*, konkurtso-administrazioak bere gain hartuko dituela, nahitaezko konkurtsoan aplikatzekoa. Nolanahi ere, Merkataritza arloko Epaileak erregimen hori aldatu dezake eta konkurtsopekoaren ondare-ahalmenak esekita utzi, borondatezko konkurtsoaren kasuan, edo esku-hartze baten mende jarri, nahitaezko konkurtsoaren kasuan, betiere erabaki horren arrazoiak ematen baditu eta horrek berekin dituen arrisku eta abantailak adierazten baditu (KL 40 art.). Salbuespen bakarra likidazio-fasea irekitzea izango litzateke, eta kasu horretan, beti esekiko dira konkurtsopekoaren administrazio- eta erabilera-ahalmenak (KL 145 art.).

6.2. Konkurtsopekoaren oinarrizko eskubideen gaineko eraginak

Konkurtso-adierazpena egin ondoren, eta haren eskaria izapidetzeko onartzen denetik, salbuespen gisa, eta konkurtsoko epaileak horren jatorriari, egokitasunari eta proportzionaltasunari buruzko



argudio egokiak ematen baditu, Zerga Ministerioari entzun ondoren, edozein unetan neurri hauetako bat edo guztiak hartu ahal izango ditu:

a) Zordunaren jakinarazpenetan esku hartzea, “konkurtsoaren interesetik” kanpoko edukien sekretua bermatuz, betiere Prozedura Kriminalaren Legean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

b) Pertsona natural zordunek beren helbidearen udalerrian bizitzeko obligazioa. Obligazio hori betetzen ez bada edo betetzerik izango ez duela pentsatzeko arrazoi nahikoak badaude, epaileak, salbuespenezko neurri gisa, etxe barruko atxiloteta erabaki ahal izango du.

c) Zordunaren etxebizitzan sartzea eta hori miatzea. Horretarako, beharrezkoa da konkurtso-prozedurarako dokumentazio interesgarriak topatuko diren arrazoizko susmoak edukitzea. Pertsona juridiko bat baldin bada, neurri horiek haren administratzaile edo likidatzaile guztiekiko edo batzuekiko erabaki ahal izango dira (egungoekiko edo aurreko urteetan izan direnekiko). Horrelako neurriak hartzea ofizioz egin daiteke edo edozein interesatuk hala eskatuta, konkurtso-adierazpena egin ondoren, baita izapidetzeko onartu den nahitaezko konkurtsoaren eskatzaileak hala eskatzen duenean ere.

Jakina, horrelako erabaki judizialen aurkako errekurtsua jarri ahal izango da apelazio gisa, bost eguneko epean, esekipen-ondoriorik gabe, dagokion Probintziako Entzutegiaren aurrean. Hori guztia, Konkurtso Erreformatarako uztailaren 9ko 8/2003 Lege Organikoaren 1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

6.3. Konkurtso-adierazpenak enpresa-jardueraren gainean dituen eraginak

Konkurtso-adierazpenak zordunaren gainean dituen ondorioei dagokienez, KLaren 44. artikulua edukia nabarmendu beharra dago, izan ere, horren arabera *“konkurtso-adierazpenak ez du geldiaraziko zorduna gauzatzen ari den lanbide-edo enpresa-jarduera”*.

Arau horrek enpresen jarraitasuna sustatu nahi du, eta lanbide- edo enpresa-jarduera etetea arau orokor horren salbuespentzat jotzen du. Xede horrekin, Konkurtso Legeak, zordunak dituen ondasunen likidazioaren aurrean, hartzekodunekin hitzarmen bat egitea bultzatzen du prozedura horri eman beharreko irtenbide gisa, eta hori guztia hartzekodunen, konkurtsopekoaren, langileen eta beste interesatu batzuen onerako.



7. KONKURTSO-ADIERAZPENAK HARTZEKODUNEN GAINEAN DITUEN ERAGINAK

Egoitza honetan duen ondorio nagusia hartzekodunek konkurtsopekoaren ondarearen aurka gauzatutako ekintza indibidualak etetea da, horiek (horren kredituak) konkurtsoaren masa pasiboaren barruan sartuko baitira konkurtso-prozeduraren informazio-printzipioetako batekin bat etorriz, hots, “*par conditio creditorum*” izeneko printzipioarekin (*hartzekodunekin tratu-berdintasunaren proportzioa*). Horixe da esekipenean geratuko diren edo konkurtsoa adierazi ondoren ezin abiaraziko diren eta izaera betearazlea duten ekintzen kasua.

Aldiz, jada izapidetzen ari diren arlo zibil edo sozialeko ekintza adierazleak ez dira geldiaraziko, eta epaia irmo bilakatu arte aurrera jarraituko dute, ezta administrazioarekiko auzibideetakoak edo zigor arlokoak ere, zordunaren ondarearen gainean eragina badute (KLaren 50, 51, 52, 63 eta 55 artikulua).

Legeak modu bereziz tratatzen ditu berme errealak gauzatzeko ekintzak (hipoteka edo bahitura), normalean kreditu-entitateek konkurtsopekoaren ondasunen gainean gauzatuak eta aldi baterako geldiaraziak, konkurtso-adierazpenetik urtebeteko epean, konkurtso horrentzat irtenbide bat erdiesten ari diren bitartean (hitzarmena edo likidazioa), eta era horretan, jokoan diren interes guztiak babesten dira.

Erregimen hau aplikatzen zaie, halaber, epeka saldutako ondasun higigarriak berreskuratzeko ekintzei, finantza-errentamenduaren xede izan direnei (leasinga), baldin eta kontratuak dagokion erregistroan inskribatuta badaude (ondasun higigarrien epekako salmenta-erregistroa) eta prezio geroratu ez ordaintzearen ondorioz higiezinen salmenta suntsiarazteko ekintzei (KLaren 56 eta 57. artikulua).

Beste alde batetik, konkurtsopekoaren hartzekodunen kredituen tratamenduak ondorengo arauak jasoko ditu:

- ✓ *Konkurtsopekoaren zorrak eta kredituak konpentsatzeko debekua*. Debeku honek ondorioak izango ditu baldin eta bere baldintzak Konkurtso-adierazpena baino lehen gertatu badira (KLaren 58. art.).
- ✓ *Korrituen sortzapena etetea*. Legezkoak zein hitzarmenezkoak izan, berme erreala duten kredituei dagozkienak eta aitortutako soldata-kredituei dagozkienak izan ezik (LKaren 59 eta 92.3 artikulua).



- ✓ *Konkurtsu-adierazpena baino lehenagoko kredituengatik zordunaren aurkako ekintzen preskripzioa geldiaraztea* (LKaren 60.1 artikulua).

Nolanahi ere, konkurtso-adierazpenak ez dakar kreditu geroratuen mugaeguneratze aurreratua, eta soilik likidazio-fasea irekitzen bada gauzatuko da hori (KLaren 46. artikulua).

8. KONKURTSO-ADIERAZPENAK KONTRATUEN GAINEAN DITUEN ERAGINAK

Konkurtsu Legeak zenbait kasu bereizten ditu:

- ✓ *Konkurtsu-adierazpena egiten den unean alderdietako batek bere betebeharrak beteak dituen kontratuak.* Konkurtsopekoak egindako kontratuetan, konkurtso-adierazpena egiten den unean alderdietako batek (konkurtsopekoak edo kontrako alderdiak) bere betebeharrak osorik bete dituen eta besteak ez, legeak ezartzen du zordunari dagokion kreditu edo zorra konkurtsoaren masa aktiboaren barruan barneratu beharko dela (baldin eta konkurtsopekoa hartzekodun bada) edo bestela, masa pasiboaren barruan (baldin eta konkurtsopekoa zorduna bada) (KLaren 61.1 artikulua)
- ✓ *Elkarrekiko betebeharrak dituzten eta oraindik gauzatzeko dauden aldebiko kontratuak.* Esparru honetan, printzipio nagusia indarrean dirauen kontratua artatzea da, eta hala, konkurtsopekoak bete behar dituen prestazioak *masaren kontura* egingo dira, hau da, masaren aurkako kreditu gisa sailkatuko dira eta gauzatuko dira.

Dena den, legeak baimena ematen dio konkurtso-administrazioari, konkurtsopekoaren ondare-ahalmenak esekita geratuz gero, edo konkurtsopekoari, horien gainean esku hartuz gero, kontratua suntsitu dadila eskatu ahal izateko, baldin eta “konkurtsoaren intereserako” komenigarria dela irizten badiote. Alderdien artean adostasunik ez badago, Merkataritza arloko Epaileak erabakiko du, eta berak zehaztuko ditu ordezkariak eta masaren kontura ordaindu beharko diren kalte-ordainak (KLaren 61.2 art.).

Izan ere, arauak argi uzten du alderdiei kontratua suntsitzeko ahalmena ematen dieten edo konkurtso-adierazpena egite hutsagatik kontratuen suntsipena eragiten duten kontratu-baldintzak ez finkatuzat hartuko direla (beste zenbait lege-arauren kontra joan gabe, esate baterako, agindu-suntsipenari buruzko Kode Zibileko 1.732 artikulua edo Agentziaren Kontratuari buruzko Legearen 26. artikulua).



✓ *Elkarrekiko betebeharrak dituzten eta konkurtso-adierazpenaren ondoren bete ez diren aldebiko kontratuak.* Kasu honetan ohikoa den moduan, legeak kontratua suntsitzeko ahalmena gauzatu dadila ahalbidetzen dio ez-betetzeak kaltetutako alderdiari. Are gehiago, aukera hori segidako traktudun kontratuei ere luzatzen die, baldin eta ez-betetze hori konkurtso-adierazpena baino lehenagokoa bada (KLaren 62.1 artikulua).

Halere, jarraian, Merkataritza arloko Epailari kontratua suntsitzea ez dela bidezkoa erabakitzea ahalbidetzen dio, nahiz eta suntsitzeko arrazoia egon, baldin eta *“konkurtsorearen intereserako”* komenigarria bada (KLaren 62.3 artikulua).

Azkenik, Konkurtso Legeak enplegatzailea konkurtsopekoa den lan-kontratuak aztertzen ditu 64. artikuluan. Azpimarratu beharra dago lan-baldintzak nabarmen aldatzea eta lan-harremanak modu kolektiboan eten edo azkentzea bezalako alderdiak ezagutzeko eskumena konkurtso-adierazpena egin duen Merkataritza arloko Epailari dagokiola.

Legeak *“pribilegio orokorra duten kreditutzat”* hartzen ditu pribilegio berezirik ez duten alokairuen ondoriozko kredituak eta kontratuak azkentzearen ondoriozko kalte-ordainak, KLaren 91.1 artikuluan finkatutako zenbatekoetan.

9. KONKURTSO-ADMINISTRAZIOA

Konkurtso Administrazioa, Merkataritza arloko Epailak izendatu ondoren, prozedura osoan esku hartuko duen konkurtsoaren nahitaezko organo bat da.

Hiru kidek osatutako organo bat da, prozedura laburtu bat betetzen denean izan ezik, eta horrelakoetan, konkurtso-administrazioa pertsona bakarrekoa da.

Lehen kasuan ondorengo kideek osatuta egongo da: 1) Jardunean gutxienez bost urteko lanbide-esperientzia duen abokatu bat; 2) Jardunean gutxienez bost urteko lanbide-esperientzia duen kontu-hartzaile, ekonomialari edo merkataritzako tituludun elkargokide bat; 3) Kreditu arruntaren edo bermatu gabeko pribilegio orokorreko kredituaren titularra den hartzekodun bat (Epailak izendapena egingo du baldintza horiek biltzen dituzten hartzekodunak daudela egiaztatu bezain laster (KLaren 27. artikulua).



Merkataritza arloko Epaileak izendapena jakinarazi behar die izendatutakoei, eta adierazi behar die jakinarazpena jaso eta hurrengo bost eguneko epearen barruan, Epaitegi honen aurrean agertu beharko dutela eta beren kargua onartzen dutela edo ez adierazi.

28. artikuluan zerrendatzen diren ezgaitasun, bateraezintasun edo debekurako arrazoi jakin horiek daudenean ezesteaz dihardu KLaren 33. artikulua, eta konkurtso-adierazpena eskatzeko legitimazioa dutenetatik edozeinek eska dezake (KLaren 33. art.).

Garrantzitsua da azpimarratzea konkurtso-administratzaileek beren ordainsariaren inguruko (arantzel baten bidez) eta kargua betetzean eska dakiekeen arduraren inguruko erregimen bat dutela, eta merkataritza-sozietateetako administratzaileen antzeko erantzukizun-erregimen baten mende daudela (KLaren 34tik 36ra bitarteko artikulua). Konkurtso-administratzaileen funtsezko eginkizunak hauek dira:

- Zordunak bere ondare-ahalmenak erabiliz egindako ekintzetan esku hartzea edo horiek erabiltzea esekita geratu denean hura ordezkatzera (nahitaezko konkurtsoa).
- Konkurtso-administrazioaren txostena idaztea, masa aktiboaren inbentarioarekin eta hartzekodunen zerrendarekin batera. Zordunaren ondare-egoerari buruzko “*azalpen zioduna*” egin beharko du.
- Hala egokituz gero, aurkeztutako hitzarmen-proposamenen inguruko informazioa ematea.

Jarduera guzti hauetatik arreta berezia eskaini behar zaio konkurtso-administratzaileen txostena egiteari, bi hilabeteko epearen barruan egin behar baita hura onartzen denetik, baina epe hori beste hilabete batez luzatzea erabaki dezake epaileak kasu zailtan, esaterako, hartzekodun ugariri eragiten dionean.

Horri begira, nabarmendu beharra dago, Konkurtsoen Erregistro Publikoan eta epaitegiko iragarki-taulan argitaratu ondoren, edozein interesatuk hartzekodunen zerrendaren eta inbentarioaren aurka egin ahal izango du konkurtso-administrazioaren txostena aurkeztu dela jakinarazten denetik hamar eguneko epearen barruan, konkurtso-intzidente izeneko izapideen bitartez. (KLaren 96.3 artikulua).



10. HARTZEKODUNEN BATZARRA

Hartzekodunen batzarrak, konkurto-administrazioak prestatutako zerrendaren behin betiko testuan sartuta dauden hartzekodunek osatua, aurreko legegintzaldian zuen garrantzia galdu du, hitzarmen-fasean bakarrik eratu behar delako baldin eta aldez aurreko hitzarmen-proposamen bat onetsi ez bada, idatzitako atxikipen-sistemaren bitartez, edo hitzarmena idatziz izapidetu ez bada (ikus aurrerago *HITZARMENA* atala).



Batzarrean ez dute botoa emateko eskubiderik izango ez mendeko hartzekodunek eta ez konkurto-adierazpena egin ondoren beren kreditua eskuratu dutenek ere (eskuraketa titulu unibertsalaren bitartez edo nahitaezko diru-bihurketaren ondorioz egin ezean).

11. KREDITUAK JAKINARAZTEA

Hartzekodunek konkurto-administrazioari jakinarazi behar diote kredituak dituztela, konkurtoaren adierazpen-autoa Estatuko Buletin Ofizialean (EBO) argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabete bateko epearen barruan.

Hala, aipatutako auto horrek berariaz jaso behar du hartzekodunei egindako deialdia, adierazitako epe horren barruan konkurto-administrazioari jakinarazi diezaioten kredituak dituztela. Kredituen jakinarazpenari buruzko arauak KLaren 85. artikuluan ezarri dira.

12. KONKURTSOAREN FASEAK ETA SEKZIOAK

Konkurto-prozedura bi fasetan garatzen da: *fase erkide* bat dago, eta honek, *hitzarmen-fase* bat edo, bestela, *likidazio-fase* bat eragin ahal izango du.

Arau orokorrekiko salbuespen gisa, ez da hitzarmen-faserik zabalduko aldez aurreko hitzarmen-proposamen bat onetsi den kasuetan, eta fase erkidearen izapide-aldian bertan gauzatuko da hori.

Fase erkidea konkurto-adierazpenaren Autoarekin batera zabaltzen da, eta horren barruan sartzen dira konkurto-adierazpenari, konkurto-administrazioari, konkurto-adierazpeneko hautagaiei eta konkurto-administrazioaren txostenari eta konkurtoaren masa aktibo eta pasiboen zehaztapenari buruz legean aurreikusitako jarduerak (KLaren 21.2 artikulua).



Fase erkidea inbentarioaren eta hartzekodunen zerrendaren aurka egiteko epea mugaeguneratu eta hurrengo hamabost egunen epean amaituko da baldin eta inpugnaziorik aurkeztu ez bada edo, aurkeztu bada, agiri horien behin betiko testuan epaitegiko idazkaritzan ikusgai jartzen diren egunean (KLaren 98 artikulua).Epaileak autoa emango du fase erkideari amaiera emanaz, eta hitzarmen-fasea (KLaren 11. artikulua) edo likidazio-fasea (KLaren 142.2 artikulua) zabaldu dela aginduz, bidezkoa denaren arabera, eta bi kasuetan Bosgarren Sekzioa irekiko da.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da batzuetan, hitzarmen-faseari ekin arren ere, bidezkoa izango dela likidazio-fasea irekitzea, hitzarmen-proposamenik aurkezten ez den kasuetan edo bat ere onartzen ez den kasuetan, edo Hartzekodunen Batzarrak onartzen ez duenean edo epai-ebazpen irmo baten arabera hitzarmena baztertzen denean, edo epai baten bidez hitzarmena baliogabea dela edo bete ez dela adierazten denean (KLaren 143. artikulua), eta zordunak hitz emandako betetzerik ez dagoela dakien kasuetan (KLaren 142.3 artikulua).

Atalak:

Ikusi dugu konkurtso-adierazpenaren autoan bigarren, hirugarren eta laugarren atalak osatu daitezela agintzen dela.Izan ere, konkurtso-prozedura sei ataletan banatua dago (KLaren 183. artikulua):

- 1) *Lehenengo Atala.Konkurtso-adierazpena, kautela-neurriak eta fase erkidearen ebazpena, eta horren barruan sartuko da “konkurtso-adierazpenarekin, kautela-neurriekin, fase erkidearen azken ebazpenarekin, konkurtsoaren amaierarekin eta, hala denean, konkurtso hori berriro irekitzearekin”* zerikusia duen guztia.
- 2) *Bigarren Atala.Konkurtso-administrazioa, “konkurtsoaren konkurtso-administrazioarekin, konkurtsoko administratzaileen izendapen eta estatutuarekin, horien ahalmenen eta egikaritzaren zehaztapenarekin, kontu-arrazoiak ematearekin eta, hala denean, konkurtsoko administratzaileen erantzukizunarekin”* zerikusia duen guztia.
- 3) *Hirugarren Atala.Masa aktiboa zehaztea, hartzekodunei ordaintzea eta masaren zorrak, “masa aktiboaren zehaztapenarekin, itzulketa- eta urripen-akzioen erabaki eta exekuzioarekin, masa aktiboko ondasun eta eskubideak diru bihurtzearekin, hartzekodunei ordaintzearekin eta masaren zorrekin”* zerikusia duena.



- 4) *Laugarren Atala.Masa pasiboa zehaztea, “masa pasiboaren zehaztapenarekin, eta kredituak komunikatu, aitortu, mailakatu eta sailkatzearekin” zerikusia duena.Horren barruan sartuko dira, halaber, pieza banandu batean “zordunaren aurkako epaiketa adierazleak, baldin eta konkurtsora pilatu badira, eta konkurtsopekoaren aurka hasi edo jarraitzen diren exekuzioak”.*
- 5) *Bosgarren Atala.Hitzarmena edo likidazioa, eta horren barruan sartuko da “hitzarmenarekin edo, hala denean, likidazioarekin zerikusia duena”.*
- 6) *Seigarren Atala.Konkurtsorearen kalifikazioa, “konkurtsorearen kalifikazioarekin eta horren ondoreekin zerikusia duena”.*

13. MASA AKTIBOAREN OSAKETA.Deuseztatzeko edo itzultzeko ekintzak

Zordunaren ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioak osatzen du masa aktiboa (KLaren 76. artikulua).Masa hori “*konkurtsorearen interesetarako modurik komenigarrienean*” administratu behar da, eta ezin izango da ondasunik besterendu ez kargatu epaileak hitzarmena onetsi arte edo likidazioa ireki arte (KLaren 43.1 eta 2 artikulua).Salbuespen bakarra lanbide- edo enpresa-jarduerak berezkoak dituen xedatze-egintzetan izango da (KLaren 44. artikulua).

Masa aktibo hori osatuko duten ondasunei dagokienez, kontuan hartu behar da Konkurtso Legeak zenbait bereizketa-ekintza aurreikusten dituela konkurtsopekoaren jabetzakoak ez diren ondasunak masa aktibotik erauzteko (KLaren 80 eta 76.3 artikulua), eta ezkontideen ondasunen erregimenari erreparatu behar zaiola konkurtsopekoa irabazpidezko erregimenean ezkonduetako pertsona denean (KLaren 77. artikulua).Ondasunen banantze-erregimenaren kasuan, presuntzio muzianoa izeneko finkatzen da (KLaren 78. artikulua).

Masa aktiboa behin betiko osatzeko orduan funtsezkoak dira hutsalketa-ekintzak edo itzulketa-akzioak, KLaren 71. artikuluan arautuak. Zordunak konkurtso-adierazpenaren aurreko bi urteetan masarentzat kaltegarri diren egintzak hutsaltzea da ekintza hauen helburua, baina horretarako ez da beharrezkoa iruzurrezko asmoak izatea.

Horien erregimen juridikoa hau da:

- ✓ Ezin daitezke exekutatu zordunak “normaltasunez” gauzatutako lanbide- edo enpresa-jardunaren ohiko egintzak (KLaren 71.5 artikulua).



- ✓ Ondare-kaltearen “iure et de iure” presuntzioak finkatu dira (ez dute kontrako frogarik onartzen), doako izaera duten xedapen-egintzetan edo konkurto-adierazpena baino geroagoko mugaeguna duten betebeharrak ordaintzean edo mugaeguneratzean (KLaren 71.2 artikulua).
- ✓ “iuris tantum” presuntzioak finkatzen dira (aurkako frogak onartzen dituzte), esate baterako, konkurtopekoarekin harreman berezia duten pertsonen aldeko kostu bidezko xedatze-egintzak (KLaren 71.3 artikulua).



Konkurtoaren epaileak, epai baten bidez, egintza hori ontzat joz gero, aurka egindako egintza eragingabea dela adierazten badu eta prestazioak itzultzeko edo, hala denean, horren xede diren ondasun edo eskubideen balioa emateko kondena ezartzen badu (KLaren 73. artikulua).

14. MASA PASIBOA. Kredituen sailkapena

Konkurtopeko zordunaren aurkako kredituek osatzen dute masa aktiboa, eta azken batean, zordunaren hartzekodunen zerrenda izango da. Hori zehazteko prozedura hauxe da:

KLaren 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz hartzekodunek bidezko kreditu-jakinazpena egin ondoren, konkurto-administrazioak zehaztu behar du horiek masa pasiboaren barruan sartuko diren ala kanpoan geratuko diren, eta aitortu eta sailkatu egingo ditu.

Baina konkurto-administrazioak, halaber, konkurtopekoaren merkataritza-liburuetatik edo dokumentaziotik ondorioztatzen diren beste kreditu batzuk ere kontuan hartu behar ditu, eta nahitaez barneratu behar ditu laudo edo epai batek aitortutako kredituak, administrazio-ziurtagirien bidez aitortuak, inskribatutako berme errealarekin ziurtatuak, eta zordunaren liburu edo agirietatik ondorioztatzen diren edo konkurtoaren dokumentazioan ageri diren langileen kredituak. Legeak arau bereziak finkatzen ditu baldintza suntsiarazlearen mendeko kredituetarako, eta baldintzapeko kreditutzat hartuko dira (KLaren 87.1 artikulua).

15. KONKURTSO-KREDITUEN SAILKAPENA

Konkurto Legeak honakoak bereizten ditu:



- 1) Kreditu pribilegiatuak (pribilegio berezia edo pribilegio orokorra dutenak).
- 2) Kreditu arruntak.
- 3) Mendeko kredituak.

Arlo honetan “*masaren kontrako kredituak*” daudela azpimarratu behar da, KLaren 84. artikuluan aipatuak, “*konkurtsokredituetatik*” bereziak, haiek *aurrekengarritasun-printzipioaren* mende baitaude (KLaren 154. artikulua). Baldintza etengarrien mendeko kreditu “*kontingenteak*” deiturikoek ere garrantzi berezia hartzen dute.

15.1. Kreditu pribilegiadunak

Kreditu pribilegiadunak bi kategorien arabera sailkatzen dira: *pribilegio berezia duten kredituak*, ondasun edo eskubide jakin batzuei eragiten dietenak, edo *pribilegio orokorra duten kredituak*, konkurtsopekoaren ondare osoari eragiten dietenak.

a) Pribilegio berezia duten kredituak, berme errealei atxikitako ondasun eta eskubideen kontura.

Kreditu hauen ordainketa atxikitako ondasun edo eskubideen kontura egingo da (esate baterako, hipoteka edo bahitura bidez), eta horiek bananduta zein taldeka exekuta daitezke (KLaren 155.1 artikulua).

Nolanahi ere, administrazioak titularrei jakinarazi diezaieke masaren kontura ordaintzea erabaki duela, eta horrek, atxikitako ondasunak exekutatzea eragotziko du (KLaren 56.1 artikulua xedatutako epeak igarotzen ez diren bitartean edo konkurtso-adierazpena baino lehen hasitako exekuzioaren etendurak dirauen bitartean).

Atxikitako ondasunen salmenta baimentzeko aukera ere aurreikusten da, kargak dirauela, eta eskuratzzailea konkurtsopeko zordunaren betebeharrean subrogatzen dela, masa pasibotik salbuetsita geratuz (KLaren 155.3 artikulua).

Ondasunak diru bihurtzea enkante bidez egingo da, salbu eta konkurtso-administrazioaren eskaeraren ondoren epaileak zuzeneko salmenta egiteko baimena ematen badu itundutako gutxieneko prezioa baino handiagoa eskura ordaintzea eskaintzen duenari (KLaren 155.4 artikulua).



b) Pribilegio orokorra duten kredituak.

Masa aktibotik masaren aurkako kredituak ordaintzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak kendu ondoren, pribilegio orokorra duten kredituak ordaintzeari ekingo zaio pribilegio bereziari atxikita ez dauden ondasunen kontura (edo geratzen den soberakinaren kontura), KLaren 91. artikuluan zerrendatzen diren hurrenkeraren arabera, eta beharrezkoa izanez gero, zenbaki ordinal bakoitzaren barruan lainera (KLaren 89.2 artikulua).

Pribilegioa duten kredituen artean ondorengoak ditugu:

- ✓ Pribilegio berezirik ez duten alokairuen ondoriozko kredituak, diru-zenbateko jakin batean; kontratuak azkentzearen ondoriozko kalte-ordainak, diru-zenbateko jakin batean; lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren ondoriozko kalte-ordainak; eta lan-osasunaren arloko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko prestazioen gainordainak, horiek konkurtso-adierazpenaren aurretik sortu direnean.
- ✓ Konkurtsopekoak legezko betebeharraren ondorioz zor dituen tributu-atxikipenak eta Gizarte Segurantzakoak.
- ✓ Inoren mendekoa ez den lan pertsonalaren ondoriozko kredituak eta jabetza intelektualak babestutako lanaren ustiapen-eskubideak lagatzeagatik egileari dagozkionak, baldin eta horiek konkurtso-adierazpena egin baino sei hilabete lehenago sortu badira.
- ✓ Tributu kreditarioak eta Zuzenbide publikoko gainerakoak, bai eta pribilegio berezia ez duten eta gorago aipatutako pribilegio orokorra ez duten Gizarte Segurantzako kredituak (horien zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamarreraino), eta bermatu gabeko kalte pertsonalak.
- ✓ Kontratutik kanpoko erantzukizun zibilaren ondoriozko kredituak; eta
- ✓ Konkurtso-adierazpena eskatu duen hartzekodunaren titulartasunpeko kredituak, mendekoak ez badira, euren zenbatekoaren laurdeneraino.

15.2. Kreditu arruntak

Kreditu pribilegiadunak edo mendeko kredituak ez direnak dira kreditu arruntak. Masa aktiboko ondasun eta eskubideen kontura egingo da horien ordainketa, masaren aurkako kredituak eta kreditu pribilegiadunak ordaindu ondoren (salbuespen gisa aldeztu aurretik diru bihurtzea baimendu ahal izango da, epailearen iritziz aipatutako kreditu horien ordainketa nahikoa estalita dagoenean) (KLaren 89.3 artikulua).



Lainean ordainduko dira eta masa aktiboaren likideziaren arabera. Konkurtso-administrazioak kreditu bakoitzaren balio izendatuaren ehuneko bosta baino txikiagoko zenbatekoa duten kuotak eman ahal izango ditu (KLaren 157. artikulua).

15.3. Mendeko kredituak

Mendeko kredituak izango dira ordaintzen azkenak, hala egokituz gero, kreditu arruntak erabat ordaindu ondoren (KLaren 158. artikulua). Horien ordainketa hurrenkera honi jarraiki egingo da eta, behar izanez gero, kategoria edo zenbaki bakoitzaren barruan lainean, KLaren 92. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik:

- 1) Berandu komunikatu diren kredituak;
- 2) Kontratu-itun baten mendeko kredituak;
- 3) Orotariko korrituen ondoriozko kredituak, berandutzakoak barne, berme errealak duten kredituei dagozkienak salbu, kasuan kasuko berme errealaren zenbatekoraino.
- 4) Isunen eta beste diruzko zehapenen ondoriozko kredituak;
- 5) Zordunarekin lotura berezia duten pertsonen titulartasunpeko kredituak;
- 6) Epaia batek adierazi duenean ekintza aurkaratua norbaitek gaitzusteaz jardun duela, konkurtso-hutsalketaren ondorioz horren mesederako diren kredituak;

Elkarrekiko betebeharrak dituzten kontratuetatik eratorritako kredituak (KLaren 61, 62, 68 eta 69. artikulua), epaileak egiaztatzen duenean, konkurtso-administrazioak aurretiaz txostena egin ondoren, hartzekodunak behin eta berriz oztopatzen duela kontratua betetzea, konkurtsoaren interesaren kaltetan.

Zordunarekin lotura berezia duten pertsonen kredituei buruzko aipamena (KLaren 93. artikulua) azpimarratu behar da, eta horiek mendeko kreditutzat kalifikatzen ditu. Konkurtsopekoa pertsona naturala denean pribilegio berezirik ez duten alokairu-kredituak salbuesten ditu arauak. Zordunarekin lotura berezia duen pertsonak jarritako fidantzari KLaren 87.6 artikulua aplikatzen zaio.

15.4. Kreditu kontingenteak

Konkurtso Legeak kreditu kontingentetzat hartzen ditu baldintza etengarrien mendekoak eta auzigaiak, eta horiek berezko zenbatekorik gabe aitortuko dira. Kontingentetzat hartuko dira, halaber, aurretiaz zordun nagusiaren ondarean eskusiorik



egin gabe konkurtsopekoaren aurka ordaindu ezin daitezkeen kredituak, harik eta hartzekodunak konkurtso-administrazioari behar bezala egiaztatu arte eskusioa agortu duela; kasu horretan, baieztatzen da konkurtsoan kreditua aitortu dela, geratzen den saldoaren zenbatekoarekin (KLaren 87.5 artikulua).

Horien titularrek esekita edukiko dituzte atxikipen, boto eta kobrantzarako eskubideak, nahiz eta horiek epai baten bidez aitortzen zaizkienean (epai irmoa edo exekutatu daitekeena), horien zenbatekoari eta kalifikazioari dagokion titulartasuna izango duten.

Konkurtsoko epailearen ustez kreditu kontingentea baieztatu ahal bada, alderdi batek hala eskatuta, epaileak kautela-neurri moduan ezarri ahal izango du masaren kontura hornidurak eratzea, alderdiek fidantzak ematea eta egoki deritzon beste edozer egitea (KLaren 87.4 artikulua).

16. MASAREN AURKAKO KREDITUAK

Masa pasiboa osatuko dutekonkurtsopekoaren aurkako kredituek, baldin eta masaren aurkako kreditutzat jo ez badira.

Kreditu hauek, beraz, ez dira konkurtsoko kredituak izango, baina *aurrekengarritasun* printzipioaren arabera diru bihurtuko diren lehenak izango dira. Hau da, konkurtso-administrazioak masa aktibotik kenduko ditu kreditu horiek ordaintzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak, konkurtso-kredituak ordaintzeari ekin aurretik (pribilegio berezia dutenak izan ezik).

Horien mugaegunetan ordainduko dira, konkurtso-egoera edozein izanik ere. Izan ere, horietako batzuk (konkurtsoren aurreko azken hogeita hamar lanegunetako alokairuaren ondoriozko kredituak) berehala ordainduko dira.

Nolanahi ere, ezin izango da exekuziorik abiarazi horiek ordaintzeko harik eta hitzarmen bat onartu, likidazioa ireki edo konkurtso-adierazpena egin denetik urtebete igaro arte.

Masaren ondasun eta eskubideak nahikoak ez badira, lortutakoa masaren hartzekodun guztien artean banatuko da beren epemugen hurrenkeraren arabera.

Masaren aurkako kreditutzat hartzen dira KLaren 84.2 artikuluan aipatzen direnak, hots:



- 1) Konkurtso-adierazpenaren aurreko azken hogeita hamar lanegunetako alokairuen ondoriozko kredituak, lanbidearteko gutxieneko alokairuaren bikoitza gainditu gabe;
- 2) Ondokoagatik sortutako gastu eta kostu judizialak: konkurtsoa eskatu eta adierazteagatik, kautela-neurriak hartzeagatik, Lege honetan ezarri ebazpenak argitaratzeagatik, konkurtsopekoari zein konkurtso-administrazioari lagundu edo horiek ordezkatzegatik, prozeduraren nahiz horren intzidenteen izapideak egin bitartean hitzarmena eragingarria izan arte, edo, bestela, konkurtsoa amaitu arte; ez dira halako kreditutzat hartzen, emandako ebazpenen kontrako errekurtsoen ondorioz sortutako gastuak, errekurtso horiei gaitziritzia eman zaienean erabat edo zati batez, eta kostuetarako kondena esanbidez ezarri denean;
- 3) Lege honetan xedatutakoaren arabera, masaren intereserako epaiketan aurrera egin edo hori hasten duen zordunari, konkurtso-administrazioari zein hartzekodun legitimatuei laguntzeagatik nahiz horiek ordezkatzegatik eragindako kostu eta gastu judizialak, atzera egin, amore eman, transakzioa egin edo zorduna bananduta defendatzearen inguruan ezarritakoa izan ezik, eta, hala denean, legeak ezarritako muga kuantitatiboak gainditu gabe;
- 4) Zordunaren mantenu-kredituak, eta zordun horrek mantenua emateko lege-eginbeharra nori begira izan eta pertsona horien mantenu-kredituak, betiere lege honek halakoen jatorriari eta zenbatekoari buruz xedatutakoa aintzat hartuta; halaber, aipatu prozesuetatik batean, lehen auzialdiko epaileak konkurtso-adierazpenaren ostean; emandako ebazpenean konkurtsopekoaren kontura utzi dituen mantenu-kredituak, ebazpen horretan zehaztu norainokoaren arabera;
- 5) Konkurtso-adierazpenaren ostean zordunak lanbide- edo enpresa-jarduera betetzearen ondorioz sortutako kredituak, lan-kredituak barne; azken horietan, kaleratzearen edo lan-kontratuak azkentzearen ondoriozko kalte-ordainak jasotzen dira, bai eta lan-osasunari buruzko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko prestazioen gainordainek ere, epaileak lanbide- edo enpresa-jarduera amaitzea erabaki arte, hitzarmena onetsi arte, edo, bestela, konkurtsoa amaitu dela adierazi arte.
- 6) Konkurtsopekoaren kontura sortutako prestazioen kredituak, baldin eta horiek elkarrekiko betebeharrak betetzear dituzten kontratuei buruzkoak badira eta konkurtso-adierazpena egin ondoren indarrean jarraitzen badute, bai eta kontratua nahita suntsiarazteagatik edo konkurtsopekoak betebeharra ez betetzeagatik sortutako itzultze- zein kalteordain-betebeharren ondoriozko kredituak ere;
- 7) Pribilegio berezia duten kredituak ordaintzen direnean ondasun eta eskubide ukituak diru bihurtu gabe, kontratuak birgaitzen direnean, botatzea ezerezten denean edo lege honetan ezarri beste kasuetan, zor diren zenbatekoei dagozkien kredituak, eta etorkizunean konkurtsopekoaren kontura eman beharreko zenbatekoei dagozkienak;



- 8) Zordunak gauzatu egintzen konkurtso-hutsalketan horrek jasotako kontraprestazioak itzultzearen ondoriozko kredituak, salbu eta epaian kreditu honen titularrak gaitzusteaz jardun duela antzeman denean;
- 9) Konkurtso-administrazioak prozeduran zehar baliozkotasunez hartutako betebeharren ondoriozko kredituak, edo administrazio horren esku-sartzearen mende dagoen konkurtsopekoak horren baimen edo adostasunarekin hartu dituen betebeharren ondoriozkoak;
- 10) Legezko betebeharren ondoriozkoak edo konkurtso-adierazpenaren ostean, eta hitzarmena eragingarria izan arte, edo, hala denean, konkurtsoa amaitu arte, konkurtsopekoak duen kontratutik kanpoko erantzukizunaren ondoriozko kredituak;
- 11) Lege honek esanbidez izaera hori zein kredituri eratxiki eta kreditu horiek.

17. KONKURTSOAREN SOLUZIOAK

Hartzekodunen konkurtsoaren soluzioak bi dira: hitzarmena edo likidazioa.

17.1. Hitzarmena

Konkurtso Legeak hitzarmena aurreikusten du konkurtsoari amaiera emateko ohiko modutzat. Gehiengoan (hartzekodunen) hitzarmen bat da, epailearen kontrolpean dagoena, eta KLaren 98tik 141era bitarteko artikuluetan arautua dago.

Bi eratako hitzarmenak aurreikusten dira: aurretiaz aurkeztua eta hitzarmen arrunta, konkurtsoaren fase erkidea amaitu ondoren negoziatua. Konkurtso Legearen azken erreformak aldatu egin du aurretiazko hitzarmen-proposamenaren erregimena eta arautu egin du hitzarmen arrunterako proposamenak idatziz nola izapidetu daitezkeen.

17.1.1. Aurretiazko hitzarmen-proposamena

Konkurtsoko epailearen aurrean aldez aurreko hitzarmen-proposamen bat egiteko aukera aurreikusten du Legeak. Likidazioa eskatu ez duen eta lege-debekuen eraginpean ez dagoen zordunak aurkeztu dezake, *borondatezko konkurtsoa eskatu edo nahitaezko konkurtsoa adierazten denetik kredituak komunikatzeko epea azkendu arte*.



Kontuan izan zordunak konkurtsoa eskatzeko bi hilabeteko epea hiru hilabetera zabalduko dela baldin eta hartzekodunekin aldez aurreko hitzarmen bat erdiesteko negoziazioak hasi badira eta Merkataritza arloko Epaileari jakinarazi bazaio. Hiru hilabete horiek igaro ondoren, hitzarmenik erdietsi ez bada, zordunak hilabete bat gehiago izango du konkurtsoa eskatzeko.

Proposamenarekin batera edozein eratako hartzekodunen atxikipenak aurkeztuko dira, baldin eta horien kredituak zordunak aurkeztutako pasiboaren bosten bat baino handiagoak badira. Proposamen horrekin batera borondatezko konkurtsoaren eskaera aurkezten denean, aski izango da atxikipen horiek pasiboaren hamarren bat izatea (KLaren 106.1 artikulua).

Epaileak izapidetza onartzeari buruz ebatziko du borondatezko konkurtso-adierazpenaren autoan, eta hala dagokionean, hura aurkeztu eta hurrengo hiru eguneko epearen barruan.

Onartu ondoren, konkurtso-administrazioak hamar eguneko epean ebaluatuko du proposamena, ordainketa-plana eta bideragarritasun-plana kontuan izanik. Ebaluazio hori aldekoa bada, administrazioaren txostenari lotuko zaio, eta aurkakoa bada, ahalik eta eperik laburrenean aurkeztuko da (KLaren 107. artikulua). Proposamen horrek lanbide-jarduerarekin edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeak dakartzan baliabideak edukitzea aurreikusten badu, eta hala izanez gero, bideragarritasun-plan batekin batera joan beharko luke, legeak epaileari aukera ematen dio, arrazoiak azalduz gero, aurreikusitako kita edo itxaronaldiaren mugak gainditu daitezela baimentzeko.

Epaileak hitzarmena onartzeko, aipatutako atxikipen-sistema horri jarraituko zaio, eta epaileak egiaztatuko du gehiengoa, emaitza probidentzia bidez ezagutaraziz. Bestela, hitzarmen- edo likidazio-fasea zabalduko du. Gero, hitzarmenaren onespeneren aurka egiteko bost eguneko epea igaro baldin bada horrelakorik egin gabe, epaileak hura onesteko epaia emango du eta amaiera emango dio fase erkideari. Epai hori konkurtsopekoari, konkurtso-administrazioari eta prozeduran aurkeztu diren alderdi guztiei jakinarazi behar zaie, eta egoki den unean argitaratu.

Azkenik, hitzarmena onesten ez baldin bada, xedatutakoaren arabera, hartzekodunak adierazi egin beharko du proposamen horri eusten dion, hartzekodunen batzarraren mende jar dadin, edo likidazioa eskatu nahi duen.

17.1.2. Hitzarmen arrunta. Ondorengo arauak ezartzen dira:

a) Irekiera eta izan dezakeen idatzizko izapidetza. Merkataritza arloko Epaileak auto bat emango du fase erkideari amaiera emanez, inbentarioaren eta hartzekodunen zerrendaren aurka egiteko epea amaitu eta hurrengo hamabost



egunen barruan, eta hitzarmenaren fasea zabaldu eta bosgarren saila osatu dadila aginduko du baldin eta hartzekodunak likidaziorik eskatu ez badu eta aurretiazko proposamena onetsi ez bada.

Auto horretan hartzekodunen batzarrerako deialdia egin dadila aginduko da, eta bilera horretarako tokia, eguna eta ordua finkatuko da (KLaren 111. artikulua). Nolanahi ere, hartzekodunen kopurua 300dik gora baldin bada, autoak hitzarmena idatziz izapidetu dadila xedatu ahal izango du, eta atxikipenak edo aurkako botoak aurkezteko azken eguna finkatuko du, legean aurreikusitako moduan (hitzarmena idatziz izapidetzeari buruzko 103 eta 115. bis artikulua).

b) Hitzarmen-proposamenak aurkezteko legitimazioa. Pasiboaren bosten bat gainditzen duten hartzekodunek edo zordunak berak aurkeztu ditzakete hitzarmen-proposamenak.

c) Hitzarmenaren edukia. KLaren 100. artikulua jorratzen du gai hau, eta kita- eta/edo itxaronaldi-proposamenak edo bietarakoak aurreikusten ditu. Proposamen alternatiboak aurkeztu ahal izango dira KLaren 100.2 artikulua dioenari jarraiki. Hitzarmenaren edukiak izango dituen mugak KLaren 100 eta 101. artikuluetan finkatzen dira, eta 2009ko martxoan egindako erreformaren bidez aldatu dira.

Kreditu arrunten kasuan, kita-proposamenek ezin dezakete horietako bakoitzaren zenbatekoaren erdia gainditu, eta itxaronaldi-proposamenek ezin daitezke bost urtetik gorakoak izan hitzarmena onesten duen epailearen ebazpena irmoa den unetik. Legeak, "ekonomian eragin berezia izan dezaketen" enpresen kasuan, salbuespen gisa onartzen du epaileak muga horiek gainditu daitezela baimentzea.

Proposamenaren barruan hartzekodun guztientzako edo mota bat edo batzuentzako hartzekodunentzako proposamen alternatiboak bil daitezke (kredituak akzio, partaidetza edo sozietate-kuota edo partaidetza-kreditu bihurtzeko eskaintzak ere barne).

Hitzarmen-proposamenean jaso ahal izango dira, berebat, eskualdaketa-proposamenak, bai konkurtsopekoaren enpresa- edo lanbide-jarduerari lotutako ondasun eta eskubide guztiak eskualdatzeko, bai pertsona fisiko edo juridiko zehatzaren ekoizpen-unitate jakin batzuk eskualdatzeko. Proposamenetan nahitaez agertuko da eskuratzailleak aurrera egingo duela ukitutako ekoizpen-unitateei dagokien enpresa- edo lanbide-jarduerarekin, eta hartzekodunen kredituak ordainduko dituela, hitzarmen-proposamenean adierazitakoaren arabera. Proposamenarekin batera ordainketa-plan bat eta, hala egokituz gero, bideragarritasun-plan bat aurkeztu beharko dira.



d) Hartzekodunen batzarra egitea. Hurrengo urratsa hartzekodunen batzarra egitea da (KLaren 116.4 artikulua) edo, hala egokituz gero, hitzarmena idatziz izapidetzea.

Puntu honetan ohartarazi beharra dago mendeko kredituek eta konkurtso-adierazpena egin ondoren eskuratutakoek ez dutela botorik (KLaren 122. artikulua). Aldiz, egoera berezia dute hartzekodun pribilegiatuek, abstentzio-eskubidea baitute (KLaren 122.2 eta 123.2 artikulua) eta botorik ematen ez badute, hitzarmenaren mende geratzen direla.

Hitzarmena onesteko, beharrezkoa da pasibo arruntaren erdiaren gehiengoa erdiestea. Dena den, aski izango da kontrako botoa ematen duena baino pasibo arruntaren zati handiago batek horren aldeko botoa ematea, baldin eta proposamena kreditu arruntak oso-osorik ordaintzea bada hiru urte baino lehenago, edo kreditu arrunt muga-eguneratuak berehala ordaintzea, ehuneko hogeia baino gutxiagoko kitarekin (KLaren 124. artikulua).

e) Epailleak hitzarmena onestea. Aurreko izapide horiek bete ondoren, beharrezkoa izango da epailleak hitzarmena onestea. Onespen horren kontrako aurkakotasuna eratu ahal izango da hamar eguneko epean; epe hori zenbatzen hasiko da epailleak egiaztatzen duenetik aurkeztutako atxikipenek hitzarmena onesteko legezko gehiengoak lortzen dituztela (aurretiazko proposamenaren edo idatzizko izapidetzaren kasuan), edo batzarra amaitu denetik, betierehitzarmenaren edukari, atxikipenen modu eta edukari, idatziz izapidetzeko arauari, batzarraren eraketari edo horrelakoak egiteari buruzko lege-arauen urratze bat gertatu bada (KLaren 128. artikulua).

Aurkakotasuna konkurtso-intzidenteen bitartez izapidetu beharko da eta hitzarmena onesten edo ukatzen duen epaiaren bidez ebatziko da, eta ez da hori aldatzeko aukerarik izango. Erabaki horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke (KLaren 129. artikulua).

f) Hitzarmena betetzeko eta amaitzeko baldintzak. Zordunak, sei hilean behin, hitzarmena betetzeari buruz informazioa emateko obligazioa du, eta dagokion txostena aurkeztu ondoren, epailleak auto bidez bete izanaren adierazpena egin dezala eskatu ahal izango du. Halaber, bete ez dela jotzen duen edozein hartzekodunek eska diezaioke epaileari ez-betetzeari adierazpena egin dezala, konkurtso-intzidente baten bitartez, eta auto hori argitaratzen denetik bi hilabeteko epean iraungiko da akzio hori. Ez-betetzea adierazten bada, hitzarmena deuseztatuta dagoela ulertuko da.

Epe hori igaro edo ez-betetzea adierazten duten akzioak baztertu ondoren, epailleak konkurtsoa amaitzeko autoa emango du, eta horri publizitate egokia emango zaio.



17.2. Konkurtsopekoaren ondarea likidatzea

Legeak xedatzen duenez, likidazioa beti soluzio *subsidiario* bat da eta hitzarmena erdiesten ez denean joko da horretara. Konkurtsopekoaren ondarea likidatzea eta hartzekodunei ordaintzea dakar, bakoitzari dagokion proportzioan, hala egokituz gero. Likidazio-fasea zordunak eskatu ondoren, ofizioz edo hartzekodun batek hala eskatuta ireki daiteke (KLaren 142 eta 143. artikulua).

a) Likidazio-eskaera. Hartzekodunak berak eska dezake likidazioa, borondatezko konkurtsoa eskatzearekin batera, inbentarioa nahiz hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko epea azkendu arte (baldin eta aurkaratzerik aurkeztu ez bada, edo horiek aurkezten diren eguna arte, betiere hitzarmen-proposamenik aurkeztu ez bada edo aurretiazko proposamena aurkeztu bada, horren izapidetza onartu ez bada), edo aurretiazko hitzarmen-proposamenari eusten ez bazaio; edo hurrengo bost egunetan hartzekodunek beren hitzarmen-proposamena aurkezten dutenetik (KLaren 113.1 artikulua), salbu eta zordunak berea aurkeztu duenean.

Halakoetan, epaileak auto bat emango du fase erkideari amaiera emanaz, eta likidazio-fasea irekiko du. Dena den, zorduna behartuta dago hori eskatzera, baldin eta agindutako ordainketak betetzea ezinezkoa dela bada. Horrelakorik egiten ez bada, edozein hartzekodunek eska dezake (KLaren 142.4 artikulua). Likidazioa ofizioz ere eska daiteke hitzarmen-proposamenik aurkezten ez denean, hartzekodunen batzarrean edo hitzarmena idatziz izapidetzean hitzarmen-proposamenik onartzen ez denean, onartutako hitzarmena epaileak baztertzen duenean, baliogabea dela adierazten denean edo epaileak ez-betetzea adierazten duenean.

b) 142.bis artikulua jorratzen du *aurretiazko likidazio-plana*, konkurtsoa luzatuz gero ondasunek edo aktiboek balioa galtzea eragotzi dezakeela, eta halaber, zordunari aukera ematen dio aurretiazko likidazio-proposamen bat aurkezteko, konkurtso-administrazioak txostena aurkeztu eta handik hamabost egunetara. Proposamen hori konkurtso-administrazioak balioetsi beharko du, eta aldaketa-proposamen bat aurkeztu ahal izango du. Epaileak auto baten bidez ebatziko du jatorrizko proposamena edo proposamen aldatua onestea edo baztertzea. Azkeneko kasu horretan, auto horrek likidazio-fasea ireki dadila ebatziko du.

c) Likidazioaren eta likidazio-eragiketen ondorioak. Likidazio-fasea ireki ondoren, konkurtsopekoaren ondare-ahalmenak gauzatu daitezela etetea jasoko du irekieraren autoak. Are gehiago, zorduna pertsona naturala izanez gero, galdu egingo du masa aktiboaren konturako mantenu-eskubidea. Pertsona juridikoa bada, sozietatearen desegitea adieraziko da eta



administratzaile edo likidatzaileak kargutik kenduko dira (KLaren 145. artikulua). Likidazioak, halaber, kreditu geroratuak aurretiaz mugaeguneratzea eta diruzkoak ez diren kredituak diru bihurtzea ekarriko du.

Likidazio-eragiketei dagokienez, konkurtso-administrazioak masa aktiboaren likidazio-plan bat aurkeztu behar du irekiera-ebazpena jakinarazi eta hurrengo 15 egunen epearen barruan, baina epe hori luzatu egin daiteke konkurtsoa konplexua izanez gero. Halaber, hartzekodunek oharrak aurkeztu ahal izango dituzte hamabost eguneko beste epe batean.

Kasu honetan, halaber, legelaria enpresen jarraitasuna sustatzen ahaleginduko da, ordezeko lege-erregelen artean zordunaren jabetzako establezimendu, ustiapen eta ondasun edo zerbitzuak ekoizteko beste edozein unitate besterentzea osotasun modura hartuz, salbu eta epaileak ez duen irizten, konkurtso-administrazioak aurretiaz txostena eginik, komenigarriagoa dela konkurtsoaren interesetarako hori aldeztu aurretik zatitzea eta modu bananduan diru bihurtzea (KLaren 149. artikulua).

Likidazioaren kasuan konkurtso-administrazioak hiru hilean behin informazioa eskaini beharko du egindako eragiketen inguruan, bere jarduerak gehiegi luzatu gabe, zeren eta bestela beren karguetatik kendu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, irekieratik urtebete igaro ondoren, edozein interesatuk eska dezake kargutik kentzea eta konkurtso-administratzaile berriak izendatzea (KLaren 153.1).

Azkenik, arestian ikusi dugunez, Konkurtso Legeak arautzen du hartzekodunei nola ordaindu, 154. eta hurrengo artikuluetan (masaren aurkako kredituak, kreditu pribilegiatuak, kreditu arruntak eta mendeko kredituak).

18. KONKURTSOAREN KALIFIKAZIOA. Konkurtso erruduna eta ezusteko konkurtsoa.

Kalifikazioaren atalaren helburua konkurtso ezustekoa edo erruduna dela adieraztea da. Erruduna dela adierazten den kasuan, epaiak identifikatu egin beharko ditu kalifikazioak eragindako pertsonak eta, hala egokituz gero, baita sopikunak ere, eta KLaren 172.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako ondorio pertsonalei eta ondare-ondorioei buruzko adierazpena egingo du.

Konkurtso Legeak konkurtsoa erruduna denean bakarrik adierazten du, eta beraz, salbuespenez, ezustekotzat kalifikatu beharko da erruduna ez den konkurtsoa.



Konkurtsoa erruduntzat kalifikatuko da “(...) zordunak, edo, halakoak izanez gero, beraien legezko ordezkariak doloz edo erru larriz eragin edo areagotu dutenean kaudimengabezia, eta, pertsona juridikoen kasuan, horien zuzenbideko edo egitezko administratzaile edo likidatzaileek jardun dutenean horrela” (KLaren 164.1 artikulua).

Konkurtso Legeak aurkako frogarik onartzen ez duten presuntzio batzuk finkatzen ditu (*iure et de iure*) 164.2 artikuluan, eta aurkako frogak onartzen dituzten beste presuntzio batzuk (*iuris tantum*) 165. artikuluan.

19. KONKURTSO-PROZEDURAKO ERREKURTSOAK. Konkurtso-intzidentea

Konkurtso Legeak epaileen erabakien aurkako errekurtsu-sistema berezi bat finkatzen du.

Konkurtso-adierazpenaren autoaren aurka, zuzenbidearen araberako interesa egiaztatzen duenak, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango du Lurralde Entzutegi eskudunaren aurrean, eta ez du etendura-izaerarik izango.

Idatzi baten bidez prestatu behar da errekurtsua eta adierazpena egin duen Epaitegiaren aurrean aurkeztuko da bost eguneko epearen barruan, agertu direnei hura jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta iragarkiaren azken argitalpenetik hasita legitimazioa duten gainerakoentzat.

Adierazpen-autoari buruzko gainerako aipamenen aurka berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango da dagokion Epaitegiari zuzendutako idatziaren bitartez bost eguneko epean, gorago adierazi moduan kontaktzen hasita.

Berraztertze-errekurtsuetan edo konkurtso-intzidentetan aztertutako gaiak berregiteari begira gora-jotzerik hurbilenean aztertu ahal izatea fase erkideari amaiera ematen dion epailearen ebazpenaren mende dago (KLaren 98.2 artikulua). Baina konkurtso-prozeduran prozesu-instituziorik garrantzitsuena konkurtso-intzidente deiturikoa da.

Konkurtso-intzidentea adierazpen-prozesu berezia da, berezko garrantzia duena eta konkurtsoko Epailearen aurrean bideratzen dena. Bere aplikazio-eremua zehazteari dagokionez, “*konkurtsuan arazoak sortu badira eta horiek lege honetan ez badute zehaztuta beste izapidetzarik, konkurtso- intzidentearen bidetik gauzatuko dira*” (KLaren 192. artikulua). Hau da,



horren helburua hartzekodunen konkurtsoa izapidetzen den bitartean sor daitekeen edozein intzidentzia edo gai garrantzitsu ebaztea da, baldin eta Konkurtso Legeak ez badu beste alternatibarik edo aukerarik aurreikusten horrelakoak ebazteko.

Prozesu-bide honen bitartez, horren xedearekin loturik egoteagatik konkurtso-prozeduratik eratorzen diren gaiak ez ezik, konkurtsoko Epailearen eskumenekoak diren epaiketa adierazleak ere izapidetuko dira (KLaren 50.1 artikulua), eta gauzatzeko dauden epaiketa adierazleak ere metatu ahal izango dira (KLaren 51.1 artikulua), konkurtso-prozesutik kanpoko kasuak izan arren Konkurtso Legearen xedapenei jarraiki konkurtso-intzidenteen bitartez izapidetuko direnak.

Konkurtso-intzidentean parte hartzen duten alderdiei dagokienez (KLaren 193. artikulua), Konkurtso Legeak xedatzen du *alderdi demandatu* direla demanda zein pertsonaren kontra jarri eta pertsona horiek (“baita auzi-jartzaileak eskatutakoaren aurkako jarrerari eusten diotenak ere”).

Beste alde batetik, konkurtsoan behar bezala bertaratutako pertsonetatik edozeinek “autonomia osoz” esku hartu ahal izango du konkurtso-intzidentean, hori sustatu duen alderdiari edo aurkakoari *lagunduz*.



2.- KONTSUMITZAILEA HARTZEKODUN GISA HARTZEKODUNEN KONKURTSO BATEAN

Konkurtsu-prozeduraren oinarrizko kontzeptuak ezagutu ondoren, kontratu egin duen eta haren hartzekodun den erakundearen kaudimen-gabeziagatik eraginda gertatu den kontsumitzaileak ezagutu behar dituen gai batzuk jorra ditzakegu orain.

Ohartarazi behar da Konkurtso Legeak ez dituela egoki jasotzen eragindako kopuru handi bat ez dagoen konkurtsoetan aplikatu beharreko arauak. 3/2009 Errege Dekretu Legeak ekarritako erreformak hitzarmena prozedura idatzi baten bitartez izapidetzeko aukera ahalbidetu du, baina neurri hori ez da aski horrelako konkurtso “handiek” berekin dituzten arazo guztiei irtenbide bat emateko. Konkurtso Legeak ez du argitzen, halaber, zertan esku har dezaketen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek beren bazkideak defendatzeko orduan.

1.- KONKURTSOPEKOAREN HARTZEKODUN GISA KONTSUMITZAILEAK DUEN EGOERARI BURUZKO AUZI PRAKTIKOAK

• Hartzekodunak enpresa baten konkurtsoa eska dezake?

Bai. Konkurtso Legeak “nahitaezko konkurtsoa” deiturikoa aurreikusten du, hots, konkurtso-eskaera hartzekodun batek aurkezten duena, emaitzarik izan ez duen bahitura batean, enpresaburuaren betebeharren ordainketa arruntaren largespen orokorrean edo zenbait ordainketen ez-betetze orokortuan oinarritua (ikus 3. eta 4. Apartatuak).

Horretarako, hartzekodunak bere eskaeran adierazi beharko du horren oinarri den kredituaren jatorria, izaera, zenbatekoa, eskurapenaren eta mugaegunaren datak eta egungo egoera, hori egiaztatzen duten agiriak ere gehituz.


Adibide modura aipa daiteke Madrilgo 5 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2007ko urtarrilaren 11ko Autoa, “Air Madrid” konpainiaren nahitaezko konkurtsoa adierazi zuela Konkurtso Legearen 22. artikuluekin bat etorriz.

Kasu honetan, A eta D.F. andreek 2006ko abenduaren 19an “Air Madrid Líneas Aéreas, S.A.” entitatearen nahitaezko konkurtso-eskaera aurkeztu zuten, konpainia horren betebeharren ordainketa arruntaren largespen orokorrean fundatua, 2006ko abenduaren 15ean eten baitzuen bere jarduera bere bezeroekin hartutako konpromisoak bete gabe utziz. Eskatzaileek kreditu-titulu gisa hegaldi bat aurretiaz baliogabetzeak eragindako eskubide ekonomikoak aipatu zituzten,



eta hegaldi horretarako, 2006ko martxoaren 2an, hegaldi-txartelen lau erreserba eskuratu zituzten on line bidez, hegazkin-konpainia horren webgunearen bitartez, eta horiengatik 2.852,32 euro ordaindu zituzten guztira.

Entitate zordunak aurka egiteko idazki bat aurkeztu zuen eta bertan ukatu egin zuen hartzekodun gisa eskatzaileen legitimazioa, zordunarekin garraio-kontratua alde batek baliogabetzeko erabakitik sortutako ustezko kreditu baten titular direla diotelako, hark bere betebeharrak bete gabe utzi aurretik, bidaiaren hasierako eguna baino lehen aurkeztu baitzuten beren eskaera.



Ebazpenean, beraz, eztabaidatu zuten ea konkurto-adierazpen hori edozein hartzekodunek eska dezakeen ala iraungitako diru-kreditu eskagarri bat dutenek bakarrik. Merkataritza arloko Epaitegiarentzat KLaren 3. artikuluko testuaren zabaltasunak eragotzi egiten du mugaegunean eskubidez dagokien prestazioaren edukiarekin loturiko baldintza jakin batzuk bakarrik betetzen dituzten hartzekodunetara mugatzea legitimazio hori, arau horrek legitimazioa onartzen baitio “edozein hartzekoduni”, inolako mugarik eta inolako bereizketarik gabe. Are gehiago, iraungi gabeko kredituagatik zordun erkidearen konkurtoa eskatzeko hartzekodunak duen interesa onartzen da *“hartzekodunen artean galeren komunitate-printzipioa eta tratu-berdintasunarena babestearren, batzuen kaltetan beste batzuek beren kredituak beteta ikusteko modurik izan gabe”*.

Baldintza objektiboa gertatzeari dagokionez, hau da, Konkurto Legearen 2. artikulua eskatutako kaudimen-gabeziari dagokionez, Epaitegiak berriro dio ez dagoela largespena mugatzerik betebeharren ordainketa arrunta diru-prestazio batean oinarritzen dutenetara, eta amaitzeko dio, konpainiak abenduaren 15ean bere jarduera etetea erabakitzen duen unetik, obligazioen ordainketa arruntaren largespen orokor hori gertatzen dela, hau da, bidaiariak modu orokor batez garraiatzeko betebeharrak horretan datzana.

Kasu horri buruz hauxe kontsultatu daiteke:

<http://administracionconcursal.airmadrid.com>

• **Zer ondare-ahalmen izango ditu konkurtoan adierazitako hartzekodunak?**

Konkurto Legearen 40. artikulua arabera, zordunak bere ondarea administratzeko eta erabiltzeko ahalmenen gauzapena eteteko erregimenarekin lotua dago nahitaezko konkurtoa, eta horren arabera, ahalmen horiek konkurto-



administratzaileek gauzatuko dituzte. Aldiz, borondatezko konkurtsoa adierazten bada, printzipioz zordunak bere horretan gordeko ditu ahalmen horiek eta administratzaileen esku-hartzearen mende geratuko da, haien baimen edo adostasunaren bitartez.

Dena den, konkurtsoko epaileak ahalmen zabala du erregimen hori egokitzeko edo aldatzeko, eta borondatezko konkurtsoaren kasuan etetea erabaki dezake edo nahitaezko konkurtsoaren kasuan esku-hartzea soilik erabaki, betiere erabaki horretarako arrazoiak ematen baditu eta eragotzi nahi diren arriskuak eta erdietsi nahi diren abantailak aipatzen baditu (KLaren 40.3 artikulua).

• **Noiz, nola eta nori jakinarazi behar dio hartzekodunak kreditu bat duela?**

3/2009 Errege Dekretu Legeak ekarritako erreformaren ondoren, hartzekodunak kreditua duela jakinarazi behar dio konkurtso-administrazioari Estatuko Buletin Ofizialean konkurtsoaren adierazpen-autoa argitaratzen denetik hilabete bateko epearen barruan (KLaren 25.1 artikulua).

Komunikazio hori idatziz egin beharko da, hartzekodunak, kredituan interesa duen beste edozeinek edo *horien ordezkaria nahikoa egiaztatzen dutenek* sinatuta, eta eskumena duen epaitegiaren aurrean aurkeztu beharko da (KLaren 85.2 artikulua).

Idazki horren edukia hauxe da: hartzekodunaren izena, helbidea eta hura identifikatzeko gainerako datuak jaso behar ditu, baita kredituari buruzkoak ere, haren kontzeptua, zenbatekoa, eskurapenaren eta mugaegunaren datak, ezaugarriak eta lortu nahi den kalifikazioa.

Komunikazio-idazkiaren batera kredituarekin eta ahalmen-eskiturekin loturiko tituluen edo agirien jatorrizkoak (edo kopia kautotuak) aurkeztu beharko dira. Titulu edo agiri horien jatorrizkoak lehenago aurkeztu badira edo auzibide edo administrazioko beste prozedura batean badaude, horien kopia ez-kautotuak aurkeztu ahal izango dira, betiere dagokion epaitegi edo organismoaren aurrean lekukotza erdiesteko edo jatorrizkoak itzultzeko egindako eskaera justifikatzen bada.

Kreditua jakinarazi ondoren, konkurtso-administrazioak hartzekodunen zerrendan sartu edo kendu egingo ditu hartzekodunek adierazitako edo iradokitako kredituak.



Konkurtso-intzidente deiturikoaren bitartez ebatzi beharko da kredituen aitortpenaren inguruan sortzen den edozein gai.

• **Nolako publizitatea ematen zaio hartzekodunen konkurtsoari?**

Konkurtso Legeak konkurtso-adierazpenari publizitatea emateko zenbait baliabide jasotzen ditu, eta martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak aldatu du horien erregimen juridikoa, konkurtsoa izapidetzeko kostuak merkatzeko eta arintzeko xedez.

Beste neurri batzuen artean, egunkari pribatuetan argitaratu ordez, Estatuko Buletin Ofizialean eta Konkurtsoen Erregistro Publikoan doan argitaratuko da. Konkurtso Ebazpenen Erregistroa izenekoa dugu uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 198. artikuluan aurreikusitakoaren arabera Interneten konkurtso-egoerei legezko publizitatea emateko sistema (ekainaren 10eko 685/2005 Errege Dekretuak garatzendu horren araudi onetsia).

Justizia Ministerioaren mendeko erregistro horretan Internet bidez sar gaitzke, ondorengo web orriaren bitartez

<http://www.publicidadconcurasal.es/>

Kontuan izan ezazue, halaber, aldaketa horrek beste arau batzuk aldatzea ere ekarri duela, eta horietan ezarri da zenbait jarduera egiteko epeak EBO-n eta Konkurtsoen Erregistro Publikoan argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasiko direla (20.4 artikulua, 12.1 artikulua eta 21.5 artikulua).

Aldatu egin dira, halaber, zordunaren ondare-ahalmenen erregimenaren aldaketen publizitateari buruzko arauak (40.4 artikulua), hitzarmena betetzei buruzkoak (140.1 artikulua), konkurtso-administrazioaren txostenaren publizitateari buruzkoak (95.2 artikulua) eta kalifikazio-piezan bertaratzei buruzkoak (175.2 artikulua).

Nolanahi ere, gauza nabarmena da hartzekodunek arreta handiz begiratu behar diotela Konkurtsoen Erregistro Publikoari:

1) *Konkurtso-adierazpenaren publizitatea, bai eta gainerako jakinarazpen, komunikazio edo prozedura-izapideena ere.* Konkurtso Legearen 23.1 artikuluan ezarritako nahitaezko publizitatea eman behar zaio konkurtso-adierazpenari.



- *Lehentasunez* baliabide telematikoak, informatikoak eta elektronikoak erabiliz egingo da, arauz finkatzen den moduan.
- Konkurtsoaren adierazpena (horren laburpena) doan eta premiaz argitaratuko da EBOren eta Konkurtsoen Erregistro Publikoan. Konkurtsopekoaren nortasuna, epaitegi eskuduna, autoaren datuak, kredituak jakinarazteko epea, konkurtsopekoaren ondare-ahalmenen erregimena eta bidezko ebazpenak argitaratuko diren Konkurtsoen Erregistro Publikoaren helbide elektronikoarekin loturiko ezinbesteko datuak bilduko ditu.
- Konkurtsoko epaileak, ofizioz edo alderdi batek hala eskatuta, publizitate osagarria eman dakiola erabaki dezake, baldin eta konkurtsoaren ekintzak ezagutzera emateko “ezinbestekoa” bada (esate baterako, konkurtsoak eragindakoen kopuru handia dela eta). Horren kostua konkurtsoaren masaren kontura izango da.

Ohikoena konkurtso-adierazpena Estatuko Buletin Ofizialean ediktuen bidez eta probintzian zabalkunderik handieneko informazio orokorreko egunkariaren baten bidez argitaratu dadila erabakitzea da, eta horrekin batera adieraztea prozesuaren identifikazio-datuak, bertaratzeko moduak eta konkurtso-administratzaileen nortasun eta helbideak.

- Epaitegiek *lehentasunez* bide telematikoak erabiliz ezagutaraziko dituzte ediktuak dituzten ofizioak. Horrelakorik egin ezean, ofizio horiek konkurtso-eskatzailearen prokuradoreari emango zaizkio egoki diren publizitate-baliabideetara bidal ditzan.
- Ediktuen bidez argitaratu beharreko gainerako informazioak Konkurtsoen Erregistro Publikoan eta epaitegiko iragarkien taulan argitaratuko dira.
- Aipatutako ekintza horiek guztiak Konkurtsoen Erregistro Publikoan barneratuko dira.

2) *Erregistroko publizitatea*. Zorduna pertsona fisiko bat bada, Erregistro Zibilean inskribatuko dira (ahal dela, bide telematikoak erabiliz) konkurtso-adierazpena, administratzeko eta erabiltzeko ahalmenen gaineko esku-hartzea edo, hala egokituz gero, horien etetea, eta konkurtso-administratzaileen izendapena.

Pertsona juridikoa izanez gero, beharrezkoa da Merkataritza Erregistrora edo beste erregistro publiko batera manamendua igortzea, aipatutako xehetasun horiek idatzita gera daitezen. Zorduna inskribatuta ez badago, aldezturik inskribatuko da.



Zordunaren titulartasunpeko industria-jabetzako ondasunak edo eskubideak inskribatuta dauden Erregistro Publikoetara ere igorri beharko da manamendua, ahalmen horien gaineko esku-hartzearen aurre-neurrizko idatzoharra egiteko, horren data eta konkurtso-administratzaileen izendapena adieraziz.

Dagokion epaitegiak, lehentasunez bide telematikoak erabiliz, ezagutaraziko ditu ofizioak. Salbuespen gisa, hau da, bide telematikoak erabiliz komunikatzea ezinezkoa bada, ediktuak dituzten ofizioak konkurtso-eskatzailearen prokuradoreari eman behar zaizkio, erregistroko idatzohar horiek egiteko beharrezkoak diren manamenduekin.

3) *Konkurtsoen Erregistro Publikoa* Martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak sortutako Erregistro honen helburua publizitatea beharrezkoa duten konkurtso-ebazpen guztiei publizitatea ematea eta horien izaera publikoa ezagutaraztea da Interneteko atari baten bitartez. Interneten doan eskuratu ahal izango da eta Konkurtso Legean xedatutakoaren arabera (KLaren 198.1 artikulua) argitaratu beharrekoak diren konkurtso-ebazpen guztiak argitaratuko dira bertan.

Erruduntzat kalifikatzen diren konkurtso-prozeduretan emandako ebazpenak eta konkurtso-administratzaileak izendatzea edo desgaitzea erabakitzen dutenak ere argitaratuko dira, baita Merkataritza Erregistroan inskribatu daitezkeen gainerako konkurtso-ebazpenak ere (KLaren 198.2 artikulua).

Erregistroa webgune honetan kontsulta daiteke <http://www.publicidadconcurasal.es>

Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak kudeatzen du Erregistro hori, Justizia Ministerioaren aginduen mende.

• **Zer posizio betetzen du konkurtsopean adierazi duten enpresa bateko kontsumitzaile hartzekodunak?**

Kontuan izan beharko da konkurtso-administrazioak nola sailkatzen duen horren kreditua (ikus I.16 apartatua). Normalean kontsumitzaileen kredituak, kontrakorik esan ezean, aruntak izango dira, pribilegiatuak izateko baldintzak betetzen ez badituzte. Hori guztia masaren kontrako kreditu jotzearen kaltetan izan gabe baldin eta zordunak bere betebeharrak ez betetzeaz gain elkarrekiko prestazioak dituzten eta betetzeko dauden kontratuen erregimena aplika badaiteke, aurrerago aipatuko den moduan. Kasu batzuetan kontingentetzat jo daitezke (ikus I.15 apartatua).



• KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN ELKARTEAK:**Beren bazkideak hartzekodun diren konkurtsoen gainean esku har dezakete?**

Gauza nabarmena da konkurtsoak kontsumitzaile askori eragiten dionean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten jarduera funtsezkoa izan daitekeela beren bazkideen interesak egoki defendatu ahal izateko, haiei informazioa emanez eta konkurtso-prozedura kudeatuz.

Bereziki, eragindako kontsumitzaileak elkartuz eta koordinatuz jardun dezakete Elkarte horiek, idatziak eta komunikazioak aurkeztuz (esaterako, kredituen komunikazioa) eta konkurtsoaren geroagoko faseetan esku hartuz.

Baina Konkurtso Legeak ez du ezer esaten horri buruz. Horrexegatik, lege-xedapen berezirik ez dagoenean, Prozedura Zibilaren Legean ezarritako arau orokorretara jo behar dugu beren bazkideen ordezkari gisa zer ekintza egin dezaketen erabaki ahal izateko. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, konkurtso-administratzaileek eta epaileek erraztu behar dute konkurtso handietan eragindakoen defentsa.

Horrekin loturik nabarmendu beharra dago zenbait zalantza sortzen direla kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek konkurtsoa eskatu ahal izateari buruz (KLaren 3. artikulua eta PZLaren 11. artikulua), aurkarapenari buruzko bistan esku hartzeari buruz (KLaren 19. artikulua), adierazpen-autoari errekurtsioa jartzeari buruz (KLaren 20.3 artikulua), konkurtso-administratzaileei uko egiteari buruz edo horien ordainsarien aurka errekurtsioa jartzeari buruz (KLaren 33.1, 37.1 eta 34.5 artikulua).

Baina epai-ebazpenen bat ekintza horiek egin ahal izatearen alde agertu da baldin eta beren bazkideen interes indibidualen defentsarako eta ordezkari gisa jokatzeko badute.

Dena den, antza denez, argi da hartzekodunen zerrenda edo ondasunen inbentarioaren aurka egin dezaketela, KLaren 96.1 artikulua legitimazioa ematen baitio "edozein interesaturi". Halaber, hutsalketa- edo itzulketa-ekintzak egin daitezela eskatu ahal izango dute (KLaren 72.2 artikulua), baita beren bazkideen ordezkari gisa jardun ere Hartzekodunen Batzarrean (118.2 artikulua), jarraian adierazten den moduan.



Zalantza gehiago sortzen du kontsumitzaileen elkarteek interes kolektibo edo lausoan defentsan aritu ahal izateak, eta halakoetan, kalifikazio atalean esku har lezakete eta laguntzaile gisa jardun (KLaren 193.2 artikulua).

Zalantza horiek guztiek beharrezko egiten dute indarreko legeriaren erreforma bat, martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak ez baitio horri heldu.

Jakinarazi litezke hartzekodun bazkide ugariaren kredituak, horiek aitortu eta sailkatzeari begira?

Bai. Horretarako, eragindako kontsumitzaileak elkartu eta koordinatu egin behar dira, eta Epaitegira paperean edo euskarri informatikoan (CD) igor daitezkeen zerrendak prestatu beharko dira.

Izan ere, egoera hori lehenago ere gertatu izan da kontsumitzaile ugari eraginda gertatu diren kasuetan, esate baterako "Forum Filatélico, S.A." edo "Afinza Bienes Tangibles, S.A." kasuetan. Kredituak komunikatzeari buruzko aipamena egiten duen KLaren 85.2 artikulua, "*edo horien behar besteko ordezkaritza egiaztatzen duenak*" sinatutako idazkiaren bidez egin daitekeela dioenak, horrekin loturiko zalantzak uxatzea ahalbidetzen du.

Jar dezakete ezespen-intzidenterik konkurtso-administrazioko kideetako baten aurka?

Bai. Adibide modura aipa daiteke maiatzaren 17ko 123/2007 zk. Autoa, Madrilgo Probintzia Entzutegiaren 28. Atalarena, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte baten legitimazioa onartu baitzuen, bere bazkideen defentsan, konkurtsoaren ezespen-intzidente bat jartzeko.

Kasu honetan, Erabiltzaileen eta Kontsumitzaileen Uribe-Kosta Elkarteak (URKOA) intzidente-demanda jarri zuen AFINSA entitatearen konkurtsoaren baitan, Estatuko Zerga Administrazioaren Agentzia (AEAT) konkurtso-administratzaile gisa ezesteko. Madrilgo 6 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiak 2006ko uztailaren 27an Auto bat eman zuen eta bertan xedatu zuen ez zegoela aipatu demanda hori izapidetzeko arrazoirik. Epaitegiak ulertu zuen elkarte apelaziogileak ezin zituela hartzekodun jakin batzuen interes partikularrak defendatu eta ez zuen betetzen konkurtsopeko entitatearen hartzekodun izatearen baldintza.



Hala eta guztiz ere, Madrilgo Entzutegi Probintzialak ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsu onartu zuen, bere iritziz elkarte apelaziogileak legitimazio aktiboa duelako, konkurtsoaren hartzekodun diren bere bazkideen interesak defendatuz konkurtso-administratzaile baten aurka ezespren-intzidente bat jartzeko, Konkurtso Legearen 33.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, horrelako intzidenteak hasteko aukera konkurtso-adierazpena eskatzeko legitimazioa duten pertsoneri bakarrik esleitzen diela (zorduna eta bere edozein hartzekodun, KLaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera).

Entzutegiak ulertu zuen kontsumitzaileen elkarte apelaziogile hori bere bazkideen eskubide eta interesen defentsan jokatzeko ari zela, haien ordezkari gisa jardunez, Prozedura Zibilaren Legeko 11. artikulua aurreikusten duen moduan, zein afiliatu eta bazkideren alde jokatzeko ari zen identifikatu ondoren, eta KLaren 33.1 artikulua interpretazio murrizgarria baztertu zuen. Entitate horrek hartzekodun batzuen ordezkari gisa jokatzeko duenez, baieztatzen da ez legokeela justifikatuta ezespren sustatzeko eragozpenik jartzen ari zitzaienik: *“Zalantzarik gabe, hartzekodun horien interes komunekoak izan daiteke beren ordezkariaren bitartez konkurtso-administratzaile batek beren eginkizuna burutzeko ezgaitasun, bateraezintasun edo debekuaren arrazoiren bat egotea edo haren inpartzialtasunari eragiten dion xehetasunen bat agerian jartzea”*.

Konkurtso-administrazioak prestatutako hartzekodunen zerrenda aurkaratu dezakete?

Bai. Gai honen inguruan adibide modura jar daiteke Madrilgo Entzutegi Probintzialaren 28. Sekzioaren 2008ko martxoaren 28ko Atua, “FORUM FILATÉLICO” kasuari buruzkoa, kontsumitzaileen elkarte batek (OCU) hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko aukera onartu baitzuen.

Kasu honetan aipatutako elkarte horrek hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko intzidente-demanda aurkeztu zuen, Prozedura Zibilaren Legeko 11.1 artikuluaekin bat etorriz duen legitimazioan oinarrituta, bere bazkideen eskubideak eta interesak epaiketara defendatzeko, haien ordezkari gisa jardunez eta afiliatuak identifikatuz, horien zerrendak euskarri informatikoan aurkeztuz (zenbait C.D.). Egun batzuk geroago, intzidente-demanda zuzentzeko idazki bat aurkeztu zuen, euskarri informatiko horietako batean aipatu gabe geratu zirelako elkarteko bi afiliatu.



Merkataritza arloko Epaitegi eskudunak adierazi zuen ez zegoela zuzenketarako arrazoirik, epez kanpo aurkeztutako demanda berri bat zela irizten ziolako (KLaren 96. artikulua).

Dena den, Entzutegi Probintzialak, konkurtsoak eragindakoen kopuru handia kontuan izanik, ikusi zuen nahigabeko ez-aitatze huts bat izan zela eta Elkarteak aurkeztutako intzidente-demandaren zuzenketa onartu zuen.

Informazio gehiago kontsultatu ahal izateko zenbait esteka:

<http://www.administracionconcursalforum.com>

<http://www.consumo-inc.gob.es>

2.- KONTSUMITZAILEA, ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEBIZITZA BAT SALDUKO DUEN ENTITATEAREN KONKURTSOAREN AURREAN

Etxebizitza baten salerosketa, normalean eraikitzen ari direnez gero, ezaugarri berezi batzuk ditu, konkurtsopekoa alderdietako bat den kontratuei buruzko konkurtso-adierazpenaren ondorioei buruzko araudian txertatzea zailtzen dutenak (ikus 1.7 eta 8 apartatuak).

Oso gai nahaspilatsua da, eta horren inguruan doktrina zientifikoa nahiz kontraesanezko jurisprudentzia topa dezakegu. Abiapuntua, hain zuzen ere, kontratuaren xede den ondasun higiezin emateko orduan erosle kontratugileek entitate saltzailearekiko (sustapen-enpresa, eraikuntza-enpresa edo higiezin-enpresa) hartzekodun izatea da. Bestalde, arestian ikusi dugunez, Konkurtso Legeak xedatzen duenez, konkurtso-adierazpenak ez du zordunaren enpresa-jarduera eteten.

- KASUAK

Lege-erregimenak ondorengo kasuak bereizten ditu:

1) Erosleak bere ordainketa-betebehar guztiak bete ditu eta entitate saltzaileak ez du etxebizitza eman (Elkarrekiko betebeharrak dituzten kontratuak, eta konkurtso-adierazpenaren unean alderdietako batek oso-osorik bete ditu bere betebeharrak).



Kasu honetan, erosleak etxebizitza ordaintzeko betebeharrak bete baditu eta saltzaileak bere betebeharrak betetzeko baldin badauzka (etxebizitza ematea), dagokion kreditua konkurtsoaren masa pasiboaren barruan sartuko da.

Alegia, erosleak bere kreditua jakinarazi edo iradokiko du eta konkurtso-administrazioak hartzekodunen zerrendan sartu eta bere kreditua sailkatuko du, dirudienez *konkurtso-kreditu arruntaren* izaera edukiko duela (eta ez masaren aurkakoa).

2) Erosleak oraindik ordaintza-betebehar batzuk betetzeko dauzka eta entitate saltzaileak etxebizitza itundutako baldintzetan emateko obligazioa gauzatzeko dauka konkurtso-adierazpena egiten denean (bi alderdiek betetzeko daukaten elkarrekiko betebeharrak dituzten kontratuak).

a) Kasu honetan, legeak printzipio orokor modura aurreikusten du konkurtso-adierazpenak ez diola eragingo kontratu horien indarraldiari, hau da, bi alderdiek kontratu hori betetzen jarraitu beharko dutela. Horrenbestez, kontratua gauzatu zen unean itundutako kopuruak ordaintzen jarraitu behar du erosleak.

Diru-ekarpen horren konpentsazio modura, saltzailearen eta konkurtsopeko zordunaren prestazioak *masaren aurka* egingo direla xedatzen da.

b) Dena den, legeak baimena ematen dio bai konkurtso-administratioari (konkurtsopekoaren ondare-ahalmenak esekita geratuz gero) eta bai zordunari berari ere (ahalmen horien gainean esku hartuz gero), kontratua suntsitu dadila eskatu ahal izateko, baldin eta "konkurtsoaren intereserako" komenigarria dela irizten badiote. Kontuan izan ahalmen hori ez zaiola hartzekodunari esleitzen.

Hori gertatzen bada, merkataritza arloko epaileak bi alderdiei deituko die, eta ados jar daitezke, edo ez, ebazpenaren eta horren ondorioen inguruan. Adostasuna baldin badago, kontratua suntsitzeko adierazpen-autoa emango da. Adostasunik ez badago, konkurtso-intzidente baten izapideak eginez, epaileak erabakiko du suntsitzeari buruz eta, hala dagokionean, bidezkoak diren ordezenak eta *masaren kontura* ordaindu beharreko kalte-ordaina.

3) Alderdietako edozeinek konkurtso-adierazpenaren ondoren bete ez dituzten kontratuak

a) Ez betetzeagatik suntsiarazteko arrazoi bat dagoen kasu honetan (esate baterako, etxebizitza itundutako epean ez ordaintzea), legeak aukera ematen du alderdietako edozeinek, erosleak nahiz saltzaileak, kontratua eteteko ekintza egokia



gauzatu dezan. Are gehiago, aukera hori segidako traktudun kontratu izenekoetarako ere aurreikusten da, ez-betetze hori konkurtso-adierazpena egin aurretik gertatu bada.

Ekintza hori merkataritza arloko epailearen aurrean egin beharko da eta konkurtso-intzidente baten bitartez gauzatuko da. Suntsiarazpenak ondorio hauek izango ditu. Kontratua suntsitzen bada, iraungita geratuko dira mugaeguneratzeko dauden betebeharrak guztiak. Iraungitako betebeharrak dagokienez (ordezpenak eta kalte-ordainak), aldi berean, bi kasu bereizten dira:

- Konkurtsopeko saltzailearen ez-betetzea konkurtso-adierazpena baino lehenagokoa bada, erosleari dagokion kreditua konkurtsoan sartuko da, hau da, konkurtso-kreditutzat joko da.
- Saltzailearen ez-betetzea konkurtso-adierazpena egin ondoren gertatu bada, erosle betetzailearen kreditua masaren kontura ordainduko da. Kasu batean nahiz bestean, kredituaren barruan, hala egokituz gero, kalte eta galeren ordain egokia sartuko da.

b) Nolanahi ere, legeak kasu hauetan xedatzen du konkurtsoko epaileak, "konkurtsoren interesari" berriro erreparatuz, kontratua bete dadila erabaki dezakeela, hau da, alderdiak behartu ditzakeela beren betebeharrak betetzen jarraitzera.

Hemen ere, konkurtsopekoak zor dituen edo eskaini behar dituen prestazioak *masaren kontura* egingo dira.

- Kontsumitzaileak duen egoerarekin loturiko AUZIAK, higiezina salduko duen entitatea konkurtsopean adierazten dutenean.

Nabarmena da aipatutako arau horiek guztiak nahasmen handi samarra eta segurtasun-eza dakarkiotela bere betebeharrak garaiz ordaindu dituen etxebizitza-erosleari, higiezin hori saldu dion entitatea konkurtsopean adierazten dutenean. Horrekin loturik, jakin beharra dago:

• Zein egoeratan dago etxebizitza bat erostera doan kontsumitzailea, entitate saltzailea konkurtsopean adierazten dutenean?

Ikusi dugunez, bi kasu bereizi behar dira. Konkurtso-adierazpena baino lehen kontrako diru-zenbatekoak ordaindu dituen erosleak konkurtsopeko entitatearen aldetik etxebizitza, kontratua betetzen bada, etxebizitza zenbatu den diru-zenbatekoa



eta, hala egokituz gero, kalte eta galeren ordainari dagokiona jaso ahal izango du, kontratua suntsitzen bada.

Saltzaileak kontratua bete gabe utzi eta, konkurtso-adierazpena egin ondoren, etxebizitza ematen ez duenean bakarrik suntsitu ahal izango du erosleak kontratu hori. Kasu honetan, emandako diru-zenbatekoei eta egon daitezkeen kalte eta galerei dagozkien kopuruak masaren aurkako kreditu bat izango dira eta, beraz, ordaintzen lehenengoetako bat.

Aldiz, konkurtso-adierazpena egin baino lehen etxebizitza jasotzeko eskubidea baldin bazuen erosleak, arrunta izango da bere kreditua eta geroratu egingo da horren ordainketa (ikus I.15 apartatua).

• **Erosleak salerosketa-kontratua baliogabetu dezake? Kontratua suntsitzeko zenbait kasu.**

Arestian ikusi dugunez, konkurtso-adierazpenaren ondoren entitate saltzaileak etxebizitza emateko betebeharra betetzen ez duenean, erosleak suntsitu egin dezake kontratua. Ikus ditzagun adibide batzuk:

a) Zenbait ebazpenek ez dute onartu erosleak kontratua suntsitzeko gauzatutako eskaerak. Valentziako 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko urtarrilaren 28ko Epaia dugu kasu horietako bat; izan ere, ez zuten bidezko jo eraikitzen ari ziren higiezin baten salerosketan alderdi erosleak konkurtsopeko sustatzailearekin gauzatutako kontratua suntsitzeko eskaera baiestea, KLaren 62.1 artikuluan eta azken hori ez-betetzeari oinarrituz, kontratu horiek egoki bete zitezkeela jo zutelako eta xehetasun hori konkurtsoaren interesaren mesederako izango zelako.

Merkataritza arloko Epaitegiak gertatutako xehetasunak aztertzen ditu eta amaitzeko dio ez duela uste kontratuaren suntsipena adieraztea bidezkoa denik, hori guztia, “(...) *promozioaren bilakaera-egoera kontuan izanik, 2008ko ekainaren 13an arkitekto zuzendariak % 39tik gorako ehunekoan zenbatzen duena, eta Konkurtso Administrazioaren asmoa da abian diren promozioak egoki burutu daitezela, eta ulertzen du sustatzailearekin kontratua egin dutenak hartzekodunak direla kontratuaren xede den ondasun higiezina emateko orduan, berezkoa duen helbururako baldintza egokietan. Hori guztia kontuan izanik, ezetsi egin behar da eskaera*”.

Obrak % 39ko ehunekoan eginda dauden kasu honetan, konkurtso Epaileak erabaki zuen bidezkoa zela hartzekodunak behartzea konkurtsoak irauten zuen bitartean eraikuntza amaitu arte itxarotera.



Soluzio bera eskaintzen du Valentziako 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko apirilaren 2ko Epaiak, eta kasu hartan, eraikitzen ari ziren higiezin baten salerosketa-kontratu pribatua suntsitzeko eskatua zuten erosleek, konkurtsopekoaren betebeharrak betetzeko zeudelako. Konkurtsoko Epaiak erabaki zuen ez zirela betetzen legez eskatutako baldintzak suntsipen horrek aurrera egin zezan, hain zuzen ere, eraikuntzaren bilakaera-egoera kontuan izanik, obra hori denbora-tarte labur batean amaituta egon zitekeelako, eta era horretan, kontratuaren helburua beteko zelako.

b) Aldiz, beste ebazpen batzuetan bidezkoztat jo izan da alderdi erosleak eskatutako salerosketa-kontratuaren suntsipena. Alacanteko 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko ekainaren 15eko Epaiak zioen bidezkoa zela alderdi erosleak eskatutako salerosketa-kontratuaren suntsipena adieraztea, obrak hasi ere egin ez ziren kasu batean, suntsipen hori ezin zitekeelako aurkako xedearen nahasgarritzat jo. Horri buruz hauxe dio: *“(…) ez da zalantzan jartzen kontratu-suntsipenaren egokitasuna, horren inguruan liskarrik ez dagoelako, eta horrek justifikatu egiten du konkurtsopekoa auzi-jartzailearekin lotzen duen salerosketa-kontratuaren suntsipena baiestea, eta nolana ere, gauza nabarmena denez etxebizitza eraikitzeke, hori okupatzeko beharrezkoak diren administrazio-baimenak erdiesteko, emateko eta erosleen aldeko titulu publikoak prestatzeko jarduerak hasi direnik eztabaidatzen ez denean eta kontratu-loturari amaiera emateko ezinbesteko bide gisa ageri denean ezin diola in bonis kontratugile betetzailari hori gauzatzea eragotzi, horren aurkako izango litzatekeelako bere interesa itundutako moduan gauzatzeko ezintasuna ikusten zaion harreman horretara denbora mugagabean atxikita edukitzea…”*.

Azken batean, Epaiak salerosketa-kontratua suntsitzea bidezkoa zela adierazi zuen obrak hasi ere egin ez zirelako, eta konkurtsopeko saltzailea behartu zuen auzi-jartzaileari aurreratutako zenbatekoa gehi urteko legezko interesak itzultzera aurreratutako ordainketa horiek egin zirenetik konkurtso-adierazpena egin zen eguneraino, eta adierazi zuen *“in bonis”* kontratugilearen alde itzultzeko eskubidea masaren aurkako kreditu bat dela.

Halaber diote bidezkoa dela eraikitzen ari ziren higiezin batzuen salerosketa pribatuen kontratuak suntsitzea, KLaren 61.2 artikulua babesean, besteak beste, Valentziako 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko otsailaren 27ko Autoak, Valentziako 2 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2008ko uztailaren 16ko Autoak, salerosketa-kontratuaren suntsipena eta lagapena onartu zuela, eta Valentziako 2 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko ekainaren 25eko Autoak.

Azken batean, muturreko bi kasu bereiz ditzakegu: bata, etxebizitzak hasi ez direnekoa, eta bestea, etxebizitzak amaituak edo amaitzear daudenekoa. Azken kasu horretan, proiekturik aurreratuenak amaitu daitezela ebatzi ohi da etxebizitzak bezeroei eman ahal izan diezazkieten.



• **Etxebizitza emateko betebeharra bete gabe utzi duen entitate saltzailearen nahitaezko konkurtso-adierazpena eska dezake etxebizitzaren erosleak? Zer egin dezake aukera hori aitortzen ez bazaio?**

Gure iritziz, bai, nahiz gai eztabaidagarria den. Erosleak hartzekodunak dira salerosketa-kontratuaren xede den ondasun higiezina baldintza egokietan emateko orduan eta, horrenbestez, diruzkoa ez den prestazio baten hartzekoduntzat hartzen diren, legitimazioa dute, KLaren 2.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, saltzaile ez-betetzailearen konkurtsoa eskatzeko.

Nolanahi ere, aurkako jarrerari eusten dion doktrina- eta jurisprudentzia-korronte bat badago. Adibide gisa jar daiteke Malagako 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko otsailaren 5eko Autoa, bertan baieztatzen baita kontratua epai bidez ebatzen ez den bitartean eroslea ez dela hartzekoduna eta ez duela legitimaziorik saltzailearen nahitaezko konkurtsoa eskatzeko.

Ikus dezakegu auto horren edukia, besteak beste, Madrilgo Entzutegi Probintzialaren 2008ko maiatzaren 8ko Epaiaren aurkakoa dela, jada aztergai izan dugun "Air Madrid" kasuan. Nolanahi ere, epaitegi horrek hartutako jarrera hori baldin bada (esate baterako, Marintza-Fadesa kasuan), komenigarria da erosleak konkurtso-administrazioari bere kreditua jakinaraztea, hori "kontingentetzat" hartua izan dadin, hau da, baldintzapekoa, eta horren arabera, etorkizuneko hartzekodun gisako bat bihurtuko da (ikus I.15 apartatua). Bere kreditua denbora eta forma egokian komunikatzen ez badu, mendekotzat hartua izan daiteke, eta hala bada, ordaintzen azkenetakoa izango da.

Eta ez badu itxaron nahi saltzaileak etxebizitza eman arte, hori litekeena baldin bada, ez-betetzeagatik kontratua suntsitzeko ekintza bat gauzatu beharko du, eta orduan bai, *benetako* hartzekodun bihurtuko da.

• **Zein araudik babesten du eraikitzen ari diren etxebizitza baten eroslea?**

Etxebizitzak eraikitzean eta saltzean diru-zenbateko aurreratuak nola jaso arautzen duen uztailaren 27ko 57/1968 Legeak eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak (Lehen Xed. Geh.) ezartzen dutenez, saltzaileak obligazioa du eroslearen alde berme batzuk jartzeko, kontratuaren xede ona bermatzearen eta saltzaileak eraikuntza-aldian emandako diru-zenbatekoak gehi legezko interesa itzultzearen, kontratuaren ez-betetze bat gertatzen den kasuan, izan ere, gauza arrunta bihurtzen ari baita krisialdi ekonomikoko garaiotan, etxebizitzak ez baitira amaitzen edo itundutako epearen ondoren amaitzen ari baitira.



Aipatutako arau horien arabera, berme hori fidantza edo banku-abal bat izan daiteke, edo bestela, kreditu- edo kauzio-aseguru bat. Horren xedea eroslea defendatzea baino ez da izaten, eta prezioaren ordainketa aurreratua itzuliko zaizkio etxebizitza eraikitzen ez den edo okupatzerik ez dagoen kasuan, ematea atzeratzen den egoeretan edo hirigintza-arazoengatik eraikitzea ezinezkoa denean.

Kontuan izan behar da, beraz, nahiz eta gai honek doktrina- eta jurisprudentzia-interpretazio desberdinak sorrarazi dituen arren, erosleak berme horiek gauzatu ahal izango dituela saltzaileak kontratua betetzen ez duen kasuan, aseguru-entitate edo abal-emailearengana zuzenduz.

Are gehiago, bermeak eratzeko obligazio hori ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoi kontsidera daiteke erosleak hala eskatuz gero.

Betebehar honek dakarren arazoa era askotako jurisprudentiaren aztergai izan da, eta horien artean nabarmendu behar dugu Valentziako Entzutegi Probintzialaren 2008ko apirilaren 9ko Epaia, bertan ondorioztatzen baita aipatu 67/1968 Legeak eskatutako abal-obligazioa erosle babestuaren eskubide automatikotzat finkatzen baita sustatzaile behartuaren aurreko kontsumitzaile gisa. Aurrez, Entzutegi horrek erabaki zuen lege hori, nahiz bere edukiaren parterik handienak administrazio izaera duen, *“arloan aplikagarria”* dela (Valentziako Entzutegi Probintzialaren 2005eko otsailaren 4ko Epaia).

Beste alde batetik, bermea eratzea lege-obligazio osagarria da, eta hori salerosketa-kontratuan ez barneratzeak duen ondorio juridiko bakarra diru-zehapen bat ezartzeko aukera da, 67/1968 Legearen 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, baina ez dio alderdi erosleari gaitasunik emango saltzaileak obligazio hori bete ez izanagatik kontratu-suntsipena eskatzeko, eta horrela dio Vigoko Entzutegi Probintzialaren 2006ko martxoaren 23ko Epaiak.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da fidatzaileak ordainketa egiten duenean, KLaren 87.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko dela, eta horri jarraiki, hartzekodunak hirugarrengo baten fidantzaz baliatzen den kredituak beren zenbatekoaren arabera aitortuko dira inolako mugarik gabe (mendeko bihurtu gabe) eta fidatzaileak ordainduz gero kredituaren titularra ordezkatzearen kontra joan gabe. Halere, ordaintzeagatik subrogazioa gertatzen denean, kreditu hauen kalifikazioan konkurtsorako kalte gutxien eragiten duena hautatuko da (hartzekodunari edo fidatzaileari dagozkion artetik).



- **Beraz, zer neurri hartu behar ditu eraikitzen ari diren etxebizitza baten erosleak?**

Eraikitzen ari diren etxebizitza baten erosleak ez du inolako diru-zenbatekorik eman behar kauzio-asegururik edo banku-abalik ba ote dagoen ziurtatu gabe. Beste arrazoi batzuen artean, berme horrek esan nahi duelako aseguru-konpainiak edo finantza-entitate bermatzaileak baikortasunez balioetsi dutela eraikuntzaren edo promozioaren bideragarritasuna. Erosleak, beraz, ziurtatu egin behar du banku-kontuan diru-sarrerak eginez ordainketa aurreratutak bermatzen edo asegurutzen dituen agiri bat ematen zaiola salerosketa-agiri pribatua sinatzeko ekintza horretan.

Agiri hori sinatu aurretik, berme hori gauzatuko den agiriaren kopia bat eskatu behar da. Horri begira, kontuan izan behar da etxebizitzaren salerosketetan eta errentamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaileak babesteari buruzko apirilaren 21eko 515/1989 Errege Dekretuak jasotzen duenez, sustatzaile-saltzaileak obligazioa du kontura emandako diru-zenbatekoengatik bermeak gauzatuko diren agirien kopia bat emateko erosleari, gainerako informazio garrantzitsuarekin batera.

Aseguru-polizak edo banku-abalak izaera kolektiboa eduki dezaketen arren, abal-emaileak edo aseguratzaileak ziurtagiri indibidualak igorri behar ditu erosle onuradun edo abaldun bakoitzaren izenean. Era horretan, erosleak aurreratuta ordaindutako diru-zenbatekoak gehi horien legezko interesa berreskuratu ahal izango ditu baldin eta etxebizitza baten eraikuntza ezarritako epean hasten ez bada, epearen barruan ematen ez bada edo tokiko administrazio eskudunak dagozkion lizentzia edo baimenak ematen ez baditu.

- **Etxebizitza baten erosleak dituen eskubideei buruzko informazio gehiago.**

Etxebizitza-eroslearen eskubideei buruz informazioa jasotzeko, besteak beste, <http://www.notariado.org/liferay/web/notariado/acude-a-tu-notario/en-que-te-puede-ser-util/viviendas-e-inmuebles> webgunean “*Guía práctica del comprador de vivienda*” kontsulta daiteke, Espainiako Notarioen Kontseilu Nagusiak eskainia, edo Kontsumitzailearen Europako Zentroaren informazioa <http://cec.consumo-inc.es> helbidean.



3.- PERTSONA FISIKO EZ-MERKATARIAREN KONKURTSOA

Azkenik, komeni da pertsona fisiko ez-merkatari baten balizko konkurtso-eskaera batek izan ditzakeen aurreuposamenduak eta ondorioak aztertzea, eta aukera hori aipatutako Konkurtso Legean jasotzen da batere teknika juridikorik gabe.

Pertsona fisikoaren konkurtso izenez ere ezagutzen den hartzekodunen konkurtsoa partikularrei aplikatzeak garrantzi handia du, familien neurritz gaineko zorpetze-arazoei irtenbidea emateko azken baliabide gisa. Horregatik, krisialdi ekonomikoko garaiotan kritikagarria da gure legegariak martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak eragindako Konkurtso Legearen erreforma aprobetxatu ez izana, kontsumitzaileen konkurtso-egoerei tratamendu berezi, arin eta ekonomiko bat eskaintzeko, gure inguruneko herrialdeetan gertatzen den moduan.

Jarraian, konkurtsoaren balizko eskatzaileak kontuan izan beharreko arauak zerrendatzen dira, eta pertsona fisiko ez-merkatarien konkurtsoa adierazi den kasuetako batzuk aurreikusiko dira Merkataritza arloko Epaitegien aldetik.

• Konkurtsopian adieraz daiteke pertsona fisiko ez-merkatari bat?

Printzipioz bai. Konkurtso Legearen 1. artikulua dio edozein zorduni eman ahal izango zaiola konkurtso-adierazpena, pertsona naturala izan nahiz juridikoa izan.

Halere, zehaztu beharra dago Konkurtso Legeak ez duela egoki arautzen pertsona fisiko ez-merkatariaren konkurtsoa eta bere arau gehienak enpresaburuaren konkurtsoari eskaintzen dizkio, kontsumitzaileak ez dituen hainbat pribilegio ematen dizkiolarik sarritan. Horrela erakutsi izan du doktrina zientifikoak eta jurisprudentziak, ez-merkatariaren konkurtsoak dakartzan arazoak konpontzeko arau egokirik ez egotea eta konkurtso-prozeduraren kostu handiak berekin duen eragozpena nabarmendu baitute.

Eragozpen hori neurri batean konponduta geratu da martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu Legeak eragindako erreformaren bidez; beste neurri batzuen artean, konkurtso-adierazpena Estatuko Buletin Ofizialean (EBO) eta Konkurtsoen Erregistro Publikoan doan argitaratzea



ezartzen du, eta xehetasun horrek eragotzi egin dezake Merkataritza arloko Epaitegi batzuek “masarik gabeko” konkurtso deiturikoak ezestea, hau da, zordunak konkurtso-gastuei ere aurre egiteko nahikoa aktiborik ez duen konkurtsoak.

Konkurtso-administrazioaren ordainsari-erregimena ere aldatu da. KLaren 34.2.d) artikulua aldatuak “eraginkortasunaren” araua aipatzen du, konkurtso-administratzaileek jasotzen duten arantzelaren berri ematen duela. Horri jarraiki, masa (aktiboa) nahikoa ez den konkurtsoetan, gutxieneko ordainsari bat ordainduko dela bermatuko da arantzel-bermedun kontu baten bitartez, konkurtso-administratzaileen nahitaezko ekarpenen bidez osatuko dena.

Halaber, kaudimen-gabeziazko egoeran dagoen zordunak ofiziozko txandako abokatu batek parte hartzea eskatu ahal izango du bizilekua duen herrialdeko Abokatuen Elkargoak kudeatuta.

Konkurtso-adierazpenaren abantailak, funtsean, kredituen interes-sortzapenaren etendura edo gerorapen (baina ez barkamena), hartzekodun guztiekin batera hitzarmen bat negoziatzeko aukera eta, hala egokituz gero, zordunaren ondarea prozedura bakar batean eta modu antolatuta batean likidatzea dira.

Merkataritza arloko Epaitegi asko pertsona fisiko ez-merkatariaren konkurtso-adierazpena egiteko uzkur dira, nahiz horietako batzuek konkurtso-eskaerak onartzen dituzten beharrezko baldintzak betetzen badira.

Krisialdi ekonomikoko garaiotan nahikoa sarritan gertatzen den egoera jarri ohi da adibide eredugarri gisa. Bere zorren ordainketari aurre egiterik ez duena inoren konturako langile edo autonomo bat izango litzateke, eta zor horien artean leudeke: bere etxebizitzaren hipoteka, ibilgailu bat erosteagatik finantza-entitate bati aldizkako kuotak ordaindu beharra, kreditu-txartelak ordaindu ezina, mailegu pertsonala, etxetresna elektrikoak erosteagatik geroratutako ordainketak, tokiko zergen ordainketa eta abar. Zor horiek guztiek haren pasiboa osatuko lukete. Aktiboa, berriz, etxebizitza, autoa, ondasun higigarri batzuk eta bere soldata izango lirateke. Bere (edo ezkontidearen) irazpenaren ondorioz eta familiako diru-sarreraren urritasunaren ondorioz, subjektu horrek ezin die aurre egin betebeharrak horiei eta bere buruari galdetzen dio ea, banku-entitate eta finantza-entitate hartzekodunekin negoziazioak ahitu ondoren, bere konkurtsoa eska ote dezakeen.

Ikus ditzagun pertsona fisiko ez-enpresaburuen konkurtsoa onartu izan den benetako kasu batzuk:



Nahitaez aipatu beharrekoa da familia baten (bi ezkontideen) konkurtso-adierazpena egin zen lehen ebazpenetako bat, hain zuzen ere, Bartzelonako 3 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2004ko abenduaren 29ko Autoa. Kasu honetan, azkenean, konkurtsopekoak hartzekodunekin hitzarmen batera iritsi ziren, eta bertan ehuneko hogeita hamarreko kita bat eta bost urteko itxaronaldia itundu zuten.

a) Kasu honetan, Merkataritza arloko Epaileak inolako enpresa-jarduerarik ez zuten senar-emazte batzuen konkurtso-adierazpena egin zuen Konkurtso Legearen 1.1 artikulua aplikatuz, zeinaren arabera edozein zordunen konkurtsoa eska baitaiteke enpresa-jarduera izan nahiz ez izan. Senar-emazte horiek bi ezkontideetako baten *erretiroaren* ondorioz iritsi ziren kaudimen-gabeziatzko egoera horretara. Kasu honetan, D.C.k bere hartzekodunei 163.750 euro inguruko diruzenbatekoa zor zien, eta horren zati nagusia lan-kredituei eta Ogasun Publiko eta Gizarte Segurantzaren Altxortegiari zegozkion, eta bere aktiboa, berriz, 7.000 euro ingurukoa zen.

Ebazpen hori, halaber, nabarmentzekoa da ezkontide eskatzaileen konkurtsoen metaketari irtenbide bat eman ziolako, nahiz eta legeak konkurtsoen metaketa lehendik horrela adieraziz gero eta konkurtso-administrazioak eskatuz gero bakarrik aurreikusten duen, eta kasu honetan, epaileak zuzenean egin zuen metaketa, une horri itxoin gabe.

Baina auto horrek garrantzirik badu, da, hain zuzen ere, argitu zuelakobai konkurtsoa eta bai bertatik ondorioztatzen diren onura guztiak eskatzeko aski zela kaudimen-gabeziatzko egoera frogatzea, inolako enpresa-jarduerarik burutu beharrik gabe.

b) Era berean, pertsona fisiko baten hur-hurreko kaudimen-gabeziatiko borondatezko konkurtso-adierazpena egin zuen Cuencako Merkataritza arloko Epaitegiaren 2007ko ekainaren 13ko Autoak, eta kasu horretan, hasiera pasiboa, milioi bat euro baino txikiagoa, banku-entitate batzuekin, telefono-konpainiekin eta abokatuen bulego batekin zituen zorrek osatzen zuten. Autoak ebatzi zuen zegozkion ofizioak ofizioz eta doan beteko zirela konkurtsopekoak doako asistentzia juridikorako onura zuelako, Doako Asistentzia Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6.4 artikuluaekin bat etorriz.

c) Murtziako 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2009ko maiatzaren 15eko autoak eta Iruñeko Merkataritza arloko epaitegiaren 2009ko uztailaren 29ko Autoak ere pertsona fisiko baten borondatezko konkurtso-adierazpena egin dute. Kasu horietan guztietan zordunak bere ondarea administratzeko eta erabiltzeko ahalmenak gordetzen ditu, konkurtso-administrazioaren esku-hartzearen mende.



Aldiz, merkataritza arloko beste epaitegi batzuek ez dituzte onartu pertsona fisikoen borondatezko konkurtsoak, beren iritziz eskatzaileek ez dutelako justifikatu konkurtsoak sortzen dituen gastuei eta balizko hitzarmen bati aurre egiteko ondasunak edo aktiboa zutenik.

Kasu hori da, esaterako, bazkide eta administratzaile zen sozietate mugatu baten mailegu-polizetan abal-emailearen izaera zuen pertsona fisiko baten *hur-hurreko* kaudimen-gabeziagatiko borondatezko konkurtso-eskaera. Bere pasiboa 2.057.736 euro ingurukoa zen eta bere aktiboa, bere ondasunen balioa, 900.000 euro ingurukoa, eta bere diru-sarrera bakarra, berriz, beste sozietate batetik jasotzen zuen soldata.

Egungo kaudimen-gabeziagatiko konkurtsoa eskatzen duen ezkontidearen konkurtsoa ere ukatu da, bere ezkontide ohiak (hura ere kaudimengabea) zeuzkan zorreatatik Gizarte Segurantzaren aurrean erantzule subsidiarioa izateagatik. Kasu honetan ere erabaki zuen ez zela ondasunen nahikotasun-baldintza betetzen.

Ikus daitekeenez, kasuistika oso zabala da. Gure iritziz, kontuan izanik hartzekodunen konkurtsoa kontsumitzailearen kaudimen-gabeziatzko egoera bati eman beharreko azken irtenbidea dela, ez dugu uste konkurtso-adierazpena egiteko lege-baldintzen interpretazio murrizgarria egin behar denik.

Bestelako iritzia merezi du prozedura hau neurritz gainera zorpetze *amarrutsu* bati aplikatu ahal izateak, hau da, erakunde horretaz baliatuz beren hartzekodunei iruzur egiten edo beren obligazioak bete gabe uzten saiatzen diren zordunena, eta ez bakarrik neurritz gainera zorpetze hori fede onekoa den kasuetan eta langabezia, lanaren ezegonkortasun edo behin-behinekotasuna, aldi baterako ezgaitasun edo iraunkorra edo ezkontidearen banantze, dibortzio edo heriotza bezalako arrazoiengatik sortua denean (hitz horiek darabiltza kontsumitzaileen neurritz gainera zorpetzearen prebentziorako eta tratamendurako apirilaren 30eko 122/2003/295 Lege Proposamena). Izan ere, doktrina zientifikoak azpimarratzen du *neurritz gainera zorpetze aktibo eta pasibo* izenekoei tratamendu berezia eskaini behar zaiela.

• **Zer kasu dira beharrezkoak Merkataritza Arloko Epaileak pertsona fisiko baten konkurtsoa adieraz dezan?**

Aurreko galderan azaldutakoarekin loturik, beharrezkoa da azpimarratzea Merkataritza arloko Epaitegi batzuen arabera konkurtso-adierazpena egiteko baldintzak ondorengoak direla:



- Hartzekodunen aniztasuna.
- Aktibo nahikoa.
- Kaudimen-gabezia, egungoa nahiz hur-hurrekoa.

Lehen baldintza nabarmena da, eta hertsiki lotua dago hirugarrenarekin, kaudimen-gabeziarekin. Bigarren baldintza, aktibo nahikoa izatearena, oso eztabaidatua da doktrina zientifikoan eta jurisprudentzia-doktrinan. Horri dagokionez, ikusi dugun moduan, badirudi Konkurtso Legearen erreformak "masarik gabeko konkurtso" hauek izapidearen alde egin duela. Soluzio hori eskubide hauetan oinarritu daiteke: benetako tutoretza judizialarekiko konstituzio-eskubidean, eskura dauden epaitzeko elementuen beharrezko segurtasunean, kontuan izanik ezinezkoa dela ziurtasunez jakitea zein diren zordunaren ondasunak konkurtso-eskariaren hasierako unean, eta konkurtsoa zabaltzen bada hartzekodunek kobratu ahal izateko eskubidean, izatezko edo zuzenbidezko administratzaileen erantzukizunaren ondorioz bada ere (besteak beste, Bartzelonako Entzutegi Probintzialaren 15. Sekzioaren 2007ko ekainaren 14ko Autoa).

Hirugarren baldintzari buruz, hots, konkurtsoaren kaudimen-gabezia edo baldintza objektiboari buruz, gogoratu behar da legeak ez duela egungo kaudimen-gabeziako egoera bakarrik aurreikusten (ordainketetan largespen orokorra), baizik eta, baita ere, hur-hurreko kaudimen-gabeziarena, hots, zordunak *"aurreikusten duenean bere betebeharrak ezin izango dituela garaiz bete"* (KLaren 2.3 artikulua).

Horren edukia mugatzeko, jurisprudentziaren arabera, *"abiapuntuko datutzat hartu behar da etorkizuneko egoera bat dela, eta beraz, horrek esan nahi du zordunak oraindik ez dituela eska dakizkiokeen obligazioak garaiz bete gabe utzi, baina hori gertatuko dela aurreikus daitekeela, eta hala, obligazioen ez-betetze horrek ez du oraindik gertatua izan behar, kasu horretan kaudimen-gabezia egungoa izango litzatekeelako eta ez hur-hurrekoa; lehen kasu horretan zordunak konkurtsoa eskatzeko obligazioa izango luke (KLaren 5. artikulua), eta aldiz, kaudimen-gabezia hur-hurrekoa denean, ez du lege-betebeharrak izango"* (ikus 1.3 eta 4. apartatuak).

Hur-hurreko kaudimen-gabeziako egoeran aurkitzen diren pertsona fisikoen konkurtso-eskaera askotan gertatzen da egoera hori, bazkide edo administratzaile diren sozietateen zorren fidantzamendu pertsonalaren ondorioz, eta horrexegatik horien aurkako erreklamazio judizialen xede izan dira.



Adibide bezala jar daiteke Cadizeko 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren urriaren 10eko 157/2008 Autoa; bertan ebazten da konkurtsopekoak, bakoitzak kapitalaren ia ehuneko berrogeita hamarra edukita eta konkurtsoa eskatu duten sozietateen mailegataile eta abal-emaita izanik, hur-hurreko kaudimen-gabeziazko egoeran aurkitzen direla abalatutako sozietateen obligazioen ordainketan largespen orokorra gertatu delako, eta horren ondorioz, aurreikusten da ezinezkoa izango zaiela beren obligazioak mugaeguna baino lehen beetzea, beren pasiboa aktiboa baino handiagoa izanik.

• **Zer dokumentazio aurkeztu behar du konkurtsoa eskatzen duen hartzekodunak?**

Konkurtsoa eskatzeko ahalduntze berezia daraman konkurtso-eskariarekin batera (ahalduntze hori *apud acta* egin daiteke), txosten ekonomiko eta juridiko bat gehitu beharko du zordunak azkeneko hiru urteetan izan duen jarduerari buruz, aurkitzen den egoerari buruz eta bere ondare-bideragarritasunarekin loturiko balioespen eta proposamenei buruz. Azpimarratu behar da, ondorio horiei begira, hartzekodunen zerrenda ardura handiz aurkeztu beharko dela.

Pertsona ezkondua bada, memorian ezkontidearen nortasuna adierazi eta ezkontza-erregimen ekonomikoa azaldu behar du.

• **Zer da prozedura laburtua?**

Zorduna pertsona fisikoa denean eta bere pasiboaren hasierako zenbatespena 10.000.000 eurotik gorakoa ez denean, epaileak prozedura laburtua izeneko prozedura bereziki sinplifikatu bat aplikatu behar du.

Pertsona fisiko ez-merkatarien konkurtso gehien-gehienak kasu honen barruan leudeke. Prozedura honen berezitasunak hauek dira:

- a) Konkurtso Legean prozedura arrunterako aurreikusitako epeak erdira murriztuko dira, salbu eta, arrazoi bereziak direla eta, epaileak, prozedura hobeto gara dadin, bere horretan mantentzea erabakitzen dituenak.
- b) Konkurtso-administrazioak txostena aurkezteko epea hilabete batekoa izango da kargua onartzen denetik kontaktzen hasita, eta hamabost egunetik gorakoa izango ez den luzapen bat bakarrik baimendu ahal izango du konkurtsoko epaileak.
- c) Prozedura laburtuan, Konkurtso Legeak aurreikusitako kideetako bakar batek osatuko du konkurtso-administrazioa (27.2.3. artikulua), epaileak, hori justifikatzen duten arrazoi bereziak daudela iritzirik, berariaz kontrakoa ebatzi ezean.



• Bi ezkontideen konkurtsoa metatu daiteke?

Konkurtso Legeak aurreikusten duenez, bi ezkontideen konkurtso-adierazpena egin ondoren, horietako edozein konkurtso-administrazioak epaileari eska diezaioke, idazki arrazoitu baten bitartez, beste ezkontidearen konkurtsoaren prozeduran metatzeko (KLaren 25.3 artikulua), baita konkurtso horiek epaitegi desberdinek adierazi dituztenean ere (KLaren 25.4 artikulua).

Hori guztia hitzarmenak elkar baldintzatzearen kaltetan izan gabe, KLaren 101.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta horren arabera, elkarrekin adierazi diren konkurtsoetan edo izapideak elkarri metatu zaizkionetan, konkurtsopeko batek aurkezten duen hitzarmen-proposamena beste konkurtsopekoaren hitzarmena epaileak onestearen baldintzapean jar daiteke.

Aukera oso baliagarria da bi ezkontideek konkurtso-eskaria egiten duten kasuetan, eta halakoetan, horietako edozein konkurtso-administrazioak metatzea eskatu ahal izango du.

Gai honetan aipagarria da Cadizeko 1 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren urriaren 10eko 157/2008 Autoa, sozietate batzuen konkurtso-adierazpena batera egiten duela, nahiz horien artean ondare-nahasmena dagoen, edota hurreko kaudimen-gabezia dauden senar-emazteena sozietate horien zorren fidantzamendu pertsonalaren ondorioz (kontuan har bedi emaztea “etxeko lanetan” aritzen dela baina irabazpidezko ondasunen erregimenean ezkondata dagoela).

Kasu honetan, Konkurtso Legearen interpretazio bateratzailea eginez, ezkontideen baterako konkurtso-adierazpena bidezkoa dela adierazten da, Bartzelonako 3 zenbakidun Merkataritza arloko Epaitegiaren 2004ko abenduaren 29ko Autoaren aipamena eginez, horrek ere eskaera bakarra egin zuten bi ezkontideen konkurtso-adierazpena egin baitzuen, nahiz eta KLaren 3.5 artikulua ez duen horien hasierako metaketarik aurreikusten. Kasu honetan ere nahitaezko konkurtsoa zen, eta aipatutako arau horrek nahitaezko konkurtsoaren kasuetara mugatzen du hartzekodunak baterako konkurtso-adierazpena eskatu ahal izatea.

Horregatik guztiatik, bidezkotzat jotzen da borondatezko konkurtso-adierazpena batera egitea, ez senar-emaztearena bakarrik, baizik eta horiek parte hartzen duten eta abalatzten dituzten sozietate guztiena ere.



- **Zer neurri har ditzake merkataritza arloko epaileak konkurto-adierazpena egiten badu?**

Merkataritza arloko epaileak erabakiko du konkurtopekoaren ondarea administratzeko eta erabiltzeko ahalmenen erregimena, eta esku-hartzearen erregimena edo etetearen erregimena aukeratu ahal izango du. Azken kasu honetan, konkurto-administrazioa arduratuko da ekonomia pertsonala edo familiarena kudeatzeaz (ikus I.6.1. apartatua).

Gorago aipatutako hedabideen bitartez (EBO eta Konkurtoen Erregistro Publikoa) adierazpen-autoari publizitatea emanez jakinaraziko du hori. Zorduna pertsona fisiko bat bada, Erregistro Zibilean ere inskribatuko dira (ahal dela, bide telematikoak erabiliz) konkurto-adierazpena, administratzeko eta erabiltzeko ahalmenetan esku hartzea edo, hala egokituz gero, horiek etetea, eta konkurto-administratzaileen izendapena.

- **Zer ondorio ditu konkurtoa adierazteak? Lanbide-jarduerari edo enpresa-jarduerari atxiki gabeko ondasunen bahiturak eteteko ezintasuna.**

Konkurto-adierazpena egiteak kontsumitzailearen hartzekodunak dituen kredituen interesen sortzapena etetea eragingo du (berme erreala duten kredituei dagozkienak izan ezik). Nolanahi ere, nabarmendu behar da konkurto-adierazpenak ez dakarrela berarekin beste epaitegi batzuen aurrean abiatutako hipoteka-prozedurak etetea, KLaren 56. artikulua hipoteka-exekuzioak etetea baimentzen baitu baina soilik ondasunak konkurtopekoaren lanbide-jarduerari edo enpresa-jarduerari edo ekoizpen-unitate bati atxikita daudenean, eta xehetasun hori ez da gertatzen hipotekak ohiko etxebizitzaren gainean eratuta dauden kasuetan.

Beste ondorio positibo batzuk dira hartzekodun guztiekin negoziatu ahal izatea hitzarmen batera iritsi ahal izateko, eta, kasurik okerreanean, konkurtopekoaren ondasunen likidazioa prozedura bakarrean gauzatuko da.

- **Zer ondorio ditu konkurtopekoarentzat hitzarmena onesteak?**

Konkurtopekoa bere hartzekodunekin hitzarmen batera iristen bada, bere zorren zenbatekoaren murrizpen bat (kita) eta/edo horien ordainketa geroratzea ("itxaronaldia") erdietsi ahal izango du. Konkurto Legeak ezartzen duenez, kita-proposamenek ezin dezakete kreditu (arrunt) horietako bakoitzaren zenbatekoaren erdia gainditu, eta itxaronaldi-proposamenek ezin daitezke bost urtetik gorakoak izan hitzarmena onesten duen epailearen ebazpena irmoa den unetik.



Ohar bedi legeak muga horiek gainditzen uzten duela konkurtsopekoa bere jarduerak ekonomiarentzat garrantzi berezi izan dezakeen enpresa bat denean (KLaren 100.1 artikulua), eta halaber, arau bereziak aurreikusten dituela hitzarmenaren edukiaren inguruan, konkurtsopekoa enpresaburu bat denean (KLaren 100.1, 2, 3 eta 5 artikulua).

Nolanahi ere, hitzarmen-proposamenarekin batera ordainketa-plan batek joan behar du hori betetzeko aurreikusitako baliabideen xehetasunarekin.

• **Zer ondorio dakar konkurtsopekoari bereziki atxikitako pertsona izateak?**

Zordun pertsona fisikoa konkurtsoan adierazten denean, Konkurtso Legeak mendeko kreditutzat hartzen ditu zordunarekin bereziki harremana duten pertsonetako bat titular gisa duten eta 93. artikulua aipatzen dituen kredituak, "konkurtsopekoa pertsona naturala denean, lan-kontratua suntsitzeak eragindako soldata edo kalte-ordainengatiko kreditu edo antzekoei" dagozkienak izan ezik.

Hala, Konkurtso Legearen 93.1 artikulua konkurtsopeko pertsona naturalarekin bereziki harremana duten pertsonatzat jotzen ditu ondorengoak: 1) Konkurtsopekoaren ezkontidea edo konkurtso-adierazpena egin aurreko bi urteetan izan dena, edo antzeko atxikitasun-harremanarekin bizi izan diren pertsonak edo konkurtso-adierazpena egin aurreko bi urteetan berarekin bizi izan direnak; 2) Konkurtsopekoaren arbasoak, ondorengoak eta anai-arrebak edo aurreko zenbakiak aipagai dituen pertsonetako edozeinenak; 3) Konkurtsopekoaren arbasoen, ondorengoen eta anai-arreben ezkontideak.

Beste alde batetik, komeni da nabarmentzea mendeko kredituen izaera edukiko dutela elkarrekiko betebeharrak dituzten kontratuetatik eratorritako kredituek (61, 62, 68 eta 69. artikulua), epaileak egiaztatzen duenean, konkurtso-administrazioak aurretiaz txostena egin ondoren, hartzekodunak behin eta berriz oztokatzen duela kontratua betetzea, konkurtsoaren interesaren kaltetan" (KLaren 92.7 artikulua).

• **Konkurtsopeko pertsona fisikoak badu elikagaietarako eskubiderik?**

KLaren 47. artikulua ezartzen duenez, zordun pertsona naturalak elikagaiekiko eskubidea izango du masa aktiboaren kontura konkurtsoak irauten duen bitartean. Salbuetsita dago likidazioaren kasua, baldin eta horren irekierak elikagaiekiko



eskubidea masaren kontura etetea eragiten badu (KLaren 145.2 artikulua). Eskubide horren zenbatekoari eta maiztasunari dagokionez, bereizi egin behar da konkurtopekoaren esku hartzeko ahalmenen gainean esku hartzea edo horiek etetea.

Esku-hartze baten aurrean bagaude, konkurto-administrazioak erabakiko du. Aldiz, ahalmen horiek etenda geratu badira bakarrik, elikagaiak jasotzeko zenbatekoa eta unea, eta horiek aldatzea, epaileak erabakiko du, konkurtopekoari eta konkurto-administrazioari berari entzun ondoren.

Halaber, gaitasun, seme-alabatasun, ezkontza eta adingabeei buruzko prozesu batean epaileak konkurtopeko pertsonari ezarritako elikagaiak eskaintzeko obligazioa masa aktiboaren kontura ordainduko da. Elikagaiekiko eskubidea duten subjektuek legez horiek eskaintzera behartuta dauden beste pertsona batzuek jasotzerik ez dutenean bakarrik gertatuko da hori.

Kasu honetan, konkurtopeko epaileak baimenduko du eta auto bidez ebatziko du horren jatorria eta zenbatekoa.

• **Zer ondasun sartzen dira masa aktiboaren barruan irabazpidezko ondasun-erregimenean ezkonduko pertsona konkurtopean egonez gero?**

Pertsona ezkondu baten konkurtoaren kasuan, kontuan hartu behar da masa aktiboaren barruan sartuko direla konkurtopekoaren ondasun eta eskubide propio edo pribatiboak, eta ezkontzaren erregimen ekonomikoa irabazpidezko sozietatearena bada, horren barruan sartuko dira, halaber, konkurtopekoaren obligazioei erantzun behar dieten irabazpidezko ondasunak. Horri dagokionez, Konkurto Legeak aukera ematen du konkurtopekoaren ezkontideak ezkontza-sozietatea edo -erkidegoa desegin dadila eskatzeko, eta hala bada, epaileak ondarearen likidazioa edo zatiketa erabakiko du, hitzarmenetik edo konkurtoaren likidaziotik ondorioztatzen denarekin koordinatuta egingo delarik.

Senar-emazteen ohiko etxebizitzak irabazpidezko izaera badu eta irabazpidezko sozietatearen likidazioa edo erkidegoaren desegitea bidezkoa bada, konkurtopekoaren ezkontideak eskubidea izango du lehentasunez bere ondarean sartua izan dadin, hura iristen den neurriraino edo soberakoa ordainduz.

Ondasunen banantze-erregimenean ezkonduko pertsona baten konkurtoan, Konkurto Legeak aurreiritzen du, masa aktiboaren mesederako, eta aurkako frogarik izan ezean, konkurtopekoak bere ezkontideari dohaintzan eman dizkiola



honek egin dituen eta jatorria bere ondarean duten kontraprestazioak, kostubidezko ondasunak eskuratzeko. Kontraprestazioaren jatorria ezin bada egiaztatu, aurreiritziko da, aurkako frogarik izan ezean, dohaintzan eman zela horren erdia, hori guztia baldin eta ondasunen eskurapena konkurtso-adierazpenaren aurreko urtean gertatu bada.

Beste alde batetik, ezkontideek “bizipeneko itun bidez” zenbait ondasun eskuratu badituzte, bataren zein bestearen konkurtsoan zatitzeko modukoak direla ulertuko da. Are gehiago, konkurtsopean ez dagoen ezkontideak eskubidea du ondasun horietako bakoitza osorik eskuratzeko, masari balioaren erdia ordainduz. Senar-emazteen ohiko etxebizitza den ondasunaren balioespenari buruzko arau berezi bat aplikatzen da (KPI bereziarekin bat etorritik eguneratutako eskurapen-prezioa).

Azkenik, Konkurtso Legeak xedatzen du, bide batez, konkurtsopekoa titular bereizezin gisa ageri den kontuen saldo hartzekodunak masa aktiboaren barruan sartuko direla, konkurtso-administrazioak nahikoa iritzi dion kontrako frogarik ez badago. Erabaki horren aurka, konkurtso-intzidentea proposatu ahal izango da.

o

